

ezagutza  
feminista  
eta itzulpen  
politikak

conocimiento  
feminista  
y políticas  
de traducción

Edizioa/Edición  
M<sup>a</sup> José Belbel Bullejos  
Arteleku 2013

## **ARTELEKU**

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa  
Diputatu nagusia / Diputado general  
Martin Garitano Larrañaga

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren Diputatua /  
Diputada del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte  
Ikerne Badiola Garciandia

Kulturako zuzendari nagusia / Directora General de Cultura  
Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi

Arteleku eta Ikus arteen zerbitziburua /  
Jefa de Servicio de Arteleku-Artes Visuales  
Esther Larrañaga Galdos

Edizioa / Edición: M<sup>a</sup> José Belbel Bullejos  
Erderazko itzulpenak / Traducciones al castellano: M<sup>a</sup> José Belbel Bullejos

Euskarazko itzulpenak / Traducciones al euskera: Tisa / Juan Mari Mendizabal

Diseinua / Diseño: Estibaliz Sádaba Murguía

ISBN: 978-84-7907-699-3

Lege gordailua / Depósito legal: SS-859-2013

## aurkibidea/ índice

ESTETIKA INTELEKTUAL BAT, DENBORAN JARRAITUA M <sup>a</sup> José Belbel Bullejos	5
QUEER TEORIAREN BIDEZ GOGOETAN Eve Kosofsky Sedgwick	15
PORNOGRAFIAREN ISPILUA Wendy Brown	31
SEXU AZPIKULTURAK AZTERTZEN. IPAR AMERIKAKO GAY KOMUNITATEEN ETNOGRAFIA AZALERA EKARTZEN Gayle Rubin	53
UNA ESTÉTICA INTELLECTUAL SOSTENIDA A LO LARGO DEL TIEMPO M <sup>a</sup> José Belbel Bullejos	103
PENSAR A TRAVÉS DE LA TEORÍA QUEER Eve Kosofsky Sedgwick	113
EL ESPEJO DE LA PORNOGRAFÍA Wendy Brown	131
UN ESTUDIO DE LAS SUBCULTURAS SEXUALES. EXCAVANDO LA ETNOGRAFÍA DE LAS COMUNIDADES GAYS EN LA NORTEAMÉRICA URBANA Gayle Rubin	157



## ESTETIKA INTELEKTUAL BAT, DENBORAN JARRAITUA

María José Belbel Bullejos

Sedgwick 1986an entzun nuen estreinakoz, gero berriro irakurri nuen, eta irakurraldi bakoitzak nire pentsamolde normala aldatzeko eskatzen zidan. Gure sentiberatasunak arras desberdinak dira zenbait alderditan. Hura literatur ikertzaile sutsua eta teorizatzaile berritzailea zen; nire trebakuntza, berriz, onerako eta txarrerako, maila kontzeptualean linealagoa den filosofo batena da. (...) Zorrozki logikoa denaren murrizketen aurka jokatzeko duen pentsaera mota baten aukera hori izan da Sedgwicken lana niretzat izan den erronkaren parte bat. Eta, jakina, hori are interesgarriago egiten du Sedgwick oso kontzeptuala izateak, nahiz eta kontzeptuak sarri elkarrekiko halako erlazio batean antolatuta egon, disonantzia eta jakintza sortzen dituen. Aldi berean, ia beti, literatur figuretatik, tonutik, halako lirismo politiko molde batetik banaezinak izaten dira. Hura irakurtzeak edukiera gehiago eman dit, eta estimatzen diot hori. (...) Sedgwick irakurtzeak eta haren inguruan eskolak emateak (...) behartu egin nau pentsa zitekeenik ez nekien modu batean pentsatzera, baina pentsamendua izateari utzi gabe. Judith Butler, "Capacity". *Regarding Sedgwick. Essays on Queer Culture and Critical Theory*. 2002.

*Ezagutza feminista eta itzulpen politikak* argitalpenak garrantzi handiko hiru emakumezko ikertzaile queer eta feministaren ekarpen teorikoetara hurbiltzen ditu interesatuta dauden irakurleak: Eve Kosofsky Sedgwicken «Queer teoriaren bidez gogoetan», Wendy Brownen «Pornografiaren ispilua» eta Gayle Rubinin «Sexu azpikulturak aztertzen. Ipar Amerikako gay komunitateen etnografia azalera ekartzen». Saiakera hauek aukeratu dira bere duten erradikaltasun eta argitasun kontzeptualagatik, haien zeharkako irakurketa batek une honetan gure testuinguru hurbilenarentzat izan dezakeen baliagarritasunagatik. Deigarria da espainiar estatuan hiru egileon produkzio teorikotik parte handiena itzuli gabe egotea. Horregatik, bereziki baliotsua da proposatutako itzulpenak euskarara eta espainierara izatea; espero dezagun horrek Sedgwick, Brown eta Rubinin (eta emakumezko pentsalari beste askoren) lanaren itzulpen sistematiko bat ekartzea, haien pentsamenduak duen garrantzi eta eraginagatik aldaketa sozialeko proiektuei, zapalkuntzen elkar gurutzatze beharrezko eta konplexu bat aztertzen dituzten eta izaera ez-monologikoa duten proiektuei ekiteko orduan.

Sedgwicken literatur ordezkari Jonathan Goldbergek 2011n argitaratutako haren hil ondoko *The Weather in Proust* liburuko parte bat da «Queer teoriaren bidez gogoetan». Testu horretan Sedgwickek gogoeta egiten du «pentsamendu, idazlan, irakaskuntza eta aktibismo feminista eta queerekiko lotura estuzko» hogei urteetako bere autobiografia intelektualaz. Saiakera hau gida ezin baliagarriagoa da aztertzeko Sedgwickek, beste zenbait pentsalarik bezala, feminismotik eta homofobiaren aurkako borrokatik egin duen esku-hartze kritikoa, egileak *Between Men: English Literature and Homosocial Desire* (1985) lanean queer teoria kontzeptualizatzeko garatu zituen ekarpen garrantzitsuak. Zera da, «feminismoaren eta nahiko berria den gay askatasun mugimenduaren arteko erlazio potentzialen bidez pentsatzeko saio bat (...). Nire asmoa lan hori idaztean zenaldi berean feminista eta anti-homofoboa izango zen ikerketa bat egitea», dio Sedgwickek *Epistemology of the Closet* testuan, haren lan eraginkorrena eta espainierara itzulita dagoen monografia bakarra (1998), baina agortuta dago eta ez dute berriro argitaratu. *Epistemology of the Closet* 1990en argitaratu zen, Judith Butlerren *Gender Trouble* kaleratu zen urte berean, eta, egilearen beraren arabera, «era zuzenago batean zentratzen da mendebaldar kulturaren XX. mendearen hasieran sortu zen homo-heterosexualitate maskulinoaren definizioaren inguruko botere eta jakintzari dagozkien alderdi sistemiko eta espezifikoei. Lan horretan, Sedgwickek baieztatzen du «definizio eta debeku homo-heterosexualen historia osagai garrantzitsua d[el]a historiaren eta kulturaren gaineko *edozein* azterketa egiteko orduan». Geroago artikulu sorta bat argitaratu zuen, *Tendencies* (1993) izenekoa, Jason Edwardsen arabera «haren lan esplizituki queerena eta politikoki engaiatuena, emakumeen sexualitatearen inguruko haren artikulu garrantzitsuen eta eztabaidatuenak biltzen dituena». Aipatutako hiru lan horiek baino lehenago, haren liburuen artean gutxien ezagutzen dena argitaratu zuen, *The Coherence of Gothic Conventions* (1980); bertan, literatura gotikoaren eta XIX. mendeko genero kristalizazioaren eta homofobiaren arteko erlazioa planteatzen zuen egileak. *Tendencies* eta gero, Sedgwickek *Fat Art/Thin Art* (1994) poema liburua argitaratu zuen, proiektu garrantzitsua Sedgwicken interes intelektual, kultural eta estetikoan testuinguruan; ez alferrik, poesia izan baitzen sormenezko haren bokazio goiztiarrena.

Lan hari edizio eta koedizio lan batek jarraitu zion: *Performativity and Performance* (1995), Andrew Parkerrekin batera idatzia. Urte hartan bertan argia ikusi zuen edizio lan batek: *Shame and Its Sisters. A Silvan Tomkins Reader* (1995), egileak Adam Frank bere ikaslearekin batera egina, biek Tomkins afektuen psikologoarengan zuten interesa erakusten duena; Gary

*in Your Pocket* (1996), Gary Fisher hiesarekin erlazionatutako gaixotasun batez hil zen bere ikasle afroamerikarraren literatur lana, eta *Novel Gazing: Queer Reading in Fiction*, (1997). Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran Eve K. Sedgwickek *A Dialogue on Love* (1997) argitaratu zuen, prosa eta haikua konbinatzen dituen narrazio autobiografiko bat, haren psikoterapia prozesua kontatzen duena. Liburuak ekarpen berriak dakartza emakumeen sexualitatearen inguruan, eta haren familia inguruneaz zein budismora egindako hurbilketaz dihardu, baita hasi duen arte jardueraz ere, ehunak landuz, eskulturak, instalazioak eta ikusizko poemak eginez. *Touching Feeling: Affect, Pedagogy and Performativity* (2003) da egilea bizirik zegoela argitaratutako haren azken liburua, zeinean nabarmentzekoa baita «Paranoid Reading/Reparative Reading. You Are So Paranoid You'd Probably Think This Text Is About You» saiakera; bertan, Silvan Tomkinsen eta budismoaren tresna kontzeptualak erabiltzen jarraitzen du, eta Melanie Kleinen lanaren osagaiak gaineratzen ditu.

Eve Kosofsky Sedgwick minbiziz gaixotu zen 1991n, eta hamarkadaren erdialdean jakin zuen sendaezina zuela minbizia. Bere hilkortasunaren eta hies pandemiaren ondorioz hildako hainbat eta hainbat lagun, ekintzaile eta ikasleren hilkortasunaren arteko erlazioa da homofobiaren aurkako haren proiektuaren ardatzetako bat. Artikulu asko idatzi zituen halaber *Mammen*, Estatu Batuetako bular-minbizidun emakumeen aldizkaria, 1998 eta 2001 artean. Jarraitu zuen eskolak ematen, arte alorreko bere lanean eta bere hil ondoko liburua izango zena idazten, *The Weather in Proust*, Jonathan Goldbergekek editatua; liburua oinarritzen da CUNYn, Center of Graduate Students of New York, (unibertsitate horretan eman zituen eskolak bere bizitzako azken hamar urteetan) Prousten inguruan eman zituen ikastaroetan, bai jarraitu lanean ere afektuez, idaztearekiko bere harremanaz, uzki desiraz, ezagutzaz, depresioaz eta aktibismoaz.

Sedgwickek lagundu egin zuen queer azterketarako espazio bat sortzen Estatu Batuetako mundu akademikoan, konbentzionaltasunik erabateko eza eta genero eta sexualitatearen inguruko haren analisisen argitasun kontzeptual handia ezaugarri dituen pentsamolde batetik abiatuta. Pedagogo handi eta ausarta ere izan zen, entzuteko gaitasun handia baitzuen, bakoitzarengandik onena ateratzea ahalbidetzen ziona, ulertzen zituen bere solaskideek hitz egin nahi zuteneko leku eta ezagutzak, balizko blokatze, herabetasun edo bitxikeriak gorabehera, edo, hain zuzen ere, haiexengatik. Haren lanarekiko interesa hazi eta hazi egin da hil zenetik, eta haren lana, Michael Moon haren lagun min eta kolaboratzaileak ohartarazten duen bezala, bere bizitza propioa hartzen ari da.

## **Estrategia erretorikoak, egia-efektuak eta indarkeria diskurtsiboa modernidade berantiarrean.**

Wendy Brownen «The Mirror of Pornography» eragin handia izan zuen haren liburu baten, *States of Injury. Power and Freedom in Late Modernity*, (1995), parte bat da. Wendy Brownek hamar liburutik gora argitaratu ditu orain arte, hamabost hizkuntza pasetara itzuliak; horregatik da azpimarratzekoa Berkeley Unibertsitate ospetsuko Zientzia Politikoen Departamentuko zuzendariaren testu hauen itzulpenak benetako aitzindariak direla. Izan ere, orain arte lau artikulu besterik ez baitziren argitaratu, beste horrenbeste saiakera bildumatan. Garrantzitsua da aipatzea haren ekintzaile lana, Kaliforniako hezkuntza publikoko erakundeen finantziario murrizketen aurka eta Occupy Wall Street mugimenduaren alde.

Brownek 1988n argitaratu zuen bere lehen liburua, *Manhood and Politics. A Feminist Reading in Political Thought*. Hari jarraitu zion *States of Injury* liburua honako galdera honetatik abiatzen da: Nola bihurtu da kaltea, laidoa (*injury*, latinezko *iniuria* hitzetik) gaur egungo gure bizitzako identitatearen oinarri?

*States of Injury*ren hitzaurrean Brownek esplikatzen du Estatuari kritika feminista bat egiteko bere interesa zettorrela «ez hainbeste harekiko lilura inrintseko batetik; motiboa gehiago zen feminismoak menderatze maskulinozko praktikak epaitu edo zuzentzeko Estatura jotzean egindako biran presente zeuden helburu politiko emantzipatzaileen disoluzio potentziala». Eta, analisi horretatik abiatuta, bere buruari galdetzen zion «zer arrisku dakartzan helburu politiko emantzipatzaileak bilatzeak erakunde gehienbat errepresibo, arautzaile eta despolitizatzaileetan, beraiek ere hankazgoratu nahi den erregimenaren osagaiak dituztenean (adibidez, mendekotasun maskulinoa)». Hitzzaurreko hirugarren ideia garrantzitsu bat zen subjektuen erakuntzan zeuden alderdi osatzaileak aztertzea. Hala, Brownek zioen «egungo menderakuntzazko diskurtso politikoen aurreko alternatiba demokratiko errotiko baten bideragarritasuna erabakitzen du[ela] ez bakarrik alternatiba horren aurka dauden indar instituzionalen antolakuntzak, baizik eta disidente politikoez alternatiba horrekiko duten *desirak* ere eratzen du». Alegia, egilea planteatzen ari zen nola eratzen diren gorputz bihurtutako subjektuak eta desira soziopolitikoak.

Brownek asmatu zuen «desengainu politikoaren externalizazioa» kontzeptua, haren lanean maiz agertzen den gaia. Brownek dio ezkerria

«iraultza» ideiarekiko prozesu malenkoniatsu batean itsututa bezala dagoela. Egileak bere buruari galdetzen dio ezkerria doluan ote dagoen (hirurogei eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadetako proiektu iraultzaile huts egindakoa negartzen, heriotza hark gure ametsak zeramatzala baitzirudien), edo agian dolua oinarritzen duela optimismo historikoan eta geure patua kontrolatu dezakegula pentsatze fantasiosoa.

«Pornografiaren ispilua»ren itzulpena, izan dezakeen nolabaiteko zailtasunetik haratago, saiakera akademiko bat baita -eta hemen irmo defendatu nahi dut teoriaren garrantzia, eta behin eta berriro azpimarratu teoria kritikoa irakurri eta ulertzeko, maratoian parte hartzeko bezala, entrenatu beharra dagoela-, oso garrantzitsua ematen du, Catharine MacKinnon estatubatuar feministaren pentsamenduaz egindako kritikarik zorrotzenetako bat delako. MacKinnon teorizatzaile eraginkorrena da feminismo kontserbatzaile bat formulatzeko orduan, itxura erretoriko erradikal baten atzean, eta haren kontzeptualizazioak nonahi daude (hainbeste eragin dute, non egilearen izena esatea ere ez baita beharrezkoa) «anti-sexu» eta anti-pornografia proiektu feminista eta aurrerazale guztietan, sexuaren langileen autodeterminazio eta defentsaren aurkako proiektuetan, lan politikoa legegintzazko proposamenetan zentratu nahi duten proiektuetan; proposamen horietan Estatuari eskatzen zaio «babes dezan» emakumea -singularrean, emakumeez mintzatzeak haien arteko desberdintasunei begiratzea baitakar-, zeina MacKinnonek beti kontzeptualizatzen baitu biktima gisa genero eskema binario eta monolitiko baten barruan.

«Pornografiaren ispilua» ez da hainbeste zentratzen MacKinnonen genero teoria soziala zehatz-mehatz aztertzen, baizik eta «haren lanaren egitura erretorikoa» ikertzen, «atzematen haren proiektu teorikoak duen boterea (...) eta egile horrek sortzen duen “egia” ordena indartsua (...); horren aurrean beste feminismo batzuk egon litezke, botere horri aurre egin diezaioketenak azterketa konplexuagoez sexualitatea eta sexu indarra irudikatzen orduan: aberatsagoak eta demokratikagoak direnak beren ikuspegi politikoan».

Browni batez ere interesatzen zaio saiakera honetan aurkeztea:

«...bestelako galdera sorta bat MacKinnonen eragin politikoen inguruan; haren prosaren egitura logiko eta narratiboei, haren literaturako estrategia erretoriko eta egungo oihartzun politikoei dagozkien galderak dira. (...) Alor hori modernidadearen hizkuntza politikoak formalki menderatuta agertzen da (...) zeinean totalizatu, murriztu, sistematizatu eta ixten duten zientifismo alorreko analisi moldeek botere handiagoko eraginak lortzen baitituzte hain zuzen halako indarkeria diskurtsibo bat erabiliz».

Wendy Brownen beste ekarpen bat MacKinnoni kritika egitean da MacKinnonen antsietateak adierazten duen sintoma izaera feminismoari mekanismo esplikatzaile trahistoriko bakar bat eskaini nahi izatean, antsietate nabarmena bera, Brownek «modernidade berantiararen (eta falogozentrismoaren) espezifikoa» jotzen duena, erreala eta eraginkorra zer den gaiaren inguruan.

Wendy Brownentzat, MacKinnon inspiratzen da funtsean marxismoaren alderdi problematikoenetako batean: «haren menderatzearen *zientzia*», eta kontsideratzen du MacKinnonek «errepikatu egiten duela marxismoaren ezaugarri problematikoen, baina baita erretorikoki konbentzigarrienetako bat: kritikatzten duenaren estiloa erabiltzea. (...) MacKinnonen genero teoria genero pornografikoaren barruan gertatzen da». Egileari iruditzen zaio MacKinnonen genero teoriak «sendotu egiten du[ela] generoa gizonen nagusitasunaren krisi une baten sintometatik abiatuta. Hartara, MacKinnonek genero egitura sakon, unibertsal eta trahistoriko gisa formulatzen duena errealtatean adierazpen hiper-pornografiko bat da», eta bere analisisa amaitzen du honako hau ohartaraziz:

«Historiaren amaiera» fenomenoak -hura artikulatzen dute, alde batetik, gaur egungo teorizatzaileek historiografia progresistari planteatzen dizkioten erronkek, eta bestetik bai aspirazio sozialisten lur jotzea bai hobekuntza sozialerako promesa demokratiko-liberalen murrizketak-identitate, estrategia, posibilitate eta etorkizun politikoaren inguruko galdera kezkatu sorta bat sortzen du askorengan (...) etsipen erradikal bat adierazten du historiaren une honen aurrean. (...) Hala, MacKinnonen genero-teoriaren indar erretorikoa intrintsekoki lotuta egon daiteke (...) modernidade berantiararen etsipen politikoari».

## **Queer genealogietan ahanzturaren aurka borrokatzea.**

«Testuak zirkunstantzia historiko, sozial eta kultural espezifikoetan gertatzen dira, eta denboraren joanaz aldatzen diren konglomeratu diskurtsiboen parte bat dira. Testuak beste testuinguru batzuetan irakurtzen direnean haiek osatu zituzten solasaldiak eta gaiak ahaztu egiten dira sarri, ezezagunak. «Thinking Sex»eko zenbait zati 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadaren hasieran sortu ziren, eta hiru gertakari nagusik eratu zituzten. Aurrena izan zen sexualitatearen azterketan gertatzen ari zen paradigma aldaketa. Artikulua saiatzten zen hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran gay historian, historia feministan eta sexualitatearen historian sortu zen esparru analitikoak sintetizatzen. Interes teoriko horiek eragin zuten hirietako gay gizonen inguruan ikerteta

etnografikozko proiektu bat, gay auzoak eratzea eta sexu guneen ekonomia politikoa. Bigarren gertakaria sexu-gerra feministak izan ziren; haietan oso sartuta ibili nintzen, eta Barnard Konferentziako gertakariak haien parte izan ziren. Hirugarrena eskuin sozialki kontserbadorearen mehatxu ezkutua zen, gero eta eragin handiagoa izaten ari zena politikan, diskurtso publikoan, estatu burokrazietan eta sexualitatearen arautzean Estatu Batuetan. Gayle Rubin. «Blood Under the Bridge. Reflections on “Thinking Sex”». *Deviations*.

Gayle Rubinen lan teorikoak eragin handia izan du feminismoan, sexualitatearen inguruko egungo azterketetan, homofobiaren eta lesbofobiaren borrokan eta sexu dibertsitatearen defentsan, bai Estatu Batuetan bai handik kanpo. Haren «Blood Under the Bridge. Reflections on “Thinking Sex”» testuan Rubinek «proto-queer» izaera ematen dio 1983ko testu hari.

2011n argitaratu zen *Deviations. A Gayle Rubin Reader*, hark lau hamarkadatan idatzitako artikulu garrantzitsuenetako batzuen bilduma. Rubinek sexu piramidearen beheko mailetan (sexu ez monogamoa, fetixismoa, s/m praktikak, sexu langileak) aurkitzen diren subjektu politikoaren defentsak ekarri dio sarri askotan haren presentzia zentsuratua izatea hainbat ekintza publikotan, eta «anti-sexu» feministentzat lehen etsai publiko bihurtzea. Arazo ugari ere ekarri dizkio unibertsitatean lan finkoa lortzeko orduan; horregatik, bere lan bizitza gehienez «lan indar akademiko ibiltaria» taldean sartuta egon da, Berkeley Unibertsitateko Geografia departamentuko Richard Walker irakasleak «lunpen irakasletza» esaten diona, eta zailtasunak izan ditu bere testuak argitaratzeko orduan, aldizkari eta argitaletxe apaletan izan ezik.

*Sex, Gender and Politics* da *Deviations*en sarrera; bertan, Gayle Rubinek gogoeta egiten du bere lanean eragina izan duten alderdi biografikoez eta haren produkzio eta harrera testuinguruez. Hego Karolinan jaio eta bertan eskolara joan izana, erlijio protestantearen rol hegemonikoa, otoitza nahitaezkoa baitzen eta inposatu egiten zitzaien beste gutxiengo erlijiosoei (bera zen ikasle judu bakarra lehen mailako eskolan); nola bizi izan zuen arraza bereizkeria eta ikasle afroamerikarrak eskola publikoan sartzea, haien integrazioaren alde zeuden ikasle zurieta bat izanik. Hala ere, Rubinek ez ditu hegoaldeko estatu hartako alderdi positiboak ahazten, komunitate loturak eta abegi ona. Gertakari horiek eragin handia izan dute, inolaz ere, haren lanean, familia barruan aurkitzen zuen irakurtzeko zaletasunarekin batera. Rubinek oso emankorrak izan zirelakoan aipatzen ditu halaber Ann Arbor kanpus oso politizatuan ikasten emandako urteak,

Michigan Unibertsitatean, Vietnamera borrokatzera joateko izen emate nahitaezkoaren aurka borrokatzen zen garaian, eta emakumeek oso paper garrantzitsua bete zuten hartan. Bilera eta topaketa haietatik -zeinetan emakumeek portaera ez hain sexistak espero baitzituzten Ezker Berriko gizonengandik- emakume talde autonomoak sortzen hasi ziren, mugimendu feministaren bigarren uhineko buru-kontzientzia taldeak bihurtuko zirenak. Gayle Rubinek ohartarazten du orobat unibertsitate hartako Zientzia Sozialeko departamentuen garrantzi hezlea, irakasle jakin batzuek, hala nola, Charles Tilly eta David Schneider, betetako rol garrantzitsua, eta bertako artxibo eta liburutegien aberastasuna, hari esker ikasi eta generoan espezializatu ahal izan baitzen halako ikasketen departamenturik ez zegoenean. Eta, azkenik, San Franciscora lekualdatzea, hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran; horri dagokionez, egileak bere burua definitzen du hiri handiagoetara, eta, beraz, askeagoetara, egindako «gay migrazio handi» haietan parte hartu zuten pertsonetako baten modura.

1975en Rubinek *The Traffic in Women: Notes on the "Political Economy" of Sex* argitaratu zuen. *Emakume trafikoak* Emma Goldmanengandik hartzen du izenburua, eta Althusserrek marxismoari egindako ekarpenetatik, Freud eta Lacanen psikoanaliatik eta Levi-Straussek ahaidetasunaz eta emakume-trukeaz egindako azterketetatik abiatzen da, bai sexu/genero eragin handiko kontzeptua kontzeptualizatu ere. 1983n Barnard Collegen egindako konferentzia feministan bere *Thinking Sex: Notes for a Radical Theory of the Politics of Sexuality* testu oso garrantzitsua aurkeztu zuen; bertan aztertzen ditu sexualitate desberdinak eta haien piramide gisako izaera hierarkizatua, sexu praktika batzuk natural eta beste batzuk antinaturaltzat, eta, horregatik, estigmatizatutzat jotzen dituena. Rubinentzat, feminismoa ezin bihur daiteke teoria monologiko, zapalkuntza nagusia, klase alorrekoa, beste zapalkuntza nagusi batez, emakumearena, ordeztu nahi duen marxismoa bezala, eta baiesten du feminismoa ezin dela izan sexualitatearekin erlazionatutako zapalkuntza guztien berri ematen duen tresna teoriko bakarra; horregatik, dio, sexualitatearen inguruko azterketa argigarriagoak eta anitzagoak behar dira. Antropologoak gaineratzen du, era iragarle samarrean, anti-sexu talde feministek eta haiek sustatzen dituzten legeek, hala nola pornografiaren debekua, bortxaketen kausa zuzentzat jotzen dutelako, aliantza arriskutsuak sortuko dituztela, eta argudio multzo bat eskainiko dietela eskuin berriaren gehiengo moral kontserbadoreei.

Rubinek «Sexu azpikulturak aztertzen», euskarara eta espainierara itzuli dugun artikulua, idatzi zuen «sexu kategorien bizitza materiala»ren genealogia bat eta historia intelektual zehatzago bat xehetasun handiz

ezagutzera eman nahian. Soziologia eta antropologia alorreko Mary McIntosh, Jeffrey Weeks eta Kenneth Plummer britainiarren eta Esther Newton estatubatuarren lana aldarrikatzen du. Rubinek, Foucaulten lanaren miresle handia, zehazten du hura ez zela sexualitatearen azterketei konstrukzionismo sozialaren kategoriak aplikatu zien lehen idazlea izan, eta eragin handiko egile bakar batengandik haratago, elkar ernaltze prozesuak gertatu zirela hainbat diziplina eta jatorri geografikozko egileen artean.

Rubinek zabaldu eta zehatz-mehatz arakutzen ditu queer genealogiak, baita ezagutza produkzioa ere; izan ere, queer genealogia horiek eskuarki frantziar pentsamendu postestrukturalistari, Foucaulten jenialtasunari eta literatur azterketei egozten zaizkie. Ezin dugu Mary MacIntoshen «The Homosexual Role» testuaren proto-queer izaera aipatu gabe utzi; egilea oraindik orain zendu da, baina haren lana ez da aztertu merezi duen justiziaz, saiakera garrantzitsu hura 1968n idatzi baitzuen, oso goiztiarra izan zen. Aipatu beharrekoa ere Esther Newton antropologoa, *Margaret Mead Made me Gay. Personal Essays, Public Ideas* saiakeran biltzen den haren proto-queer lan garrantzitsua gure hizkuntzetara itzuli gabe egon arren, eragin handia izan baitzuen Rubinen lanean, John Gagnonen eta William Simonen ikerketekin batera.

Azkenik, azpimarratzekoa da Gayle Rubinen erudizio handia, eta *Deviationsen* atal bakoitzean topatzen ditugun bibliografien baliagarritasun handia, artxibo alorreko haren ezagutza handiarekin batera; alderdiok lagundu egingo dute, zalantzarik gabe, ikerketa berriei ekiten sexualitatearen historia hobeto ulertzeko.

*Eve Kosofsky Sedgwick*



*The Weather in Proust*

*Jonathan Goldberg, editor*

## QUEER TEORIAREN BIDEZ GOGOETAN

Eve Kosofsky Sedgwick

Lehenengo eta behin, Ochanomizu Unibertsitateko nire anfritrioiei eskerrak eman nahi dizkiet gaur hemen hitzaldia ematera gonbidatu nautelako. Esker ona adierazi nahi dut eman zaidan aukerarengatik, baita hemen aurkitu dudan harrera on eta eskuzabalarengatik ere.

Baina zirrargarria izateaz gain, irakasgarria ere bada kultura alorreko gai garrantzitsuez hitz egitea tamalez oso ezagunak ez zaizkidan historia eta erakundeak dituen herrialde bat bisitatzean. Sinetsidazue, mesedez, iruzkin hauei behin eta berriz darien kutsu estatubatuarrek ez duela adierazten interes faltarik japoniar esperientzia oso bestelakoan. Alderantziz, espero dut nire hitzaldia entzungo duzuela bihotzezko gonbidapen baten modura, gauzak gehiago partekatzea ahalbidetuko digun esperientziak alderatzeko elkarrizketa batean sartzeko.

Orain pribilegio handia dirudi Estatu Batuetan izandako pentsamendu, literatura, irakaspen eta aktibismo feminista eta queerekiko konpromiso hurbileko hogeitaz atzera begiratu ahal izatea. Hori egitean, konturatzen naiz badirela funtsean bi oinarrizko printzipio alor horietan egin dudan lanean. Ez dira hainbeste etika printzipioak, ezpada, suposatzen dut, izaera ezaugarriak, hizkuntza mentala edo estetika intelektual iraunkorren antzeko zerbait.

Horietako lehena ez-dualismo ohitura kontzeptual oso zorrotza da. Edonork «X kontzeptua, Y kontzeptuaren kontrakoa» planteatzen duen bakoitzean, nik beti erantzuten dut, era gogoetsuan, «baina agian X eta Y ez dira hain desberdinak, azken batean». Ez-dualismo hori dela-eta, deseraikitzeke tresna metodologikoak beti izan ditut gogoko. Arrazoi beragatik, izugarri interesgarria iruditzen zait pentsamendu budista.

Bigarren ohitura mentalak oso harreman estua du ez-dualismoarekin, baina esparru politikoago batera eramana: alegia, pazientzia oso gutxi dut edozein motatako separatismoekin. Hori hala da bai ni sar nintekeen bi taldeei dagokienez, feminismo separatista edo nazionalismo judutarra, bai definizioz salbuetsita geratuko nintzatekeenei dagokienez, nazionalismo

beltza bezala. Edozein motatako talde homogeenak eratzeko bulkada politikoki atzerakoia iruditzen zait, eta gainera intelektualki ergelgarria.

Jakina, pentsamendu kritikoaren paisaien inguruko gauza iragargarri bakarra da nola aldatzen diren, etengabe eta modu kaleidoskopiko batean. Kaleidoskopioaren biratze bakoitzaz, orientabide teoriko berezi batek agerian utziko ditu, batetik, alderdi berri garrantzitsu eta erabilgarriak, eta bestetik, zoritxarrez, maiz muntarik gabeko alderdi berriak ere. *Gestalt* aldaketa sarri horientatik, pertsona jakin baten lan teorikoaren nondik norakoak atzera begiraturaz bakarrik geratzen dira agerian.

Teoria feministan dudan interesa 1970ean piztu zitzaidan, ikaslea nintzelarik Cornell Unibertsitatean eskaini zen lehenbiziko emakumeen ikerketa ikastaroan. Harrigarriro, ikastaro erronkari hura Ekonomia Nazionaleko Fakultateak antolatu zuen, ez Humanitateen Fakultateak! Yale unibertsitatean, zeinean doktoretza lana egin bainuen Ingeles Departamentuan, ez zen batere sustatzen lan feminista egitea, eta hori gutxi esatea da. Baina 1978n nire jardun osoko lehen irakasle postuak egoera politiko izugarri nahasi eta emankor batean murgildu gintuen ni eta nire lankide berriak. Hamilton Collegen irakatsi nuen, gizonentzako Humanitate fakultate txiki, bakartu bat, justu garai hartan emakumeentzako hurbileko fakultate bat bereganatu zuena. Hartara, gizonezkoentzako erakunde oso kontserbadore batek aurre egin behar izan zion aurreko mendean eta lehenagotik ere ezeztatu egin ziren genero auzi sorta bati. Bat-batean, ez zeuden bakarrik irakatsi beharreko emakumezko ikasleak, baizik orobat kulturizatu beharreko emakumezko irakasleen masa kritiko bat, eta egin beharreko aldaketa handiak, bai ikasleen bizitzan bai fakultateko ikasketa planetan. Gainera, gizonezko irakasleek eta administrazio alorreko langileek ez zuten susmatzen ere halako aldaketak beharrezkoak izango zirenik.

Ondorioa izan zen emakumezko irakasleen talde txikiak hasi zuela proiektu nekagarri baina oso bizkorgarri bat pentsamendu feministaren inguruan heziketa intentsiboa emateko. Geure burua hezi behar genuen, gure ikasleak, gure lankideak eta gure erakundea, dena aldi berean. Gauzak erraztu zituen faktore bat izan zen gutako askok epe luzeko (lau urte) kontratu bakarra genuela; beraz, ezerk ez zigun eragotziko arrisku profesionalak hartzea fakultate harekiko gure harreman gatazkatsuan.

Estatu Batuetan, 1980 inguruko garaian, teoria feminista abagune zirrargarri, ia arriskutsu batean zegoen. Zenbait irakasgaitan emakumezko irakasleak sartzeko saio batzuen ondoren, zeinetan emakume gutxi batzuen idazlan

eta bestelako lorpenak gizonezkoen kanonari gaineratu baitzitzaizkion, garai hura erronka feminista oso oinarrizkoen garaia izan zen, irakasgaien sustrai kontzeptualak zalantzan jartzekoa. Garai hartan aldarrikatu zen zientzien objektibotasuna generotik askatzea, pribilegio falikoa psikologian, estatu-gizonek eta gerrariek izandako garrantzi eskusiboa historian, balio estilistiko hutsezko epaiak literaturan... horiek denek jasan zuten eraso feminista erradikal bat. Kontzeptu gutxi batzuek, hala nola patriarkatua, babes kritikoa berri bat eskaintzen zuten, itxuraz, diziplina-mugetatik haratago. Hamilton Collegeko nire lankideei gertatzen zitzaie bezala, jakintza berri haren atzetik abiatzen ziren ikertzaile ia guztiak emakumeak ziren, eta ikerketa hura ia eksklusiboki zentratzen zen emakumeen esperientzietan eta gizonezkoengandik jasotako emakumeen zapalkuntzan. Testuinguru zorabiagarri hartan aurkitu nintzen 1985eko nire *Between Men* liburuan agertzen den desira homosozialaren inguruko eztabaida garatzen.

Lan hori garatzeko ernamuina eguneroko bizitzatik ateratako behaketa psikologiko bat izan zen: esperientzia pertsonaletik eta literatura ingeles eta estatubatuarren nire irakurketatik konturatu nintzen bi gizon emakume beraz maitemintzen ziren bakoitzean bazirudiela bi gizonek gehiago atsegin zutela batak bestea, arerioa zen aldetik, beren desira itxuraz zentratzen zen emakumea baino. Behaketa hartaz zenbat eta gehiago pentsatu, sortzen ari zen teoria feministaren testuinguruan, gero eta potentzialki esanguratsuagoa iruditu zitzaidan, bai kaltegarriagoa ere.

Lehenik eta behin, kaltegarria zen ordu arteko teoria feminista gehienaren atzean zegoen genero arteko separatismo implizituarekiko. Gizonezkoak nagusi ziren egoera akademiko batean irauteko borrokan ari zen emakumezko irakasle talde baten testuinguru batetik sortu bazen ere, gizonezkoen desira homosozialaren liburuko paradigmak iradokitzen zuen emakumeen patuak ulertzearen beharrezkoa zela orobat ulertzea ez bakarrik gizonen eta emakumeen arteko harremanak, baita, de facto, gizonezkoek beste gizonezkoekin zituzten harremanen egituraketa ere. Ildo horretan, nire lanak, beste zenbait lanekin batera -hala nola, Gayle Rubinek egiten duen «emakume trafikoa» paradigmaren inguruko azterketa antropologian eta psikoanalisian-, iragarri zuen Estatu Batuetako jakintzan gertatutako eskala handiko trantsizioa emakumeen azterketetatik genero azterketetara. Iradokitzen zuen generoa aztertu beharra zegoela irudikapen sistema konplexu gisa, sistema dinamiko bat atzera-elikadura eta interakzio maila aniztuna, eta ez bakarrik osagarri itxuraz bateraezinen (gizon eta emakume) batuketa huts baten modura.

«Gizonezkoen desira homosoziala»: *Between Men* liburuaren izenburu-azpiko esaldiaren helburua zen egoeraren bai diskriminazioak bai paradoxak markatzea<sup>1</sup>. Hasteko, «Gizonezkoen desira homosoziala» oximoron bat da, kontraesan gisako bat. Garai hartan «homosozial» hitza tarteka erabiltzen zen historian eta zientzia sozialetan, sexu bereko pertsonen arteko lotura sozialak adierazteko; hitz asmatu berria zen, «homosexual» hitzarekiko analogiaz nabarmen eratua, eta «homosexual»etik bereizteko, hori ere nabarmenki. Izan ere, gizonezkoen arteko adiskidetasuna bezalako jardueri aplikatzen zitzairen, homofobia bizia agertu dezaketenak, Estatu Batuetako gizartean sarri gertatzen den bezala; funtsean, homosexualitatearen beldur eta gorrotoa. Beraz, homosoziala zena desiraren, potentzialki erotikoa orbitara itzultzea hipotesi berri bat artikulatzea zen. Nik homosozialaren eta homosexualaren arteko *continuum* potentzial etengabea iradokitzen nuen; *continuum* horren ikusgaitasuna gizonentzat, gizarte estatubatuarrean, errotik zapuztuta dago. «Gizonezkoen desira homosoziala» esaten nion *continuum* osoari.

«Desira» hitza aukeratu nuen, eta ez «maitasuna», osagai erotikoa azpimarratzeko, zeren eta, diskurtso literario-kritikoan eta antzekoetan, «maitasuna» gehiago erabiltzen da emozio zehatz bat izendatzeko, eta «desira», egitura sistemiko bat izendatzeko; ikerketa honetan bulkada sozialen aldaketa estrukturalen inguruko argudio sorta batek elikatu zuen abiarazitako dialektika kritikoa. Gehienetan, «desira» erabiltzen ari nintzen psikoanalisiak «libido» erabiltzen duen antzeko moduan: adierazteko ez egoera afektibo edo emozio zehatz bat, baizik eta indar afektibo edo soziala, lika, haren adierazpidea areriotasuna, gorrotoa edo hainbeste karga emotiboa ez duen zerbait izan arren, harreman garrantzitsu bat itsasten duen lika. Indar hori zein neurritan den sexuala (historikoki zerbait sexuala izateak zer esan nahi duen) galdera praktikoa bat zen.

Nire formulazioa bereziki *gizonezkoen* desira homosozialean zentratzen zen arrazoi zehatz batengatik. Ikerketa haren helburuetako bat zen aztertzea sexualitatearen moldeak, are sexualitate gisa *kontatzen* duena, zein modutan dauden botere harreman historikoen mende, eta alderantziz. Ondorio bat da boterera iristeko bideetan gizonezkoak eta emakumezkoak hain desberdinak diren gizarte batean genero desberdintasun handiak izango direla orobat sexualitatearen egitura eta eraketan.

Adibidez, homosozialaren eta homosexualaren arteko oposizio garrantzitsua, antza denez, ez da gizonezkoentzat bezain erabatekoa edo dikotomikoa emakumeen kasuan, ez behintzat estatubatuar gizartean. Une

historiko zehatz honetan, helburu, emozio eta balioen *continuum* ulergarri batek lotu egiten zuen lesbianismoa emakumeek emakumeei emandako beste arreta moldeei: amaren eta alabaren arteko lotura, adibidez, ahizpen arteko lotura, emakumeen arteko adiskidetasuna, sarean lan egitea eta feminismoaren borroka aktiboak. *Continuum* hori eten sakonek zeharkatzen dute –homofobia askorekin, arraza eta klase gatazkekin-, baina aldi berean emakume askorentzat zentzu hutsezko kontua dirudi. Politika garratza bada ere, sentimenduak kontrajarriak badira ere, oso logikoa dirudi esatea estatubatuar gizarteko emakumeak maite dituzten eta beste emakumeei irakatsi, haiek aztertu, elikatu, haietaz idatzi, haien alde manifestatu, lana eman edo beste emakumeen interesak beste nolabait defendatzen dituzten emakumeek bat datozen eta elkarlotuak diren jarduerak bilatzen dituztela. Hala, «homosozial» izenlaguna emakumeen arteko loturei aplikatzen zaienean ez da dikotimizatu behar, eta «homosexual»etik bereizi; *continuum* osoa adierazi dezake, argi eta garbi.

«Emakumeak maite dituzten emakumeak» eta «emakumeen interesak defendatzen dituzten emakumeak» arteko *continuum* horren itxurazko bakantasuna –unitatea- esparru erotiko, sozial, familiar, ekonomiko eta politikoetara zabaltzea ez litzateke hain harrigarria izango gizonezkoen arteko loturekin halako kontraste biziaren egongo ez balitz. Gizonezko politikari kontserbadoreak «familia balioak» serio negoziatzera esertzen direnean, gizonen interesak defendatzen dituzten gizonak dira. Egia esan, hezurmamitu egiten dute Heidi Hartmanek egiten duen patriarkatuaren definizioa: «gizonen arteko harremanak, oinarri materiala dutenak, eta, hierarkikoak izan arren, gizonen artean interdependentzia eta elkartasuna finkatu edo sortzen dutenak, hartara emakumeak menderatzeko<sup>2</sup>». Haien lotura bat al dator nola edo hala gizonezko gay bikote maitemindu baten loturarekin? Politikari kontserbadoreek ezetz esango lukete, nazkaz. Zergatik ez, ordea? «Gizonak maite dituzten gizonak» eta «gizonen interesak defendatzen dituzten gizonak» arteko *continuum* horrek ez al du emakumeei dagokienak duen indar intuitibo berdina?

Alderantziz: 70eko hamarkadako egitura patriarkalen inguruko literatura interesgarri gehienak iradokitzen du «nahitaezko heterosexualitatea» garatzen dela gizonezkoek menderatutako ahaidetasun sistemetan, edo ezkontza heterosexuala bezalako instituzio patriarkalen ondorio beharrezkoa dela homofobia<sup>3</sup>. Garbi dago, oso komenigarria izan baliteke ere gizonak gizonen lotzen dituzten harreman guztiak, zeinen bitartez gizonak gizonen estatusa –simetria hori oso erabilgarria izan arren- goratzen baitute, talde batean elkartzea, elkartze horrek oztopo estruktural mugatzaile bat topatzen

du. Estatubatuar gizartearen ikuspuntutik, behintzat, itxuraz ezinezkoa izan da homofobia ez zen patriarkatu mota bat irudikatzea. Gayle Rubinek, adibidez, honako hau idazten du: «Giza sexualitatearen osagai homosexuala ezabatzea, eta, horren ondorioz, homosexualak zapaltzea da... emakumeak zapaltzen dituzten arau eta harremanak dituen sistema beraren emaitza bat<sup>4</sup>».

Homosexualen zapalkuntza patriarkal horren adierazpen historikoak basatiak izan dira, eta ia amaiezinak. Louis Cromptonek zehazki deskribatzen du historia hori, eta genozida dela dio<sup>5</sup>. Estatu Batuetako gizartea basaki homofobia da; eta gizonen zein emakumeen aurka zuzendutako homofobia ez da arbitrarioa, ezta funsgabea ere, ez: tinko tartekatuta dago familia, genero, adin, klase eta arraza harremanen bilbean. Estatu Batuetako gizarteak, nioen 1985en, ezin zion homofobo izateari utzi bere egitura ekonomiko eta politikoak aldatu gabe.

Edonola ere, ez zegoen garbi gizarte patriarkal gehienek estrukturalki homofobia barne hartzen dutenez, patriarkatuak estrukturalki homofobiaren *premia* duenik. Areago, antzinako grekoen adibideak frogatzen du, nire ustez, edozein motatako patriarkaturi eusteko heterosexualitatea beharrezkoa izan arren, homofobia, gizonen aurkakoa bederen, ez dela beharrezkoa. Grekoentzat «gizonak maite dituzten gizonak» eta «gizonen interesak defendatzen dituzten gizonak» arteko *continuum* horretan ez zegoen ia etenik.

Garbi dago, beraz, badagoela estatubatuar gizartean asimetria bat, alde batetik emakumeen lotura homosozial eta homosexualen arteko erlazio gutxi-asko jarraituaren, eta bestetik gizonen lotura homosozial eta homosexualen arteko erlazio errotik etenaren artean. Horren adibide berri bat Estatu Batuetan da nola Boy Scoutsek –gizonezko erakunde homosozial gorena- Epaitegi Gorenera jo duen, gizonezko scout eta scout-buru gayak ez onartzea beren egitekoan funtsezkoa dela argudiatuz, Girl Scoutsek lesbianak ez onartzeko politika inoiz jarraitu ez duten arren. Baina grekoen adibideak, gainera, erakusten du *continuum* homosozialen egitura kulturak baldintzatua dela, ez artasun edo emetasun ezaugarri berezkoa. Areago, gizonezko botere / emakumezko botere kontuei argi eta garbi lotuta egon arren, esplikazioak «patriarkatu» hitzak eskaintzen duen baino kategorizazio historiko molde dezente zehatzago bat ere eskatuko luke, botere egitura patriarkalak (Hartmannen zentzuan) Atenaseko zein Estatu Batuetako gizartearen ezaugarria baita. Izan ere, *Between Men* 80ko hamarkadan patriarkatu kontzeptu nagusiaren erabilgarritasuna zalantzan jarri zuten

proiektu teorikoetako bat izan zen. Hala ere, honako hau eskaini ahal izan zuen axioma esplizitu moduan: gizon eta emakumeen homosozialitatearen molde historikoki desberdinak –denboran aldatu badaitezke ere- beti izango direla emakumeen eta gizonen arteko botere desberdintasun iraunkorraren artikulazio eta mekanismoak.

Teoria feministaren ikerketatik sortua izateaz gain, *Between Men* izan zen halaber saio bat sakon aztertzeko feminismoaren eta gay askapen mugimendu nahiko berriaren arteko harreman potentzialak. Gizonezkoen homosexualitateaz (ere) idazten duen emakume eta feminista naizen aldetik, iruditzen zitzaidan bereziki esplizitu izan behar nuela *Between men* oinarri politiko, abiapuntu eta anbizioei zegokienez. Ikerketa anti-homofobo eta aldi berean feminista bat egitea zen nire asmoa hasieratik. Alabaina, ordu arte argitaratutako emakumeen eta gizonezko homosexualitatearen arteko harremanaren azterketa (urri) gehienak azterketa feminista edo gizonezko gay azterketak, bakoitza bere aldetik, baino sofistikazio eta arreta maila apalagokoak ziren. Gizonezko espektrou homosozialaren inguruko formulazio bideragarriak ezean, literatura hark, arestiko salbuespen gutxi batzuk salbuespen, lerrotatu egiten zen bi hipotesi elkar ukatzaileetako baten alde. Lehen hipotesia zen gizon gayek eta emakumeek aliantza «natural» trahistoriko bat partekatzen dutela, baita interes identitate funtsezko bat ere: esate baterako, genero estereotipoekin haustea. Bigarren hipotesia, aitzitik, zen gizonezko homosexualitatea emakumeak gorrotatzearen arketipo bat dela, pertsonifikazio bat, ondorio bat edo agian jatorrizko arrazoia bat.

Ez nuen eta ez dut sinesten hipotesi horietako ezein egiazkoa denik. Batez ere *Between men* lanean *continuum* batez, bat etortze estruktural potentzial batez eta gizonezkoen harreman homosexualen eta emakumeak zapaltzeko baliatzen diren gizonezko harreman patriarkalen arteko esanahi-erlazio (aldakor) batez hitz egiten zelako, oso garrantzitsua zirudien azpimarratzea ez nintzela ari onartzen edo argudiatzen ez botere patriarkala batik bat edo nahitaez homosexuala (homosozialetik berezia) denik, ez gizonezkoen desira homosexualak batik bat edo nahitaez misoginiarekin zerikusia duenik. Argudio horiek, biak ala biak, homofoboak izango lirakeke, eta, nire ustez, okerrak. Hala ere, argudiatzen ari nintzen gizonen aurka zuzendutako homofobia misoginoa dela, eta agian hala izan dela historikoki. («Misoginoa» dela diodanean esan nahi dut zapaltzen duela ez bakarrik gizonezkoen alde femeninoa, ezpada emakumeak ere bai.) Argudioaren parte horretan datza gaizki interpretatua izateko arrisku handiena. Homosexualitatea eta homofobia eraikuntza historikoak direlako beti, aise

gerta daitezkeelako elkarrekin oso erlazionatuta egotea eta kateatze edo ispilu moldeak hartzea, haien borrokaren eszenatokia banako gogo edo instituzioak, edo espazio publikoa izan daitezkeelako, ez da beti erraza (batzuetan ia ezinezkoa) bata bestetik bereiztea. Hala, adibidez, Freudek egindako Dr. Schreberren azterketak garbi erakusten du edozein zentzuzko araren arabera heterosexuala zen gizon batengan homosexualitatea erreprimitzeak psikosi paranoidea eragin zuela; psikoanalisiak egin duen nozio horren erabilera, ordea, ez da joan homofobiaren eta haren indar erogarriaren aurka, homosexualitatearen aurka baizik –*homosexualen aurka*–, homosexualitatearen eta gaixotasun mentalen artean lotura egiten zelako. Antzeko nahasdurak agertu izan dira homosexualitatearen eta faxismoaren arteko harremanen gaineko eztabaidetan. Homosexualitatearen izaera, instituzio batez ari garenez, historikoki eraikia hobeto ulertu ahala, posible izan beharko luke bereizketa horiek testuinguru teoriko zehatzago eta aurreiritziz ez hain zamatutako batean.

Hala, argudiatzen nuen, gure gizartean feminismoaren eta anti-homofobiaren artean sarri gertatzen diren lotura sakon eta hautemangarriak gorabehera, bi indarrok ez dira berdinak. Haien arteko aliantza ez baita automatikoa edo transhistorikoa, oso emankorra izango litzateke analitikoa izatea eta ezer jakintzat ez ematea. Aliantza horren oinarri, inplikazio eta aukeren gainean argia egitea zen *Between Men* lanaren xede nagusietako bat.

Gehien gustatu zitzaidan *Between Men* emaitzen artean izan zen itxuraz zenbait osagai teoriko plazaratu zituela, ekintzaile gizonezko gay eta anti-homofoboek beren identifikazio politikoak pentsamendu feministarekin artikulatzea ahalbidetu zutenak. Formulazio antiseparatista eta ez-dualista haiek Estatu Batuetako unibertsitateetan gay eta lesbiana ikerketen mugimendu indartsu, zirrargarri, teorikoki sofistikatu bat garatzea ahalbidetu zuten aurrerapen teorikoen artean zeuden.

Nire hurrengo proiektua *Epistemology of the Closet* liburuan gauzatu zen, eta haren anbizioa zen askoz gehiago zentratzea gizonezko homo-heterosexual definizioaren inguruan, mendebaldeko kulturaren XX. mende hasieran sortu zen moduan, zeuden ikerketa eta botere auzi espezifiko, sistemikoetan. Proiektu hartan aurreko nire argudio antiseparatistan oinarritu nintzen. Gizonez eta emakumeez haien historiak elkarrengandik bereizi zitezkeen bi talde nabarmen desberdinez bezala pentsatzea logikoa ez zen era berean, ez dago homosexualak heterosexualengandik bereizten dituen muga nabarmen, garbi eta transhistoriko bat. Horren ondorioz, homo-heterosexual definizioen eta debekuen historia osagai garrantzitsua da *edozein* historia

edo kultura alorreko ikerketan. Egia esan, lan horrek agerian uzten duen auzietako bat da nola gertatu den «sexu orientazioa»ren esanahi bakarra, gutxienez mendebaldean XX. mendean, homosexuala heterosexualaren aurkako terminoetan formulatzea. Azken batean, kontuan hartu behar dira pertsona batengandik beste batengana sexualitatea aldatzen den dimentsio oso garrantzitsuak, homo-heteroaz gain:

-Jende batentzat, badirudi «sexuala»ren izaera ia ez dela zabaltzen ekintza genital diskretuen mugetatik harago; beste batzuentzat, erabat inguratzen ditu edo beraiengandik aske dabil.

-Sexualitateak jende baten nortasun buru-sumatuaren parte handi bat osatzen du, eta beste batzuen parte txiki bat.

-Jende batek denbora luzea ematen du sexuaz pentsatzen; beste batzuek, gutxi.

-Jende bati sexu asko praktikatzea gustatzen zaio; beste batzuei, gutxi edo batere ez.

-Jende askok inplikazio mental edo emozional handiena du egiten ez duen, edo are egin *nahi* ez duen sexu ekintzetan.

-Jende batentzat garrantzitsua da sexu harremanak esanahiz, narratibaz eta beren bizitzako beste alderdi batzuekiko loturez beteta dauden testuinguruei lotuta egotea; beste batzuentzat kontrakoa da garrantzitsuena; hala gerta litekeenik otu ez zaien beste batzuk ere badaude.

-Jende batentzat, sexu objektu, ekintza, paper, gune edo eszenatoki jakin baten lehentasuna hain aspaldiko eta iraunkorra da, berezko moduan soilik esperimenta baitaiteke; beste batzuentzat geroago agertzen da, antza, edo ausazkoa edo hautazkoa dirudi.

-Jende batentzat, sexu harreman batek huts egiteko posibilitatea hain desatsegina da, bizitza haiek saihesten zentratzen baitute; beste batzuentzat, ez da hala gertatzen.

-Jende batentzat sexualitateak aurkikuntza gehiagorako eta hiperestimulazio kognitiborako beharrezko espazio bat eskaintzen du. Beste batzuentzat, sexualitateak errutina, ohitze eta eten kognitiborako beharrezko espazio bat eskaintzen du.

-Jende batek sexu eszena espontaneoak ditu gogoko, beste batzuek oso aurreikusgarriak, eta beste batzuek itxuraz espontaneoak ematen dutenak baina guztiz igarri daitezkeenak.

-Jende baten sexu orientazioa oso markatzen dute plazer eta istorio buru-erotikoek, batzuetan beste edozein sexu objekturen edozein alderdik baino gehiago. Beste batzuentzat, aukera buru-erotikoak bigarren mailakoa edo hauskorra ematen du, halakorik baldin badago.

-Jende batek, homo-, hetero- edo bisexuala, bere sexualitatea bizi du genero esanahi eta genero desberdintasunen matrize batean txertatuta bezala. Kategoría bakoitzeko beste batzuek, ez<sup>6</sup>.

Diferentziaren dimentsio hauek guztiak, eta beste askoz gehiago, desagertu egin ziren «sexualitatea» «aukeratutako objektuaren generoa» bihurtu zenean.

90eko hamarkadaren hasieran gertatu zen, *Epistemology of the Closet* argitaratu zen garaian, Estatu Batuetako gay eta lesbiana mugimenduko zenbait jende «queer» terminoa erabiltzen hasi zela, «gay» edo «lesbiana» orde. Egia esan, nik ez nuen nire liburuan «queer» terminoa erabili. Baina nire lanaren joera teoriko ez-dualistetako asko oso lotuta zeuden «queer» mugimenduarenei, eta horregatik liburua indar handiz identifikatu zen queer teoriaren agerraldiarekin.

Zentzu askotan, «queer» eta «gay/lesbiana» hitzak elkarrekin teilakatzen dira, baina haien inplikazio asko oso desberdinak dira. Gay eta lesbiana politika askok, adibidez, onartu egiten dute sexu orientazio terminoa, inolaz ere zalantzan jarri gabe. Baina presio pixka bat eginda sexu orientazioaren gainean, ikusten da haren osagaiak oso heterogeneoak izan daitezkeela. Osagai horien artean daude:

- zurre sexu biologikoa (adibidez, kromosomatikoa), ar edo emea;
- sumatzen duzun genero ebazpena, ar edo emea (zurre sexu biologikoaren gauza berdina dela suposatzen dena);
- zurre nortasun ezaugarri eta itxuran gailentzen dena, maskulinoa edo femeninoa (zurre sexu eta generoari dagokiola suposatzen dena);
- lehenesten duzun bikotekidearen sexu biologikoa;
- lehenesten duzun bikotekideari egotzitako generoa (haren sexu biologikoa dela suposatzen dena);
- lehenesten duzun bikotekidearen maskulinitasun edo femeninitasuna

(zurearen kontrakoa dela suposatzen dena).

-zure burua gay edo hetero gisa hautematea (lehenesten duzun bikotekidea zure sexukoa edo bestekoa izateari dagokiola suposatzen dena);

-lehenesten duzun bikotekideak bere burua gay edo hetero gisa hautematea (zurearen berdina suposatzen dena);

-zure ugaltze aukera (positiboa suposatzen dena hetero bazara, negatiboa gay bazara);

-lehenesten d(it)uzun sexu ekintza(k) (suposatzen da sartzaila dela gizonezko edo maskulinoa bazara, hartzaila emakumea edo femeninoa bazara);

-zure sexu organo erotizatuenak (suposatzen da zure sexu biologikoaren ugaltze gaitasunari dagokiola, baita zure paper sartzaille/hartzailleari);

-zure sexu fantasiak (zure sexu praktikekin ados daudela suposatzen direnak, baina haiek baino biziagoak direnak);

-zure lotura emozionalen gune nagusia (lehenesten duzun sexu bikotekidearengan dagoela suposatzen dena);

-nola gozitzen duzun boterea zure sexu harremanetan (suposatzen da botere maila apala dela emakumea edo femeninoa zarenear, garaia gizona edo maskulinoa zarenear);

-zure generoaz eta sexuaz irakatsi dizun jendea (genero eta sexu berekoa dela suposatzen dena);

-kultural eta politikoki identifikatzen zaren komunitatea (zure identitateari dagokiola suposatzen dena);

Eta... askoz, askoz gehiago<sup>7</sup>.

Politika gay/lesbianoek jakintzat ematen dute dimentsio horiek guztiak elkarrekin lerrokatuko direla, osotasun homogeen eta uniboko bar eratzeko.

Eta hala ez balitz?

Hori da «queer» hitzak adierazi dezakeen gauzetako bat: aukeren, etenen, teilakatzeen, disonantzien eta oihartzunen, akatsen eta gehiegizko esanahien begi zabaleko sarea, edozeinen generoaren edo edozeinen sexualitatearen osagarriak ez direnean (edo ezin izan daitezkeenean) esanahi monolitikoez eginak. Abentura esperimantal linguistikoak, epistemologikoak, irudikapenezkoak eta politikoak dira, gutako askori gertatzen zaizkigunak batzuetan geure burua era askotan deskribatu nahi dugunean: beste aukera batzuen artean, emakume lesbiana oldarkorrek, maritxu erradikalak, fantasistak, *fag hags* edo *hag fags*, *drag queens* edo *drag kings*, klonak, larruzaleak, andereak esmokinean, emakume edo gizon feministak, masturbatzaileak, *bulldykes*, divak, opera erreginak, *butch*

pasiboak, mitomanoak, transexualak, izebatxoak, *wannabes*, lesbianekin identifikatzen diren gizonak, gizonekin oheratzen diren lesbianak, edo... halako pertsonak maite, haiengandik ikasi edo haiekin identifika daitekeen jendea<sup>8</sup>.

Bestalde, «queer» hitzak bestelako esanahia izan dezake: jende askok erabiltzen du adierazteko, *ia* soilik, sexu bereko sexualitatea, lesbiana edo gaya, lerro definitzaileen elkargurutzatze anitzaren inguruan antolatuta egon edo ez egon. Eta, sexu berekoen sexu adierazpen *guztien* aurkako debekuen indar historikoa eta egun duena kontuan hartuta, norbait esanahi horiek ukatzea edo haiek terminoaren zentro definitzailetik lekualdatzea queertasunaren posibilitatea bera desagertzea izango litzateke.

Aldi berean, «queer» unibertsoaren inguruan egiten ari den lan garrantzitsuenaren parte handi bat zabalitzen ari da termino hori generora eta sexualitatera inolaz ere ezin murriztu daitezkeen dimentsiotara: arraza, etnikotasuna eta nazionaltasun poskoloniala diskurtso horiek eta identitatea eratzen eta hausten duten beste batzuekin gurutzatzen diren moduak, esate baterako. Beren buru-definizio sexualean «queer» tasuna agertzen duten arraza askotako intelektual eta artistak hitz horren eragina erabiltzen ari dira, era bidezkoago batez aztertzeke hizkuntza, larruazal kolorea, migrazioak, estatua eta kultura gurutzatzen diren konplexutasun hori.

Niretzat «queer» hitza esanahien eta instituzioen arteko ezin elkar ulertzeke moduak baloratzen dituen politika bati dagokio, era guztietako mugak gaindituz haiek sendotu beharrean. Eta abagune emankorrenak izango ez balira *denak gauza bera esan nahi duenekoak*? Gay/lesbiana politikek, adibidez, energia mordo bat inbertitzen dute gay familien kontzeptuarentzat lege babesak sortu nahian zenbait auziren bidez, hala nola gay ezkontza, intseminazio artifiziala eta gay adopzioa. Baina queer azterketa batek familia bera ikusten du ondoko funtzio oso anitzen elkartzeko egongaitz eta seguru asko osasungaitza, kasurik onenean, den instituzio baten modura:

- abizen bat
- sexu diada bat
- estatuak araututako ezkontzan oinarritutako legezko unitatea
- odol loturetan oinarritutako harreman zirkuitu bat
- laguntza eta babes sistema bat
- eraikin bat («etxea»)
- «pribatua»ren eta «publikoa»ren arteko eszenatoki bat

- irabazien eta zergen unitate ekonomikoa
- kontsumo ekonomikoaren gune nagusia
- kultur kontsumoaren gune nagusia
- haurrak sortu, haiek zaindu eta kultura bat emateko mekanismoa
- ondasun materialak belaunaldiz belaunaldi pilatzeko mekanismoa
- eguneroko errutina bat
- unitate bat komunitate erlijioso batean
- heziketa patriotikorako gune bat<sup>9</sup>

Eta abar. Nire bizitzari begiraturaz, ikusten dut baloratu eta bilatu egin ditudala –beharbada jende gehienak bezala- familia identitatearen osagai askotariko horiek maila desberdinetan (adibidez, zentzurik ez ikustea ugaltzeari, lagunarte premia handia izatea). Baina nire bizitzan, beste hainbat queer bizitzatan bezala, gauza bat ez da aldatu: dimentsio horietako asko zuzenean elkarrekin lerroka daitezzen ez uzteko interes bat. Ikusten dut intuizio nagusi bat izan dudala, hots, estrategia emankorrena (intelektualki, emozioen aldetik) izan litekeela, ahal den guztietan, haiek –odol loturak, legezkoak, elkarbizitzakoak, pribatutasunarenak, lagunartearenak eta babesarenak- *desartikulatzea*, *deslotzea* «familia» izeneko sistema batean batera aurkitu beharretik.

Estatu Batuetako sexualitate alorreko politiken egungo panoramari begiraturaz, badirudi queer teoriaren pertzepzio berriak 90eko hamarkadan baino askoz eragin gutxiago izan duela; izan ere, garai hartan gay/lesbiana mugimendu konbentzionalaren normalkuntzaren aldeko politikak nagusitu ziren. Helburu politiko nabarmenenak ereduie moldatzera deitzen dutenak dira: sexu bereko ezkontza eta familien zilegiztatzearekin batera, gay eta lesbiana jendea armadan, Boy Scoutsen, hauteskunde politikan eta erlijio konbentzionaletan sartzea ere badakar.

Queer politikak antiseparatistak eta antiasimilazionistak direla esatea zuzena dirudi: antiseparatistak, ez dugulako jakintzat ematen mundua garbi eta naturalki homosexual eta heterosexualen artean banatuta dagoenik; eta antiasimilazionistak, ez dugulako normaltasunaren pribilegio eta premisak partekatzeko inolako gogorik. Gay/lesbiana politika konbentzionala, aldiz, aldi berean separatista eta asimilazionista da, paradoxikoki. Separatista da identitatearen zentzuan, baina aldi berean haren helburu guztiek daramate gay jendea kultura oso kontserbadore bateko erakundeetan etxekotzea, era akritiko batean.

Aldi berean, halako klixe bat zabaldu da: queer teoria batez ere unibertsitatera

mugatzen dela, pentsaera espekulatiboa ez praktikoa, utopikoa den aldetik; ez akademikoa ez teorikoa den mugimendu konbentzionalaz, berriz, pentsatzen da politika egiteko modu errealista bakarra dela. Horrek bere logika izan lezake, baina bakarrik politika hauteskunde eta legeria terminoetan soilik definitzen bada, edo asimilazio instituzionalaren terminoetan. Bai, gai/lesbiana mugimendua konbentzional kontserbadorea zenbait lorpen izan ditu, eta ez dut jarduera anti-homofobo batean edozein lorpenek duen garrantzia apaldu nahi. Urriak izaten dira halako lorpenak.

Hala ere, Estatu Batuetan politika kontzeptua hauteskunde politikara murrizten denean prezio handia ordaindu behar izaten da. Prezio larriena da bi hamarkadako aktibismoaren ostean gay politika konbentzionala guztiz ukatzen hasi dela hies krisialdi bat dagoela. Sinetsi edo ez, baina hiesa desagertu egin da auzi publiko gisa, baita gay auzi gisa ere, Estatu Batuetan barrena. Queer ekintzaile gutxi batzuen salbuespenez, ematen du gizarte osoa sinetsita dagoela hiesa sendatzen ari direla –ez dira ari-, eta hiesdunen kopuruek behera egin dutela, eta ez dute behera egin. Estatubatuarrak, tartean gay gizon asko eta asko, oraindik hiltzen ari dira hiesagatik oso gaztetan; baina oraingoan jendearen isiltasunaren erdian ari da gertatzen hori. Medioek, bai gayak bai heteroak, edo ez diote hiesari jaramonik egiten, edo gaur egun Afrikan bakarrik edo hirietako drogadikto ez zurien azpiklase baliogabeei gertatzen zaien zerbait balitz bezala idazten dute hartaz. Estatu Batuetako gay komunitatean hiesaren inguruko diskurtso bat dagoenean, oraindik seropositibo bihurtzen ari diren edozein gay gazteri errua botatzeko izaten da.

Niretzat garbi dago hies auzian engaiatuta jarraitzearen hutsa oso lotuta dagoela gai/lesbiana sektore kontserbadoreak Estatu Batuetan garatzen ari diren queer teoria arbuiatzeari. Azken batean, queer azterketa batek bakarrik, ez hertsiki gay azterketa batek, lagundu diezaguke identitate muga simpleak errespetatzen ez dituen gaixotasun hori borrokatzen. Epidemiaren une honetan, Estatu Batuetan, auzi funtsezkoenak homofobiatik askoz haratago doaz; ulertu egin behar da homofobia eta gay identitateak nola gurutzatzen diren historian arraza eta txirotasun auziekin, ideologia konplexu eta fobikoekin drogei dagokienez, eredu epidemiologikoekin, sexualitate, arrisku eta heriotzari lotutako esanahi kultural sakonekin, espetxe sistema gero eta handiagorekin, garapen eta merkaturatze medikoen ekonomia globalarekin, eta etekin ekonomikoetan oinarritutako Estatu Batuetako arreta mediko sistema oso azkar aldarazten ari diren indar alorrekin.

Gaurkoan auzi hau azpimarratuz amaitu nahi izatearen arrazoia da, jakina,

Asiako herrialde askotan ikusgai egiten ari den hies epidemia, nahiko berria, baina jada tamaina beldurgarria hartzen ari dena. Hil edo bizikoa dirudi une honetan gaixotasun hori eta hura txertatzen den matriz sozial eta psikologikoak ulertzen lagun dezakeen edozein tresna kontzeptual eskura jartzea. Halaber, mundu osoan zabaldu eta jarraitzen duen epidemiak gupidarik gabe erakusten du zein ahulak diren soilik Estatu Batuetan zentratzen diren teoria mugatuak. Nire desira biziena da japoniarrek eta beste asiarrak jakintza gehiago eta eragingarriagoa sortzea eta Mendebaldekoekin partekatu nahi izatea.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Eve Kosofsky Sedgwick Tokioko Ochanomizu Unibertsitatean izan zen, Kazuko Takemura irakasleak gonbidatua, eta hitzaldi hau eman zuen 2000ko urriaren 7an. Hitzaldiaren transkribapen bat agertu zen Ochanomizu Unibertsitateko *Journal of Gender Studies* 4an (2001): 1.-11. o. Bertsio honetan berrezarri egin ditut jatorrizko testuan zeuden EKSk aurreko bere argitalpenetan oinarritutako zenbait zati, eta lehenago argitaratutako bertsiotan ez zeuden oharrak eskaintzen ditut. (Jonathan Goldberg, Eve Kosofsky Sedgwick *The Weather in Proust* lan postumoaren editorea, Duke University Press. Durham, 2012.) Ikus Eve Kosofsky Sedgwick, *Between Men: English Literature and Male Homosocial Desire* (New York: Columbia University Press, 1985). Hurrengo paragrafoak sarrerari dagozkio, 1.-5. eta 19.-20. o.

<sup>2</sup> Heidi Hartmann, "The Unhappy Marriage of Marxism and Feminism: Towards a More Progressive Union", in *Women and Revolution: A Discussion of the Unhappy Marriage of Marxism and Feminism*, ed. Lydia Sargent (Boston: South End, 1981), 14. o.

<sup>3</sup> Ikus Adrienne Rich, "Compulsory Heterosexuality and Lesbian Existence", in *Women: Sex and Sexuality*, Catherine R. Stimpson and Ethel Spector Person (Chicago: University of Chicago Press, 1980), 62.-91. o.

<sup>4</sup> Gayle Rubin, "The Traffic in Women: Notes Toward a Political Economy of Sex", in *Toward an Anthropology of Women*, ed. Rayna Rapp (New York: Monthly Review Press, 1975), 180. o.

<sup>5</sup> Ikus Louis Crompton, "Gay Genocide: From Leviticus to Hitler", in *The Gay Academic*, ed. Louie Crew (Palm Springs, Calif.: ETC, 1978), 67.-91. o.

<sup>6</sup> Ikus Eve Kosofsky Sedgwick, *Epistemology of the Closet* (Berkeley: University of California Press, 1990). 25.-26. o.


<sup>7</sup> Ikus Eve Kosofsky Sedgwick, "Queer and Now", in *Tendencies* (Duke University Press, Durham, 1993). 7. orritik bildua.

<sup>8</sup> Paragrafo hau "Queer and Now"tik aterata dago, 8. o. Jarraian datozen paragrafoak 9, orritik daude aterata.

<sup>9</sup> Sedgwick, "Queer and Now", 6. o. Hurrengo paragrafoa ere orri horretatik dago aterata.

STATES  
OF  
INJURY

*POWER AND FREEDOM IN LATE MODERNITY*



WENDY BROWN

## PORNOGRAFIAREN ISPILUA

Wendy Brown

Gehiegizko askatasunak esklabotza gehiegia besterik ez bide dakar, bai gizabanakoarentzat bai hiriarentzat. Bada orduan tirania ziur aski demokrazia ez beste erregimenetik dator, nire ustez: esklabotza handiena, basatiena sortzen da muturreko askatasunetik.

Sokrates, *Platoen errepublika*

Une oro norberaren generoaren kontzientzia grinatsuz blaitutako bizimodu bat eramatea, benetako sexu bat izatea desiratzea... Horiek ezinezko gauzak dira, eta ez dute zerikusirik feminismoaren xedeekin.

Denise Riley, *Am I That Name?*

Catharine MacKinnon-en genero-teoria sozialaren indar *erretorikoa* atzemateko ahalegina helburu batek behartuta dator, emakume beti eta soilik sexualki bortxagarrien haren deskribapenen, haren politika pornografikoaren edo Lehen Zuzenketaren inguruko haren eztabaiden kritikatik harago doan helburuak behartuta. MacKinnonen lanak babes politiko berebizikoa duen heinean, saiakera honek haren proiektu teorikoan indar horren osakeraz eta osaketaz zerbait ikastea bilatzen du. MacKinnonen analisi politiko erradikal konplexuak eta haren ahotsak nola eta zergatik lortu dute halako babesa? Eta zer aukera dute beste feminismo batzuek halako indarrari aurre egiteko genero menderatze eta genero eraikitzearen inguruko beren irudikapenean polibalenteagoak, generoaren arraza eta sexu osagaiekiko arretatsuagoak, emakumeen sexu esperientziaren aniztasun aberatsarekin bateragarriagoak, sexualitatea eta sexu boterearen irudikapenetan konplexuagoak eta beren ikuspegi politikoetan bitxiago eta demokratikoagoak diren analisisen bitartez? Bestela esanda, MacKinnon marxismoaz, generoaz, sexualitateaz, botereaz, estatuaz edo askatasunaren eta berdintasunaren arteko erlazioaz «oker» egon badaiteke ere, gai horiek ez dira hark sortzen duen «egia»ren ordena indartsua bezain garrantzitsuak. MacKinnonek nolatan eraman ahal izan zuen aurrera bere feminismo ekintzailea noiz eta 80ko hamarkadan, alegia, zentrotik ezkerrera zeuden militantzia guztiekiko hain uzkurra izan zen hamarkadan?

Dela ordenantza antipornografikoak bideratzen Midwest aldeko hirietan eta berriki Kanadan, dela MacNeil/Lehrer News Hour albiste saioan sexu jazarpenaren inguruan analisi bat artikulatzen, Catharine MacKinnon onartu egin dute, eta benaz hartu, instituzio judizial eta mediatiko konbentzionaletan dihardutenek, bai unibertsitate munduko maila gorenek, eta hori fenomeno oso ezohikoa da edozein kasutan, eta benetan bitxia liberala ez den feminista bat izateko. 1991ko udazkenean *New York Times* aldizkariko azalean agertu zen, eta udazken hartan bertan Richard Rorty filosofoak gure garaiko profeta berria esan zion. NBCK «asteko pertsonaia» izendatu zuen Hill-Thomas epaiketa garaian, eta handik gutxira Gauss Hitzaldi famatuak eman zituen Princeton Unibertsitatean, baina askotan agertu da beste agertoki mediatiko komertzialetan pornografiatik eta sexu jazarpenetik hizkuntza iraingarria doazen hainbat gaiz eztabaidatzen.

MacKinnon ikusgarritasun mediatiko handiko guneetan agertu arren, gauza ezohikoa, badu jarraitzaile ugari ere feminista erradikalen artean. Mugimendu antipornografiko feministaren zalantzarabako iparralde teorikoa, pertsonaia garrantzitsua da bizkor garatzen ari den jurisprudentzia feministaren arloan, eta haren gogatzeko ahalmenak harrera ona izan du halaber unibertsitate ikasleengan: gizon-emakume gazteak, sexu eta politika orientazio zein arraza eta klase talde denetarikoa bultzatu, asaldatu eta konbentzitu egiten ditu haren lanak.

MacKinnon ikusi edo entzun duen edonork badaki oso azkarra dela, ongi hitz egiten duela, karismatikoa dela eta maisu bat dela obsesio justizia zalea arrazionaltasun hotzarekin, enpirismo errepikatzailearekin eta angustia femenino erregutzailearekin nahasturatutako oratoria estiloan, eta horiek guztiak aipatu beharrezkoak dira estatubatuar politikan, zuzenbide ikasgeletan eta komunitate feminista ekintzailean duen indarraren eta eraginaren berri eman nahi duen analisi batean. Hala ere, eta osagai horien garrantzia eta haren argudioetako batzuen distira eta trebezia apaldu gabe, bestelako galdera sorta bat egin nahi dut MacKinnonen eragin politikoen inguruan; haren prosaren egitura logiko eta narratiboei, haren literaturako estrategia erretoriko eta egungo oihartzun politikoei dagozkien galderak dira.

Neurri batean, MacKinnonen indar analitikoa hautemateak berarekin dakar MacKinnonen lanaren balizko erradikalismoa gezurtatzea. Berarekin dakar aztertzea Mackinnonen genero formulazioak, eraikuntza sozialarekiko maite-jolasak eta bestelakotasun argudioen ordez desberdintasun argudioak erabiltzeko kezka gorabehera, nolako antza duen politikari

kontserbadore ortodoxoek kontu sexualen egoeraz botatako argudio unibertsaltzaile, kultura-zeharreko eta transhistorikoekin. Baina haren argudioen nondik norakoak aztertzea ez da bukatzen jantzi erradikalen azpian dagoen gorputz kontserbadorea agerian uztearekin. Izan ere, MacKinnonek marxismoari eta zapalkuntzaren analisi monologiko eta estrukturaleri dien hondar-atxekimendu konplexuak ere galdera sorta bat sortzen du egitura logiko eta narratibo mota batzuen indar erretorikoaren inguruan. MacKinnonen lanaren azterketa batek bidea besterik ematen ez duen arazoa honela planteatu liteke: emakumea, sexualitatea eta legeaz diharduen diskurtso politiko feminista post-fundazional erradikal batek -behar dituen logika partzial eta behin-behineko egiekin, jakintza kokatuekin, subjektu jariakorrek eta subiranotasun deszentralizatuarekin- boterea exijitzeko borroka al daiteke, edo botere hegemonikoa zalantzan jartzeko, MacKinnonen diskurtsoak egiten duen heinean? Edo azterketa feminista post-fundazionalaren konpromisoek halako marginalizazio politiko batera kondenatzen al du, maiseatzaile estatus iraunkorrera, boterearen alde baino gehiago «egia»ren alde dagoela dioen filosofoaren buru-kontsolamendura? Modernidade berantiarreko bizitza politikoaren esparruan, eta, batez ere, lege esparruan subertsio, lekualdatze, ugaritze eta esanahi-berritze estrategia politiko-teorikoak konparatu edo lehiatu al daitezke MacKinnonek emakumeen egoeraz eta emakumeentzako ona denaz egiten duen aldarrikapen sistematiko eta ontologikoekin? Eta galdera horri ematen mentura gintezkeen edozein erantzun ba al dagokio aldarrikapen horiek txertatzen diren egungo alor diskurtsiboaren aniztasun ozenari? Izan ere, alor hori modernidadearen hizkuntza politikoak formalki menderatuta agertzen da. Edo mentura al genitzake zenbait postulatu egitura analitiko sistematikoen eta silogismo gisako molde logikoen indarrez, eta totalizatu, murriztu, sistematizatu eta ixten duten (zientifismo alorreko) analisi moldeek hori lortzeko hain zuzen halako indarkeria diskurtsibo bat erabiltzeko duen moduaz? Eta ezingo al litzateke pentsatu indarkeria handiago horrexek lortzen duela eraso «postmodernoak» aintzat hartuak ez izatea edo protagonismo gehiago izatea? Galdera hauek hemen beren osotasunean erantzutekoak ez diren arren, osatu eta hats ematen diote MacKinnonen lanaren egitura erretorikoaren ikerketa honi.

. . .

Sexualitatea feminismoari dagokio lana marxismoari dagokion neurri berean. Catharine MacKinnon, *Toward a Feminist Theory of the State*

MacKinnonen genero-teoria soziala marxismoaren moldapen bat da, eta, paradoxikoa badirudi ere, hura imitatu nahi du, baita haren lekua hartu ere<sup>1</sup>. Paralelismo bat ezartzean produkzio alorraren logika esplikatzaile sistemiko eta totalizatzailearen eta lanaren materialtasunaren artean klase-gizartea esplikatu eta kritikatzeko, MacKinnonek sexuaren eta generoaren analisi analogiko bat garatzen du. Baina MacKinnonek, aldi berean klasearen lehentasunean eta ekonomian jarritako enfasi marxista gizon-emakumeen ezaugarri eraikitzaile eta posizio-emaile gisa lekuz aldatuta, MacKinnonek teoria sozial partzialtzat jotzen du marxismoa, ez teoria sozial orokortzat, eta feminismoaren posizioari egozten dio «marxismoa barrukoz kanpora eta goitik behera itzuli» ahal izatea<sup>2</sup>. Marxismoaren sistematizazioa berdindu eta haren lekua hartzeko haren desira ongi azaltzen du honako baieztapen honek:

Ez da kontsideratu izan feminismoak metodo bat duenik, edo are argudio zentral bat daukanik. Hauteman izan dute [nork?] ez analisi sistematiko gisa, baizik eta kexu eta auzi bilduma aske gisa, denak batera sexu femeninoaren zorigailzak deskribatzen dituztenak, haiek esplikatu baino gehiago. Erronka da frogatzea feminismoa sistematikoki hurbiltzen dela sexu desberdintasunaren esplikazio zentral batera, bere gaiarena dena, baina bitzta sozial guztiari, klasea barne, aplikatu dakiokena<sup>3</sup>.

MacKinnonen genero-teoria soziala funtsezko identifikazio kontzeptual batean eta funtsezko baliokidetasun kontzeptual batean oinarritzen da: sexualitatearen eta generoaren arteko identitate baten baitan dago –ez bakarrik erlazio baten baitan-, eta marxismoaren kapital-lan erlazioaren eta feminismoaren gizon-emakume harremanaren arteko baliokidetasun baten baitan, ez analogia simple baten baitan. Marxentzat kapital-lan erlazioak adierazten duen produkzio antolaketa *da* klasearen funtsa kapitalismoan; MacKinnonentzat, gizon-emakume harremanean adierazitako sexualitatearen antolaketa *da* generoaren materiala gizonen mendekotasunean. Sexualitatea generoaren mamia da lana klasearen mamia *delako*, eta klasea generoa bezalakoa delako: biak dira zapalkuntza eta mendekotasunezko harremanak prozesu sozial funtsezkoetan oinarrituak: sexu jarduera eta produkzioa, hurrenez hurren. Hartara, desiraren antolakuntza generoari dagokio lanaren antolakuntza klaseari dagokion era berean: guztiz berezkoa da, baina erregimena zilegiztatzen duen molde ideologikoki bertakotuz mozorrotua. Sexualitateak giza desiraren antolakuntza adierazten badu eta lanak giza indar produktiboa adierazten badu, lehenak generoa sortzen du, eta bigarrenak, klasea; bien artean historia sortzen dute, mundu soziala, ideologia, estatua eta gizabanakoa. «Batzen lanaren jabetze antolatuak beste batzuen onerako klase bat definitzen duen

era berean, langile klasea, batzuen sexualitatearen desjabetze antolatua beste batzuen onerako sexua definitzen du, emakumea»<sup>4</sup>.

MacKinnonen iritziz, hark desira esaten dion prozesu sozialaren erotikotasunak begizta bat ixten du genero erakuntzan, Marxek klase eratzearen formulazioetan ixten ez dena. Generoa zapaltze eta menderatze erlazio bat baldin bada gizonak menderatutako gizarteetan, eta generoa sexualitateak osatzen badu, dio MacKinnonek, halako gizarteetan sexualitatea zapalkuntzaren eta mendekotasunaren erotizatzea da<sup>5</sup>. Hala, emakumeen sexualitatea ez dute bakarrik gizonak desjabetzen (kapitala lanaz jabetzen den moduan); desira heterosexuala bera ere, erotizatzen duen heinean, genero mendekotasuna eta menderatzea erotizatuz, generodun posizioak diren aldetik. Gizonak menderatutako gizarteetan sexualitatea gizonaren zapalkuntzaren erotizatzea da, eta erotizatze horrek generoa *sortzen du* zapalkuntza den aldetik, genero egozte horrek *erreproduzitu* egiten du bere zapalkuntzaren erotizatzea. Hala, «feminismoa teoria bat da, azaltzen duena zapalkuntzaren eta mendekotasunaren erotizazioak generoa nola sortzen duen, nola sortzen dituen emakumea eta gizona ezagutzen dugun forman»<sup>6</sup>. MacKinnontzat, sexua generoari badagokio lana klaseari bezala -are gehiago sexuaren erotikotasunak genero desberdintasuna erotizatzen duelako eta ez duelako inposatzen indarrez edo ideologiaz-, orduan auzi feminista bakoitza, emakumeek jasandako bidegabekeria eta laido bakoitza sexualitateari dagokio; feminidatearen eraikuntza da emakume-zaurgarritasunaren sorkuntza eta bortxaketa emakumetasun gisa; emakumeen mendetasun ekonomikoaren eraikuntza da gizonentzako sexu eskuragarritasuna; intzestua, sexu jazarpena, bortxaketa eta prostituzioa sexu mendekotasunezko moldeak dira denak; emakumeek duten diskurtso larderiatsu falta emakumeen egoera beti jada sexualki bortxatuari zor zaio<sup>7</sup>.

Hala ere, MacKinnon pornografian zentratzen da, egungo kulturaren emakumeen menderatzearen bitarteko indartsuen eta atzemangarriena den aldetik. Ez da «fantasia kaltegabe bat, ezta bestela naturala eta osasungarria den sexu egoera baten irudikapen oker, ustel eta nahasia»; pornografiak «instituzionalizatu egiten du gizonen gailentasunaren sexualitatea, zapalkuntzaren eta mendekotasunaren erotizazioa gizon eta emakume eraikuntza sozialarekin elkartuz»<sup>8</sup>. MacKinnontzat, pornografia da genero harremanen destilatua gizonak menderatutako erregimenetan, ez bakarrik gizonen zapalkuntzaren adierazpena, baizik eta haren instituzio zilegiztatzailea:

Pornografia, ikuspegi feministan, behartutako sexu molde bat da, sexu politikaren praktika bat, genero desberdintasunaren instituzio bat. Perspektiba horretan, pornografia ez da fantasia kaltegabe bat, ezta bestela naturala eta osasungarria den sexu egoera baten irudikapen oker, ustel eta nahasia ere. Parte hartzen duen bortxaketa eta prostituzioarekin batera, pornografiak instituzionalizatu egiten du gizonen gailentasunaren sexualitatea, zapalkuntzaren eta menderatzearen erotizazioa elkartuz gizon eta emakume eraikuntza sozialarekin. Generoa sexuala da. Pornografia sexualitate horren esanahia da. Gizonen emakumeak nola ikusi, halaxe tratatzen dituzte. Pornografiak nolakotasun hori osatzen du. Gizonen emakumeen gainean duten botereak esan nahi du gizonen emakumeak nola ikusten dituzten definitzen dutela nor izan daitekeen emakume. Horrelakoa da pornografia<sup>9</sup>.

MackKinnonek esplizituki esaten ez badu ere, badirudi pornografia gizonaren zapalkuntzari dagokiola Marxengan liberalismoa kapitalismoari dagokion moduan: instituzionaliki segurtasuna ematen duen zerbait da, diskurtso aldetik normalizatzailea, ideologikoki iluna eta historikoki zapaltzailearen botere gauzatzailea.

...

Galdera anitz egin daitezke generoa eta sexualitatea lanaren bidez klasearen sorrera esplikatzeko erabilitako kategoria eta dinamiketan kokatzeko MackKinnonen ahaleginaz. Has gintezke, gure buruari galdetzen haren porrotaz sexualitate eta genero-teoria espezifiko bat garatzeko orduan, bere proiektuan lanaren eta klase sozialen teoria bat egokitu beharrean. Sexua generoari badagokio lana klaseari dagokion bezala, orduan kritika feminista eta emantzipazio teoria baterako ziur aski sexualitatearen teoria bat beharko litzateke, eta ez lanaren teoria bat sexuari aplikatua. Gainera, kontuan hartuta Marxen klase teoriarik soberakina sortzeko –eta, beraz, gainbalioa sortzeko eta helburu iraultzaileari laguntzeko, lana kolektibizatzea eta halako soberakinek sortutako onurak era kolektiboan partekatzea- gaitasunaren garrantzia, eta kontuan hartuta osagai horren absentsia generoaren indar sortzaile(et)an edo desira eraikitzen dutenetan, gure buruari galdetu geniezaioke halaber klase teoria marxista bat nola moldatzen zaion sexualitatean oinarritutako genero-teoria bati. Segurua balitz ere sexualitatea izeneko harreman sozial batek generoa sortzen duela, egokia izango al litzateke horregatik klase kontzeptua atzemateko diseinatutako aparatu teoriko baterako? Eta sexualitatea ezin bada murriztu harreman sozial batera eta diskurtso eta ekonomien eskema konplexu bat baldin bada, zeinean haiek ez bakarrik eratzen duten generoaren semiotika, baizik eta arraza eta klasea ere bai? Eta generoa oro har, eta

emakumeen mendekotasuna zehazki, ez balegokio harreman sozial bakar bati, baizik eta sortzeko eta erreproduzitzeko gune eta iturri ugari izango balitu, adibidez, amatasuna, arraza, egia filosofikoa, herritartasuna, klasea, heterosexualitatea, gerra, zientzia eta abar antolatzen duten diskurtsoetan? Genero mendekotasuna ez al da klase bereizketak bezain erreala, edo sexu bortxaketa ez al da lan esplotazioa bezain laidogarria sexualitateak sistematizatu izateko duen ezgaitasunagatik eta generoa ez dagokiolako mekanismo bakar bati? Edo horren ordeztu generoak gutxiago ahalbidetzen al du molde teoriko monologiko bat eta praktika politiko bateratu bat? Ildo horretan, feminismoari sistematikotasun bat, logika, mekanismo eta printzipio esplikatzaile bakarria eskaintzeko MacKinnonen kezka ez al du adierazten kezka oso moderno bat (bai falogozentrikoa ere) erreala zer den eta garrantzitsua zer den inguruan?

MacKinnonen marxismoak doktrinala baino gehiago metodologikoa izan nahi duen neurrian, irudipena ematen du kirurgikoki birkonfiguratuta dagoela bere gaiari moldatzeko, eta hartara saihesteko MacKinnonen kezka nagusietako bat: alegia, marxismoaren eta feminismoaren arteko harremanakez inbestean apalduko duela feminismoa<sup>10</sup>. Alabaina, MacKinnonek marxismoa metodo eta mundu-ikuskerara gisa hartzeak arazoak sor ditzake, feminismoarentzat arriskutsuagoak kezka feministak hiztegi marxista berreraiki gabe bati egokitzeko ahalegin mugatuagoek sortu zituztenak baino, ahalegin haiek agerian utzi baitute emakumeen lanaren izaerak (arreta ematea eta zerbitzatzzea), bidegabekeria gerta daitekeen guneak (gorputza, gune pribatuak, egoera subjektiboak), kontzientzia esparruak (beti produkzio moldearekiko harremanetik haratago doazenak) eta kokapen sozialak (bakartuak, pribatuak) ezgaitu egiten dituela «gainbalioaren sorrera» eta «klase borrokaren historia» bezalako kontzeptuak intelektualki ulertzeko. MacKinnonen hitzetan, teoria marxistaren garrantzi eta balio iraunkorra «gizartearen mugimendu-lege dinamikoen» en analisi kritikotik» datorkio, «beren osotasun, materialtasun eta historikotasunean, determinazioa eta bitartekaritza konbinatuek, pentsamendua egoerarekin konbinatua, interesean konplexuki oinarritua»<sup>11</sup>. Bestela esanda, MacKinnonek teoria marxistatik atera nahi du ez haren kategoriak, baizik eta haren mendekotasun-zientziaren destilatu bat. Areago, osotasun sozial atzemangarri bat osatzen duten dinamika sozial antagonisten ikuspegi harrigarriro ez-historiko eta ez-dialektiko bat da harena. Horretan MacKinnonek ez bakarrik bereganatu, ezpada puztu egiten ditu marxismoaren bizitza sozialaren eraikuntza totalizatzaileak –baita, eta bereziki, nola murrizten dituen subjektuak eta subjektibotasuna subjektu *posizioetara*- eta subjektu produkzio historikoki espezifikokoaren haren orokortze ontologikoa (baina horretaz geroago jardungo dut).

Kapitalaren erabateko nagusitasunaren eta gizonen erabateko nagusitasunaren arteko MacKinnonen baliokidetasun kontzeptualak -«askok lan egin eta gutxik irabazten baitute... Batzuek izorratu egiten dute eta beste batzuk izorratu egiten dituzte»<sup>12</sup>- funtsa kentzen dio generoari, boterearen sorkari huts bihurtuta. Aldi berean, baliokidetasun kontzeptual horrek batu eta unibertsaldu egiten du generoa kutsu historikoa kenduz; hura izan zezakeen edozein espezifikotasunez gabetuz klase, adin, sexualitate, arraza edo kulturaren bidez; behin eta berriro identifikatuz, hurrenez hurren, posizio sozial menderatzaile eta menderatuarekin; eta generoa halako posizioen funtzio hutsa bihurtuz, hari plastikotasuna, konplexutasuna eta barne aniztasuna, aldakortasuna edo sorrera esparrua kenduz. Subjektu politiko txundituen ordez gauza bihurtutako subjektuak jarri, estrategia analitiko beren izaera kendu eta des-historizatzaileak eta totalizatzaileak bihurtuz, MacKinnon jokatzen ari da bai esparru marxistaren barruan bai haren kanpoan. Mugapen marxista bat errepikatzen ari da, baina errepikatzean desberdintasun bat sartzen du, ikusiko dugun bezala mugapenaren indarra areagotzen duena.

Hasteko, zer ari da errepikatzen? Baudrillardek eta Arendtek gogorarazten digute Marxek egindako XIX. mendeko ekonomia politikoaren kritika analitiko indartsuak agian ez zuela jarraitu Arkimedesen printzipioa, bere testuinguru historiko zehatzari dagokionez, Marxek irudikatu baino, edo haren jarraitzaileek normalean aitortzen dutena baino. Baudrillardaren analisisian Marx hain blaituta zegoen ekonomia politiko kapitalista sortu zen inguruneaz, non haren sorkari eta ondorio kulturalen berri ematean kutsu historiko bainoago ontologiko batean egin baitzuen, eta hartara gauza bihurtu zuen XIX. mendeko proletarioaren jardura gizakiaren egia eternal bat bezala, eta XIX. mendeko europar industrializazioa historiaren arima bezala. Baudrillardaren irakurketan Europa industrialeko gizarteak elkarren aurkako bi klase handitan banatzeko XIX. mendearen erdialdeko erabakiak bultzatu zuen Marx kontsideratzen historia klase borrokak erabakitzen zuela, eta lana, gizakiak. Honela dio Baudrillardek:

Alde batetik Marx interesatuta egon arren proletariotzaren indarraren etorkizunean, ekoizpen prozesuan objektifikatua lan sozial abstraktu gisa[,] (...) bestetik, ez du inoiz zalantzan jartzen gizakien ekoizpen gaitasuna[,] (...) edozein gizartetan edozein gizakik duen ekoizpen potentzial hori, «bere ingurua gizabanakoarentzat edo gizartearentzat erabilgarriak diren helburu bihurtzeko». (...) Kritika eta historia bitxiki harrituta geratzen dira axioma antropologiko honen aurrean: patu bitxia kontzeptu marxista batentzat. (...) Teoria marxistak, erradikala kapitalaren bere analisi *logikoan*, hala ere adostasun *antropologiko* bati eusten dio mendebaldar arrazionalismoaren

aukerekin, hark behin betiko moldea hartu ondoren XVIII. mendeko pentsamendu burgesean<sup>13</sup>.

«Txundituta», Hanna Arendtek dioen bezala, «mendebaldar gizateriaren produktibitate [aro modernoan] inoiz ikusi gabearen aurrean», Marxek «gizakia» zer den garai hartatik formulatzen du, eta hartara historiagabetu egiten ditu ekonomia politikoaren eta haren osagaien –lana, lan indarra eta produkzio erlazioak- balentzia erlatiboak, nahiz eta produkzio molde espezifikoaren garapena dialektikaren eta historiaren arazo gisa aztertu<sup>14</sup>. «Baina», Baudrillardek gogorarazten digun legez, «produkzio moldeen artean bereizteak eztabaida ezina egiten du produkzioa dela instantzia erabakitzailea. Orokortu egiten du arrazionaltasunaren molde ekonomikoa giza historia osoan giza bilakabidearen molde generiko gisa». Beraz, gizaki sortzailea eta historikoki sortua denaren bere kritika ontologikoa ulertu ezinik, Marxek planteatzen du ekonomia politikoaren aroa kritikatu baino areago islatu egiten duen *homo faber* bat; «produktibitatearen garapen abstraktu eta orokortuak (ekonomia politikoaren molde garatuak) eragiten du *produkzio kontzeptua* bera gizakiaren mugimendua eta generikoa balitz bezala agertzea»<sup>15</sup>. Baudrillardaren arabera, produkzioak, instantzia erabakitzailea den aldetik,

gizakiaren historia osoa simulazio modelo erraldoi batean sartzen du. Saiatzen da nola edo hala kapitalaren ordenaren aurka egiten, horretarako kapitalak landu dituen fantasma ideologiko sotilena erabiliz tresna analitiko modura. Hori biratze «dialektiko» bat al da? Sistema ez al da hemen erreproduktio unibertsalaren dialektika bilatzen ari? Hipotesizat hartzen bada *ez dela inoiz izan, ezta izango ere, ekonomia politiko kapitalistak agindutako produkzio molde bakarra ez beste ezer* –eta kontzeptu hori logikoa da soilik sortu zuen formazio ekonomikoari dagokionez (edo formazio ekonomiko hori aztertzen duen teoriari dagokionez)-, orduan kontzeptu honen orokortze «dialektikoa» ere sistema horren axiomen unibertsaltze *ideologikoa* [ispilua] besterik ez da<sup>16</sup>.

Baudrillardek Marxek «orokortu egiten du arrazionaltasunaren molde ekonomikoa giza historia osoan giza bilakabidearen molde generiko gisa» dioen era berean, sexualitatea generoaren osagai bakarra dela eta heretosexualitatea generoaren gizona menderatzaile duen moldea dela dioen MacKinnonen tesiak ere «orokortu egiten du arrazionaltasunaren moldea [pornografikoa, heterosexuala, sexuala] giza historia osoan [genero] bilakabidearen molde generiko gisa». Produkzio ekonomikoa gizateriaren oinarri ontologikoa dela dioen Marxen «aurkikuntzak» hura gertatu zen garaia islatzen duen bezala, MacKinnonen tesiak islatzen du XX. mende amaierako Estatu Batuetako genero berdin sexualitatea adierazpen hiperbolikoa, eta

agerian uzten du genero eraikuntza eta arautzea zein neurritan higatu eta ezegonkortu duen diskurtso, jarduera eta sexualitatea ez den bereizketa sorta batek. Haien artean egongo liriteke lan erreproduktiboaren pribatizazio eta feminizatzeko orokorra; etxeko lanaren eta produkzio sozializatuaren arteko trukean oinarritutako generoaren arabera lan-bereizkuntza bat; generokode erlijioso, politiko eta zibikoak; eta generoak oso markatutako jarduera esparruak eta arau sozialak; hau da, desiraren antolakuntzaz ez bestez instituzionalizatu, eta, beraz, sendotu diren genero eraikuntzako osagai guztiak. Genero produkzio eta arautze beste alor horien ez egonkortzeak eramaten du ez bakarrik MacKinnon, baita harengandik nahiko bestelakoak suposatzen diren teorizatzaile feministak ere –esate baterako, generoa arau heterosexualekiko antezgarritasun gisa teorizatzen dutenak- generoa interpretatzera *desiraren* antolakuntzak (heterosexuala) ia erabat osatua bezala<sup>17</sup>.

Garbi marratu eta era konplexuan antolatutako sexuaren arabera lan bereizketak genero erregimenak –generoak markatutako gune sozialak, subjektibotasun produkzioak eta menderakuntzazko mekanismoak- eratu ahal izan baditu ere sakontasun handiagoz beste garai eta leketan, desiraren antolakuntza kulturalki normatibo heterosexuala, adierazpen pornografiko komertziala barne, agertzen da geurean sendoago inskribatua<sup>18</sup>. Gainera, Baudrillardaren irakurketan («ekonomia politikoaren sistemak ez du bakarrik gizabanakoa sortzen saldu eta trukatu egiten den lan indar gisa (...) [baita] lan indarraren kontzeptua ere, funtsezko giza potentziala den aldetik») bezala, sexu ordena pornografikoa, MacKinnonen teorian islatzen dena, ez ditu bakarrik emakumeak sortzen sexualitatea diren aldetik, baita sexualitatearen kontzeptua ere, generoaren funtsezko ezaugarria den aldetik. Baudrillardaren hitzetan:

Sistema, beren lan indarra merkatuan aske saltzen duten gizabanakoen fikzioan baino sakonago dago sustraituta gizabanakoen beren lan indarra eta beren «natura eraldatzea giza helburuen arabera»ko ekintzekiko identifikazioan. Labur esanda, gizakia ez du bakarrik kuantitatiboki esplotatzen indar produktibo gisa ekonomia politiko kapitalistaren sistemak; gainera, metafisikoki gaindeterminatzen du produzitzaile gisa ekonomia politikoaren kodeak. Azken kasuan, sistemak arrazionaldu egiten du bere indarra. *Eta horretan marxismoak lagundu egiten dio kapitalaren maltzurkeriari*<sup>19</sup>.

Iradokitzen ari naiz MacKinnonen genero-teoria sexualitatez eta pornografiaren gizonen zapalkuntzaren adierazpen gorena-eraturia den aldetik, historikoki sortzen dute, alde batetik, genero produkzioarako eta genero ondorioetako

beste gune batzuen higadurak, eta bestetik sexualitatearen erabateko ugaltze eta despribatizazio zein hedapenak XX. mendearen amaieran. Marcusek desublimazio errepresiboa esaten zion fenomenoak, Foucaultek sexualitate erregimen espezifiko baten produkzio gisa birsortu zuena, da MacKinnonen teoriak historikoki edo analitikoki dekodetu bainoago «islatu» egiten duen aro pornografikoa esan geniezaiokeena. Eta haren genero-teoria sozialak ere deseraiki baino gehiago islatu egiten ditu gizonen pornografia heterosexualaren *subjektuak* –bai gizonezko kontsumitzailea bai emakumezko modeloa-; eta subjektu horiek agian funtzionatzen dute gehienbat (eta alferrik) sendotzeko edo egonkortzeko sexu/genero mendekotasun bat, bera ere genero-menderatzearen beste osagai batzuek ezegonkortua XX. mendearen amaieran.

Bestela esanda, modernidade berantiarren indar politiko-ekonomiko-kulturalek deszentralizatu egiten badituzte, ez bakarrik generoaren araberako lan eta jarduera bereizketak, baita sexu bitarikotasunezko erregimen bat –heterosexualitatea- ere, orduan MacKinnonen genero-teoriak oharkabean sendotu egiten du generoa gizonen nagusitasunaren krisi une baten sintometatik abiatuta. Hartara, MacKinnonek genero egitura sakon, unibertsal eta transhistoriko gisa formulatzen duena errealitatean adierazpen hiper-pornografiko bat da: areago, gaindeterminatutako genero dualismo eta genero mendekotasunetik (hemen gutxi zehaztua) heterosexualitate nahitaezkoa -eguneroko genero eraikitzen osagaia den aldetik- den horren higadura ezaugarri duen orain eta gero baterako transmutazioaren arduraduna den krisia markatzen du<sup>20</sup>.

Pornografiari genero dimentsioa kentzeko MacKinnonen urratsak, gizon heterosexualen pornografia islatzen duen genero-teoria sozial baten haren eraikitzen ez bakarrik elkartzen du erabat eta soilik determinatutako subjektu generodun bat; aro pornografikoa kodetu ere egiten du egia bezala, genero produkzioaren hiperbole gisa bainoago: ez du interpretatzen urtero 10.000 milioi dolarreko pornoaren industria gizonek menderatutako erregimen heterosexual baten «emergentzia egoera» moduan (Nietzscheke filosofia greko klasikoaren hiper-arrazionaltasunaz mintzatzen zen bezala)<sup>21</sup>. Gainera, pornografia generoak markatutako heterosexualitatearen funtsezko eta zalantzarikako irudikapen gisa interpretatzeko haren urratsak identifikatu egiten ditu hain zuzen ere gizonezko pornografia kontsumitzailea eta emakumezko subjektu pornografikoa ontologikoki gizon eta emakume bezala. Esaten duenean «pornografiak hitzez hitz dioena esan nahi du»<sup>22</sup>, MacKinnonek ez bakarrik ez ditu aintzat hartzen irudikapenaren eta fantasiaren, hermeneutikaren eta interpelazioaren prozesuak; pornografia

genero *gisa* ontologizatzen du. Labur esanda, MacKinnonen genero-teoriak kritikatu nahi duen gizon pornografia konbentzionala islatzen du, eta islatze hori zenbait eratan adierazten da.

Lehenengo eta behin, MacKinnonen genero-teorian, hark aztertzen duen gizonetako porno heterosexualean bezala, gizonaren eta emakumearen subjektu posizioak zer dualista eta absolutu moduan deskribatzen dira etengabe, zalantzarik gabe marratuak, ez metaforikoki edo ñabardurekin, subjektu eta objektu gisa, pertsona eta gauza, menderatzaile eta menderatua; edo, Drucilla Cornellek *Beyond Accomodation* lanean dioen bezala, «izorratzailea eta izorratua»<sup>23</sup>.

Bigarrenez, MacKinnonen genero-teorian, hark aztertzen duen gizonetako porno heterosexualean bezala, gizonaren eta emakumearen subjektu posizioak sexualitateak soilik eta erabat eratzen ditu. Ez da bakarrik generoari beste osagarri batzuk falta zaizkiola, genero eraikuntza ere ez dirudi asko aldatzen denik boterezko beste formazio eta bektore batzuetan –arrazari dagokionez, esaterako-, desberdintasun horiek sexualki adierazten direnean izan ezik. Sexualitatea arraza alorrera eramane daiteke, arraza mendekotasuna sexualizatu egin daiteke, baina emakumeen arteko desberdintasunak desagertu egiten dira sexualitatea mendekotasunaren ardatz unibertsal gisa ulertzen denean. Generoa sexual gisa gaideterminatze metafisiko horretan, MacKinnonek lagundu egiten dio pornografiaren maltzurkeriari. (Gogoratu Baudrillardaren argudioa, alegia, marxismoak lagundu egiten diola kapitalaren maltzurkeriari, ekonomia politikoaren *kodeak* konplize egiten duelako gizakia, produzitzailea den aldetik, metafisikoki gaideterminatzen).

Hirugarrenez, MacKinnonen genero-teorian, hark aztertzen duen gizonetako porno heterosexualean bezala, gizonaren eta emakumearen sexu subjektu posizioak gizon eta emakume *subjektibotasunarekin* identifikatzen dira, eta ondorioa da gizon eta emakume subjektibotasunak totalizatu egiten direla, dikotomizatu eta erabat sexualizatu. Honela dio MacKinnonek:

Emakume bat bere sexualitatea beste norbaitentzat, sozialki gizona dena, existitzen den bat identifikatzen duen eta identifikatua den izaki bat da. Emakumeen sexualitatea esaten zaiona da beste norbait horrengan desira pizteko gaitasuna. Emakumeen sexualitatea horrela ikusteak galdetzerak behartzen zaitu ea «emakumeen» zentzu posesibo horretan halakorik ote dagoen. Emakumeen sexualitatea haren absentsia al da?<sup>24</sup>

Generoa sexualitate baldin bada, gizonentzako pornografia heterosexualean

agertzen den moduan, orduan ez bakarrik emakumeen sexualitatea, baizik eta emakume kontzientzia osoa soilik da gizonek (orain bat eginda subjektu kontsumitzaile gisa) behar dutena. Hala, MacKinnonek ondorioztatzen du: «emakumeak sozialki definituta badaude halako moldez, non emakume sexualitatea ezin baita bizi, edo mintzatu, edo sentitu edo are somatikoki hauteman bere definizio behartutik at, orduan ez dago, berez, emakumerik; dagoena dira gizonen premia proiektatuen hezuramaitze ibiltariak»<sup>25</sup>. Jakina, emakume subjektutasuna orri pornografikoan gardena ez den edozein osagaiz husteak ia ezinezkoa egiten du edozein proiektu emantzipatzaile. MacKinnonek ezin du kontzientziaren inguruko bere galdera erantzun -«emakumeak, “buruan gauza bihurtua”, konplizea gorputzean, nola ikus dezake bere egoera horrela?»<sup>26</sup>-, ezta imajinatu ere emakumeentzat sexu etorkizun feminista bat eraiki daitekeenik.

Laugarrenez, MacKinnonen genero-teorian, hark aztertzen duen gizonezko porno heterosexualean bezala, heterosexualitatea da generoaren iragana, oraina eta etorkizun betierekoa. Generoa sexualitatea baldin bada, sexualitateak beti genero bat badauka, eta emakumeak sexua badira gizonentzat, orduan, adibidez, lesbiana sexualitatea ez da existitzen, edo , edo gizonentzako sexua da, edo heterosexualitatea imitatzen du, eta horiek guztiak, izan ere, lesbiana irudikapenaren tropoak dira gizonen porno konbentzionalean, baita MacKinnonek egiten duen lesbianismoaren analisisan ere: «Beste batentzat izatea emakumeen sexu eraikuntza baldin bada, jada ezin dio ihes egin (...) gizonaren aldi bateko absentzia zehatzak, ezta (...) sexu permitsibitateak, zeinak, testuinguru honetan, emakumeek gizonen rola emulatzea baitirudi»<sup>27</sup>. Eta «lesbianen sexua, besterik gabe emakumeen arteko sexua den aldetik, genero eta sexualitatearen definizio sozialaren arabera, ez doa definizioz nagusitasunaren eta mendetasunaren erotizaziotik eta haien maskulinitasun eta feminitasunetik identifikazio sozialetik harago»<sup>28</sup>.

Azkenik, eta hemen esparru espekulatiboago batean sartzeko gara, MacKinnonen genero-teoria sozialak pornografia islatzen du bere prosaren egitura eta eragin erretorikoan, Baudrillardek marxismoak ekonomia politikoaren *kodea* islatzen duela dioen antzeko moduan. MacKinnonen idatzien eta hitzen egitura erretoriko pornografikoa haren prosaren pilpiratze kualitate jarraikiari legokioke: haren esaldi sinple, subjektu-aditz-objektu gisakoen pulsu erritmikoei; esaldi horietan kontu bat behin eta berriz errepikatzen da, berrosatzen eta entzuleei botatzen; egitura silogistiko gainzamatatu bati, zeinak indartsuagoa, intoxikatzaileagoa, estimulanteagoa, nahasiagoa egiten baitu logika silogista, eta ez hain kontestagarria; haren

aldarrikapenen abstraktuen literaltasunari eta indarrari -«pornografia honelakoa da»-, aldi berean eszenatokia egituratu eta edozeini (edozein gizoni) eszenatokian irudimenez sartzea ahalbidetzen dio; aditz simple aktiboen, adizlagun hiperbolikoen eta esaldi zatiki estrategikoki jarritakoen erabilerari; irudikapenaren eta ekintzaren arteko labaintzeari; gauzak adierazteko era zuzen eta pertsonalizatuari; generoa, sexua eta irudikapena «errealtasuna» gisa behin eta berriro aurkezteari; eta gauzen edo kontzeptuen pertsonifikazioari eta aktibatzeari. Adibidez:

Pornografian, emakumeek desjabetzea eta ankerkeria desiratzen dute. Gizonek, zeinei uzten baitzaie hitzak (eta bestelakoak) jartzen emakumeen ahoetan, emakumeek etsi-etsian lotu, kolpatu, torturatu, umiliarazi eta hil ditzaten nahi duten eszenak sortzen dituzte. Edo besterik gabe hartu eta erabili ditzaten. Hori erotikoa da gizonen ikuspegitik. Menderatzea bera emakumeen sexu desiraren eta desiragarritasunaren edukia da. Emakumeak daude bortxatuak eta norbaiten jabegoa izateko; gizonak, haiek bortxatzeko eta haien jabe izateko, pantailan edo kameran edo testuan, ikuslearen hobe beharrez<sup>29</sup>.

Jarrai dezagun entzuten:

Ikuspegi liberalean maitasuna eta erromantzea ematen duenak gorroto eta tortura kutsua hartzen du ikuspegi feministan. Plazera eta erotismoa bortxaketa bihurtzen dira. Desira mendekotasun eta menderatze grina gisa agertzen da. Emakumeen sexu eskuragarritasun proiektatuaren zaugarritasuna, baimentzen zaigun antzezpena; zuregan jardun dezaten eskatzea) [itxaronaldi labur bat, iragarki bat, eta gero itzuli...] biktimizazioa da. Antzeztea gidoiaren paperetara moldatzen da, fantasiak ideologia adierazten du[,] (...) eta berezko edertasun fisikoaren mirespena objektifikazio bilakatzen da<sup>30</sup>.

Iradokitzen ari naiz MacKinnonek errepikatu egiten duela marxismoaren ezaugarri problematikoena, baina baita erretorikoki konbentzigarrienetako bat: kritikatzeko duenaren estiloa erabiltzea. MacKinnonen analisiari indar asko datorkio bere oihartzun kulturaletik, eragiten duen libido kitzikaduratik, askatu eta birlantzen duen erru pornografikotik, eta hori guztia erotikoki kritikaren zeinuaren pean. Adierazpen hau ez da iristen Drucilla Cornellen iradokipen ausartera, hots, MacKinnonek «txortan egiten du [ela] jentzuleekin», baina bat egiten du ikuspuntu harekin: MacKinnonen genero-teoriak estilo pornografikoaren barruan dihardu), eta esperientzia pornografiko konplexu batean murgiltzen gaitu, zeinean MacKinnon desiraren hornitzailea eta objektua baita aldi berean, eta bere analisiak bere burua eskaintzen du hura nahi izategatik iraintzen gaituen sexuaren ordezkari gisa. Ordezpen hori

ere kate pornografiko baten parte bat da; pornografia sexu harremanaren ordezkoko *gisa* eta parte guztien ordezkagarritasun amaiezina pornografian islatzen dira MacKinnonek behin eta berriz dioenean sexu berdintasuna sexu plazeraren ordezkoko dela, eta parte guztiak amaigabe ordezkoko daitezkeela gizon eta emakume figuraz nagusitasun maskulinoaren erregimenean. MacKinnonen analisiak parte hartzen du orobat debeku eta urratzeko kate pornografikoan: pornografia debekutik sortutako desiran oinarritzen baita, eta horregatik etengabe berrezarri behar dituen urratu nahi dituen debekuak, MacKinnonen analisiak proiektu horretan parte hartzen du debekuak ugalduz, era urratzailean hitz eginez, gure desira bere buruaren aurkakotasun politiko bihurtuz. Hartara «pornografiaren maltzurkeriari» laguntzen badiore, agian haren produkzioa literalki sustatuz, haren erretorikak estrategia pornografikoa islatzen du halaber behin eta berriz erreparatzen dien neurrian bere lanaren aurkako debekuei, haren izaera urratzaile eta jasanezinari, horretan jarraitu arren. Eta pornografiarekin gertatzen den bezala, urratze eta debekuzko ekonomia hori itxia da: pornoaren erotikotasuna denboran errepikatzean eta bakartasun espazialean datzan era berean, MacKinnonen analisiaren indarra lotuta dago maiz sumatutako haren traba teorikoei eta eragozpen politikoei. «Ez dago ezer egiterik», da ikasleen erreakzio sarriena haren lanaren aurrean.

Laburtuz, MacKinnonen teoriak, genero eta sexualitatezko kode (pornografiko) oso klandestino bat abiaraztean, kode horren indarra berrinskribatu eta ustiatuz, baita haren edukiak islatzen dituen ere, identifikazio eta ezagupen kultural erraza ahalbidetzen du, bere «erradikaltasunari» kutsu liluragarri ezagun bat -ez mehatxagarria- eta kokapen kultural bat emanez. Hartara, haren ustezko erradikaltasunak aldi berean eusten dio ezaguna denaren plazerari, zilegia ez denaren plazerari, zilegia ez denaren aurka irakaspentak botatzearen plazerari eta kontserbadurismoaren kontsolamenduari –generoa eternala da, eta sexu plazera, lotsagarria-, taxuzko eraldatze politiko baten inguruan etsipena nagusitzen garai batean.

...

MacKinnonen analisiaren indarraren parte bat feminismoarentzat jabetu nahi duen metodo marxistatik badator kio ere, biziagotu egiten du orobat haren joera problematikoenetako bat historiatic, dialektikatic eta aldaketarako dinamika batetik bereiztean. Marxentzat, «elkarren aurkako bi klase handitan» banatzea lorpen historiko bat da, XIX. mendearen erdialdean bakarrik «osatua»<sup>31</sup>. («Osatzeko» hori suertatu zen, genero egozpen hiper-

heterossexuala bezala, nire ikuspegiari, kapitalismoaren historiako une nahiko labur bat, formazio sozial dualista bat, seguru asko Marx idazten ari zen unean ere argitzen ari zena, berreratuko zuena klase ertainaren sorrerak, enpresa kapitalak, burgesiaren gainbeherak, eta abarrek.) Gainera, klase menderatze eta esplotazioaren berezkoa zaion kontraesanak egituratutako prozesu historiko bat den aldetik, kapitalismoak proletariotzan sortzen du ez bakarrik kapitalaren premiak zerbitzatzen dituen klase bat, baita «bere ehorzleak» ere<sup>32</sup>.

Kontrastez, MacKinnonek egiten duen sexu aurkakotasunaren analisi ezin estatikoagoak, aurkakotasun horren izaera sozialki orokorraren ikuspegi marxista batekin batera –zapalkuntzarako egitura gisa funtzionatzen duena, ez «interes» huts edo ausazko gisa- teorikoki itxi egiten ditu teoria marxistak -hau da, historiaren mugimendua borrokak erabakia, kontraesan sistemikoek baldintzatua- bultzatutako eraldatze politikoaren bai mekanismoa bai ibilbidea. Ixten du halaber marxismoak eutsitako aukera eraldatzaileetako bat, ukatu egiten baitio emakumeen klaseari Marxek proletariotzari ematen dion indarra: femininotasuna edo emakumeen sexu indarra ez sentimentaltzeaz arduratuta, ezabatu egiten du Marxek praxi emantzipatzaileerako erabili nahi zuen aldaketa sozialaren dinamika bera, alegia, «gizarte barruan baina gizartearena ez den» klaseak indar produktibo guztia daukala, baina ez gizartearen botere sozial edo politikoa<sup>33</sup>. Marxen analisisan, «klase zapaldua emantzipatu ahal izan dadin, beharrezkoa da jada lortutako indar produktiboak eta dauden harreman sozialak gai ez izatea elkarren ondoan existitzeko»<sup>34</sup>. Baina kapitalaren kontraesanak ez bezala, sexismoa, MacKinnonentzat, da «metafisikoki ia perfektua» eta ezin estatikoagoa, historia zein eraldatze dinamika bat gabe bestelako etorkizun bat zabaltzeko<sup>35</sup>. Gainera, lana esplotatzen bada etekina ateratzeko eta esplotagarria bada irabazi bat sortzeko gai delako, dimentsio hori falta zaio sexualitateari; hala, sexismoaren *raison d'être* izango litzateke jotzea, ezkutuan, gizonen sexu mendekotasunaren plazer intrintsekoetara.

Marxismotik historia, izaera sortzailea eta dialektika horrela desagerraraziz, teoria politiko erradikal bat proiektu implizituki positibista, kontserbadore bihurtzen du. Kritika erradikal baten esanahia bera ere eraldatu egiten da aukera historikorik ez dagoenean kritika zuzentzeko, dinamika sozialik ez dagoenean eta klase menderatzaileak darabilen boterea klase menderatuak ezin berreskura dezakeenean berarena inoiz izan ez delako, eta, bai, arrotza zaiolako. Aldaketa erradikal baterako perspektibak desagertu egiten dira klase zapaldua klase menderatzailearen adarkadura besterik ez denean, esanahi edo existentzia kulturalik ez duenean adarkadura horretatik

haratago, eta zapalduak barne-baliabiderik ez dutenean kontzientzia edo eragina garatzeko, preseski botere menderatzaileak subjektiboki sortu dituelako, ez bakarrik hala kokatu. Marxek bereizketa egiten zuen proletarioa aurkitzen zen egoeraren eta beren egoeraren kontzientzia potentzialaren artean, kontraesanean zegoelakoan ideologia menderatzailearekin –izan ere, Marxek baldintza materialen, kontzientzia proletarioaren eta ideologia menderatzailearen arteko kontraesanekin kontatzen zuen iraultzarako baldintzak bete zitezkeen-, baina MacKinnonen formulazioak, alegia, sexualitatearen antolakuntza genero antolakuntza dela, ezabatu egiten du bereizketa hori. Gizon mendekotasunak ez du klase bat antolatzen soilik zerbitza diezaion, baizik eta, bere identitatea «gizonentzako izatea» den klase bat sortzean, klase bat osatzen du, zeinaren subjektibotasuna bere posizio soziala den, eta alderantziz.

Horri dagokionez, MacKinnon ez da, berak iradoki bezala, post-marxista soilik metodologikoki, ezpada historikoki post-marxista; egia esan, post-historikoa da. Marxista honentzat historia edo ez da inoiz existitu edo ez du inoiz garrantzirik izan, harentzat iragana ezabatua izan da eta etorkizuna amildegi bat da, baina izugarri astuna egiten zaio Marxek hildako belaunaldiek bizidunen garunean utzitako amesgaiztoaren zama esaten ziona. Osotasun sozial baten analisi erabatekoa eskaintzen duen aldetik, borroka, kontingentzia eta aldaketa historikorik zein barrutik aldatzeko perspektibarik gabeko marxismo bat totalitarismoa da, hain zuzen. Izan ere, historia edo arrazoi historikorik gabe, dialektikarik gabe, aldaketarako dinamikarik gabe idatzitako «Manifestu komunista» bat ez litzateke bakarrik tonuz aldatuko, euforikotik deprimigarrira; guztiz naturaltzat jotzen duen egoeraren aldeko argudio ere bilakatuko litzateke; zapalkuntza kapitalista sustraituta agertuko litzateke menderatzeko borondate batean eta menderatzeko botere intrintsekoan, eta haren biktimek ez lukete emantzipaziorik behar izango, babesa baizik. Ez da harritzekoa MacKinnonek behin eta berriro errepikatzea emakumeek ez dutela emantzipazio gehiagoren beharrik.

Bestela esanda, metodologia marxista darabilela dioen baina historia eta dialektika kontuan hartzen ez duen teoria bat kontserbadorea da, hermeneutiko zein ontologikoki positibista bihurtzen den neurrian; deskribatzen duen egoerak bere izaera historikoki baldintzatu eta sozialki dinamikoa galtzen du. Bestelako iraganik ez da inoiz existitu, eta etorkizunak ez du eskaintzen ez aukerarik ez promesarik. Iradoki nahi dut MacKinnonen teoriaren muin horrek antsietate bat islatzen duela, historiaren amaieraren inguruko krisi teoriko-politiko baten agonia korroketan dagoen garai baten, historiaren mugimendu progresista edo teleologikoetan galdutako

fedea definitutako garai baten antsietatea. Bai, teoria sozial marxistari garapen historikoaren legeak eta aldaketa sozialeko dinamikak kentzean, MacKinnonen analisia hurbildu egiten da historiografia marxistari, dialektika marxistari eta kontraesan sistemikoen logika marxistari egindako zenbait kritika post-estruturalistetara, kritika haien hori guztia Marxen aldetiko ilustrazioaren premisen onarpen akritiko eta problematikoen parte bat baita.

«Historiaren amaiera» fenomenoak –hura artikulatzen dute, alde batetik, gaur egungo teorizatzaileek historiografia progresistari planteatzen dizkioten erronkek, eta bestetik bai aspirazio sozialisten lur jotzea bai hobekuntza sozialerako promesa demokratiko-liberalen murrizketak- identitate, estrategia, posibilitate eta etorkizun politikoaren inguruko galdera kezkatu sorta bat sortzen du askorengan. Zeren eta historiografia progresistaren kritika teorikoen eta itxurazko gezurtatze politikoen konbinazio horrek eraten duena, antza, menderakuntzaren iragan, orain eta gero etengabe bat da: hain zuzen ere botere maskulinstaren eta emakumeen mendekotasunaren inguruko MacKinnonen teoria zirkular totalizatzaileak artikulatzen duena. Hartara, ez bakarrik MacKinnonen emakumeen ikuspegiak, beren genero eraikuntzak etengabe biktimizatuta erakusten baititu, baita haren interbentzio politikoen izaerak ere –haren insistentzia diotenean halako menderakuntzaren abusu okerrenetik isolatu behar dugula, ez emantzipazio estrategien bidez, ezpada erreprimatuz eta arautuz sexualitatea, esan daitekeena, eta abar, eta abar- etsipen erradikal bat adierazten dute historiaren une honen aurrean. Aurreranzko mugimendu baten promesa galduarekin, funtsezko askatasun politikoa jadanik ez dirudienean posiblea, ezta ulergarria ere, espero dezakegun onena da mendekotasunaren gehiegikerien arintze txiki bat. Ez askatasuna, zentsura baino; ez Lehen Zuzenketaren garantiak, ezpada kalte ordainak eskatzeko eskubide gehiago; ez esperimendu arriskutsuak esanahi-berritzearekin eta emantzipazioarekin, baizik eta polizia gehiago, arautze gehiago, sarraila hobeak atean.

Baina MacKinnonen ikuspegiak modernotasun berantiarren kritika teorikoarekin eta gertakari politiko globalekin konbergentzia osagaiak dituela adieraztea ez da gauza bera direla esatea. Egia esan, MacKinnonen postulatuak osotasun sozialaz, osotasun hori egituratzen duen dualismo sozialki orokortu bakar batez, eta subjektu guztien sorrera etengabe eta unibertsalki gobernatzen duen dualismo horretaz... denak kontraesanean daude ordena sozial anizkunen eta esanahi-berritze subertsibo bati ekiteko nolabaiteko gaitasuna duten subjektu sozialen inguruko ikuspegi post-

estrukturalistekin. Egungo hainbat teoriak eta egungo gertakari politiko askok zalantzan jartzen dituzte –hau da, deseraiki eta ezegonkortu egiten dituzte-gizarte modernoetan, eta zehazki gizarte liberaletan hain funtsezkoak diren subjektu, identitate eta gizarte kategoriak; MacKinnonek, ordea, berpiztu, zaharberitu eta birlandu egiten ditu kategoria horiek. Haren iritziz, badira gizonak eta emakumeak, menderatzaileak eta menderatuak, esplotatzaileak eta esplotatuak, sistema sozialak eta osotasun sozialak. Hala, MacKinnonek geure burua termino modernoetan ezagutzearen kontsolamendua ematen digu, baita herritarren eta akademikoen artean dagoen etorkizun modernorik ez dugulako uste gero eta zabalduagoa esplotatzen duenean ere.

Ikuspuntu horretatik, balirudike haren teoriaren egiturak eta kategoriek –teoriaren dimentsio tautologiko eta totalizatzailea, haren dualismoak eta absolutuak, haren silogismo bitxiak eta baliokidetasun behartuak-modernidade berantiarreko antsietate sakon bat artikulatzen dutela, halako militantzia batera bideratzen dena, baina haren osagaiak argitu gabe. Hala, MacKinnonen genero-teoriaren indar erretorikoa intrintsekoki lotuta egon daiteke –nola haren berreratze homologikoan, hala haren kadentzia pornografikoetan- modernidade berantiarren etsipen politikoari, eta agian, bereziki, potentzialki faxista den etsipen manipulatu baten eta libidoaren kitzikaduraren arteko interakzio bati.

## OHARRAK

<sup>1</sup> *Toward a Feminist Theory of the State* (Cambridge: Harvard University Press, 1989) lanaren hasieran MacKinnonek marxismoa eta feminismoa aipatzen ditu bi «prozesu sozial oinarritzko» definitu eta jarraitzen dituzten bi botere teoria sozial moduan (4. o.). Alabaina, feminismoaren alde azterketa kritiko bat egiten dionean marxismoari, feminismoaz honako hau esaten du: «marxismoarekin erlazionatuta dago, marxismoa ekonomia politiko klasikoarekin erlazionatuta dagoen bezala: haren azken ondorio eta kritika da» (125. o.).

<sup>2</sup> Ibid, 125. o.

<sup>3</sup> Ibid, 108. o.

<sup>4</sup> Ibid, 3. o. Zenbait arazo sumatzen hasi daiteke bat MacKinnonek ezarri nahi duen lanaren eta sexuaren, klasearen eta generoaren arteko paralelismoarekin. Sexualitatea, MacKinnonek batzuetan desiraren antolakuntza gisa definitzen duena -zabalik utziz desiraren estatus ontologikoaren inguruko kontu multzo bat- eta beste batzuetan «gizarte jakin batek erotizatzen duen edozer» gisa -zabalik utziz gizartearen eta erotikotasunaren estatus ontologikoaren inguruko kontu multzo bat-, «genero desberdintasunaren ardatza» da, sexualitatea botere mota bat delako, hain zuzen ere generoa sortzen duen botere mota. Marxek, noski, lana botere gisa dioen bere argudioa lanaren izaera sortzailean oinarritzen du, alegia, lan botere den aldetik salgai bihurtu, gainbalio gisa jabetu eta kapital gisa kondentsatu litekeen soberakina sortzeko gaitasuna. MacKinnonek planteatzen badu ere «batzuen sexualitatearen desjabetze antolatuak beste batzuen onerako» delakoak sexua, emakumea definitzen du[ela]», eta «generoa eta familia haren molde kondentsatu gisa» (*Toward a Feminist Theory of the State*, 3.-4. o.), ez du erabat zehazten nola, zer izaera sartzaileraren bitartez, orkestratzen den sexualitatearen ekonomia politikoa. Hala, Marxen argudioak logikoak (dialektikoak) eta garapenekoak (progresiboak) diren bitartean, MacKinnonenak tautologikoak (zirkularrak) eta estatikoak dira (baliokide eta silogismotan sustraituak). Artikuluaren azken partean garbi geratuko den bezala, horrek ondorio politikoak ditu, haren inkoherentzia analitikoaren aurreko haserretik harago doazenak.

<sup>5</sup> Ibid, 113. o.

<sup>6</sup> *Feminism Unmodified: Discourses on Life and Law* (Cambridge: Harvard University Press, 1987), 50.o.

<sup>7</sup> *Toward a Feminist Theory of the State*, 109.-112. o.

<sup>8</sup> *Feminism Unmodified*, 172. o.

<sup>9</sup> Ibid., 148. o.

<sup>10</sup> «Feminismoari egokitu edo erantzuteko ahalegin marxisten atzean, teoria sozialista-feminista gehienak barne, hiru azterbidetako bat dago: berdindu eta hondoratu, eratorri eta menderatu, eta kontraesanak ordeztu» (*Toward a Feminist Theory of the State*, 60. o.).

<sup>11</sup> Ibid. 39. o.

12 Ibid., 4. o.

13 “The Mirror of Production”, in *Selected Writings*, ed. Mark Poster (Stanford: Stanford University Press, 1988), 104.-105. o.

14 *The Human Condition* (Chicago: University of Chicago Press, 1958), 87. o.

15 “Mirror of Production”, 105., 104. o.

16 Ibid., 105. o.

17 Baudrillardek berak aipatzen ditu kategoria psikoanalitikoak aldentzen ari direla haiek eragiten dituen historiatic «kontzeptu marxistez esan dugunak balio du inkontzientearentzat, errepresioarentzat, Edipo konplexuarentzat, etab. ere” (“Mirror of Production”, 113. o.) -, baina ez du kontu hori garatzen. Gainera, Baudrillardek iradokitzen du kontzeptu psikoanalitikoek duten arazoa dela kontzeptu marxista ekonomikoarekin duten konplizitatea. Nire iritzia, agian Baudrillardena ez dena, kontuan hartuz genero eraikuntzari ematen dion arreta falta, da haien izaera historiagabetua lotuta dagoela generoaren osagarri normalizatupei.

18 Ikuspegi hau, eta funtsezkoa da, Hegelek filosofiaren eta historiaren arteko erlazioaren inguruan, zeinean «Minervaren hontza ilunabarrean airatzen da» erabilitako ikuspegiaren bestelakoa da. Izan ere, nik iradokitzen dudana da generoaren eraikuntza eta arautzea sexu ordena heterosexualera murriztea gure garaiko prozesu historiko bat dela, ez MacKinnon atzera begira ari dela atzematen orain argitzen ari den ordena bat elkartuta mantentzen zuena. Baina bigarren argudioa ere erabili nahi dut: genero-erregimen heterosexualaren dekodetzearen frogak nonahi aurkitzen dira herri kulturaren, Madonna eta Michael Jacksonengandik Ronald Reaganen seme ustez homosexuala eta Pee Wee Herman-enganaino. Labur esanda, MacKinnon teorizatzen ari da une historiko oso berezi bat, Marxek egin zuen bezala deskribatu zuenean «gizartea osotasun baten gisa gero eta gehiago bereizten ari da bi alor elkarren etsairen artean, bata bestearen aurrean dauden bi klase handitan» (*Manifesto of the Communist Party*, in *The Marx-Engels Reader*, 2d ed., ed. R. C. Tucker [New York: Norton, 1978], 4/4 o.

19 “Mirror of Production”, 104. o.

20 MacKinnon bera ere konturatzeko da: «Ulertzen baduzu pornografiak hitzez hitz dioena esan nahi duela, ondoriozta zenezake sexualitatea gaur egungo Estatu Batuetako faxismoa bilakatu dela, eta Weimarreko azken egunetan gaudela» (*Feminism Unmodified*, 15. o.).

21 Nietzsche, *Twilight of the Idols*, in *The Portable Nietzsche*, ed. W. Kaufmann (New York: Viking, 1954). Nietzschek dio grekoen hiper-arrazionaltasuna sintoma moduan interpretatu behar zela: «Gogoeta greko guztia arrazionaltasunaren gainera oldartzen den fanatismoak egoera etsi bat uzten du agerian; arriskua zegoen, aukera bakarra zegoen: hil edo *absurdoki arrazionala* izan» (478. o.).

22 *Feminism Unmodified*, 15. o.

23 *Beyond Accomodation: Ethical feminism, Deconstruction, and the Law* (New York: Routledge, 1991), 119. o.

24 *Toward a Feminist Theory of the State*, 118. o.

25 Ibid., 119. o.

26 Ibid., 124. o.

27 Ibid, 118. o.

28 Ibid, 119. o. "Does sexuality Have a History?" (*Discourses of Sexuality: From Aristotle to AIDS*, ed. Domna Stanton [Ann Harbor: University of Michigan Press, 1992]) lanean, MacKinnonek gehiago esaten du lesbianen sexualitateaz, baina ez da ez analitikoki konbentzigarria ez politikoki koherentea. Hona hemen lagin bat: Emakumeak eta gizonak emakumeak eta gizonak izaten jarraitzen dute munduan, baita gay edo lesbianak direnean ere. Horrek mendeko talde baten, emakumeen, barruko argi eta garbi menderatuak egiten ditu emakume lesbianak, eta talde menderatzaile baten, gizonen, barruko argi eta garbi menderatuak gay gizonak. Heterosexualitatea generoaren inguruan dago eraikita, sexu paradigma nagusi gisa; homosexualitatea generoaren inguruan dago eraikita, sexu paradigma mendeko gisa. Biek dute asko generotik, era desberdinetan izan arren. (135. o.)

29 *Feminism Unmodified*, 148. o.

30 Ibid, 149. o.

31 *Communist manifesto*, 474. o.

32 Ibid, 483. o.

33 Ikus Drucilla Cornellek MacKinnoni egiten dion kritika, zeinean argudiatzen baitu «femeninoa dena» ezin daitekeela murriztu gizonen nahi duten emakume motara: «Oso era sinplean esanda, MacKinnonen funtsezko errakuntza da «errealitate» femeninoa murriztea *haientzako* garen objektu sexualizatua, femeninoa dena erabat *identifikatuz* gizonaren begiradak ikusten eta eraikitzen duen «benetako munduarekin» (*Beyond Accomodation*, 130. o.). Cornellek saihestu egin nahi du MacKinnonen totalizazioa, alde batetik, eta femeninotasun esentzialdu bat, bestetik, produktiboa den baina eduki espezifikorik ez duen «iruditeria femenino» bat abiaraziz (ikus *Beyond Accomodation*, 17. o.).

34 "The Poverty of Philosophy", in *Marx-Engels Reader*, 218. o.

35 *Toward a Feminist Theory of the State*, 115. o.

SEXU AZPIKULTURAK AZTERTZEN.  
IPAR AMERIKAKO GAY KOMUNITATEEN  
ETNOGRAFIA AZALERA EKARTZEN

Gayle Rubin

## Antropologia eta homosexualitatea

Gure gizarteak gaitzetsi egiten du edozein adineko gizon-emakumek edozein motatako jokabide homosexuala izatea. Horretan gizarte gehienak ez bezalakoa da. Jende batek gure antza du horri dagokionez, baina jende gehiagok onetsi edo are bultzatu egiten du homosexualitatea, gutxienez biztanle batzuentzat. Jokabide horrek topatzen dituen langa sozial zein legezkoak gorabehera, jarduera homosexualak gertatzen dira Estatu Batuetako zenbait gizon eta emakumeren artean.

Clellen S. Ford eta Frank A. Beach, *Patterns of Sexual Behavior*

Joan diren hamarkadetan, antropologiak paper garrantzitsu baina aldakor bat jokatu du sexu komunitateen eta populazio erotikoen azterketetan. Antropologia indar nagusia izan da sexualitatearen inguruko gaur egungo teorietan, batez ere, unibertsal asimilatuak diren aldetik, genero eta heterosexualitatearen kritiketan<sup>1</sup>. Datu etnografiko konparatiboek lagundu egin dute aurreiritzi antihomosexualen zilegitasun morala indargabetzen<sup>2</sup>. Antropologoek ekarpen mamitsuak egin dituzte homosexualitatearen inguruko zientzia sozialen alorreko literaturan<sup>3</sup>. Lan antropologikoak lagundu egin du sexu dibertsitatearen eredu «perbertsoen» oinarri intelektualak ahultzen.

XX. mendearen zati handi batean, heterosexualitate zuzen, gehienetan monogamo eta ahal dela ezkontza bidezkoa eta ugalkorraren eredutik aldentzen zen sexu praktika baztertuta geratzen zen ez bakarrik desiragarria ez zelako, baita fisikoki osasungaitza, sozialki apalagoa edo kalte psikologikoen sintomatikoa zen aldetik. Halako perbertsio ereduak sexu aldaeren perbertsioa suposatzen zuen. Gaixotasun eta disfunczio egozpen horiek esplizituak edo inplizituak izan zitezkeen, baina nonahi zeuden. Bereziki gertatzen ziren sexualitate diskurtso profesional nagusia eskaintzen zuen literatura medikal eta psikiatrikoan.

Zientzia sozialek –batez ere antropologiak, soziologiak eta historiak- sari artikulatu dezakete aniztasun sozialaren berdintasun morala onartzeko joera intelektual konpentsatzaile bat. Antropologiak berdintasun ideologikoranzko aldaketa indartsuak bultzatu ditu alor anitzetan, sexuarena barne, mendebaleko zibilizazio industrialak giza lorpenen adierazle gisa onartzea errefusatu, kultur sistema desberdinak zilegitasun berdinekotzat joz, arraza-saillkapenen zimenduei eta arraza kontzeptuari berari ere eraso, premisa epistemologikoak kultur esparru espezifikoetan kokatuz eta erakutsiz nola balio moralen sistemak testuinguru sozial bereziek eragindakoak diren. XX. mendearen bigarren erdian antropologiak eta gainerako zientzia sozialek aurre egin zioten medikuntzak sexualitatearen azterketaren gainean zuen kontrolari, eta lagundu egin zuten perbertsioan oinarritutako ereduak baztertzen eta giza praktika kulturalaren aniztasuna prezatzean oinarritutako esparruak eskaintzen.

Hala ere, antropologia katramilatuta dago bere-bere jotzen dituen gune sozialetan, eta dezente gogoeta gutxiago egin du sexu aurreiritzien ondorioen inguruan paternalismo arrazionalizatuzko beste molde batzuek baino. Ironikoa da halako eragina duen diziplina bat hain estu jokatzea eta sexualitatea aztertzeari uko egitea. Zehazki, diziplinaren instituzioak sarritan ez dira gai izan homosexualitatearen inguruko ikerketa sustatzeko, eta, zenbait alderdiri dagokienez, oztopatu egin dute, batez ere mendebaleko hiri testuinguruetan. Horren ondorioz antropologiaren ekarpen intelektual indartsuen eta homosexualitatearen eta beste sexu populazioen inguruko gaur egungo ikerketan izan den presentzia instituzional urriaren artean sortutako desadostasunak ondorio garrantzitsuak izan ditu. Gay, lesbiana, bisexual eta transgenero gaietan diharduten ikertzaile askok, adibidez, suposatzen dute halako ikerketa mota 90eko hamarkadan hasi zela, ia erabat teoria frantsesetatik datorrela eta hizkuntza modernoak eta literatura, filosofia eta zinema ikasketen alorretan kokatzen dela gehienbat<sup>4</sup>. Antropologo asko, ordea, ez dira jabetzen historia luze bat dutela zientzia sozialek sexualitateari eskainitako arretari dagokionez, eta pentsa lezakete gay ikerketa batez ere kritika estetikoaren esparru lausoan egin izan dela.

Hala ere, homosexualitatearen eta beste sexualitate ez normatiboen azterketak genealogia luze bezain nabarmen bat du zientzia sozialetan. Saiakera hau saio bat da historia horren parte bat azalera ekartzeko, espezifikoki Estatu Batuetako gune metropolitarrerako gay, lesbiana eta beste sexu gutxiengoaren populazioen azterketa etnografikoari

dagokionez, eta iradokitzeko lan korpus horrek nolatan lagundu zuen sexualitatearen teoria eta paradigma berriak artikulatzen 70eko hamarkadaren hasieraren eta erdialdearen artean<sup>5</sup>.

## Hiri arazoa

Antropologia (...) herri primitiboak aztertzeaz arduratu da orain arte. Baina gizaki zibilizatua hori bezain interesgarria da ikerketagai gisa, eta aldi berean haren bizitza irekiago dago behaketara eta azterketara. (...) Boas eta Lowie bezalako antropologoek Ipar Amerikako indiarren bizitza eta ohiturak aztertzen erabili dituzten behaketa metodo egonarritsu berdinak era are emankorragoan erabil litezke Chicagoko Little Italyn edo Lower North Siden nagusi diren ohitura, sinesmen, praktika sozial eta bizitzaren ideia orokorrak ikertzeko, edo New Yorkeko Greenwich Villageko eta Washington Square auzoko manera sofistikatuak aztertzeko.

Robert E. Park, Ernest W. Burgess eta Roderick McKenzie, *The City*.

Graduondoko antropologia ikasle hasberria nintzela 70eko hamarkadan, ordu asko eman nituen Michigan Unibertsitateko liburutegian, homosexualitatearen antropologiaren inguruko materialaren bila. Datu ugari zeuden gizarte ez-mendebalderako sexu bereko harremanen inguruan, eta nabarmenenen artean literatura zabala zegoen Ginea Berriko eta Pazifikoko uharteetako hurbileko kulturetan gizonek egiten dituzten esperma truke errituaren inguruan, eta bitarteko generoetarako paper instituzionalizatuen inguruan, batik bat Ipar Amerikako herri indigenen artean. Tarteka agertzen ziren halaber praktika homosexualen edo sexu berekoen arteko elkarketen inguruko txostenak, adibidez, Afrikako zenbait gizartetan<sup>6</sup>. Alabaina, gaur egungo zenbait sexu komunitateren inguruko datuak, hala nola Greenwich Village, Fire Island edo Hollywoodeko mendebaldea, urriak ziren, eta nekez suma zitekeen interes antropologikorik halako populazioetan.

Sexualitatearen antropologiaz garai hartan eskura zeuden testu nagusiak ziren Forden eta Beachen *Patterns of Sexual Behavior* (1951) eta Marshallen eta Suggsen *Human Sexual Behavior* (1971). *Patterns of Sexual Behavior* testu ezinbestekoa izan zen sexologia konparatuan. Oso aipatua izan zen, eta eragin handia izan zuen sexu praktiketan zegoen kultur aniztasuna finkatzeko orduan. Ford eta Beachek bazuten atal bat homosexualitateaz, eta bertan gizarteek sexu portaera homosexuala onartzen zuten edo gaitzesten zuten agertzen da nagusiki. Estatu Batuetan 50eko hamarkadan lortutako gaitzespen maila ez zela unibertsala, eta are nahiko muturrekoa zela ohartaraztean, Fordek eta Beachek zegoen intolerantziaren kritika

inplizitu baina esan gabe bat adierazten zuten. Haien ikuspegi orokorrak eta erreferentziek gida zoragarri eta erabilgarri bat eskaintzen zuten sexu berekoen harremanen inguruko datuak aurkitzeko beste gizarte batzuen inguruko literatura etnografikoan, batez ere Human Relations Area Files artxiboetan. Baina Estatu Batuetan, nolana ere, Ford eta Beach garai hartan eskura zeuden sexu inkesta nagusietan oinarritzen ziren, batez ere 1948ko Kinsey txostenaren lehen liburukian, George Henryren sexu aldaeren inguruko bi liburukiko lanean (1941) eta 2.200 emakumeen sexu bizitzen inguruko Katherine Bement Daviesen txostenean (1929). Forden eta Beachen azterketak iturri horiek islatzen ditu banakoetan eta sexu jarduera motetan zentratuz. Errepikatu egiten du, esate baterako, Kinseyren inkestatuetako zenbatak praktikatu zuten «elkarren zakila ukitzea» edo zer ehuneko jardun zen uzki-kopulazioan. Talde sozialak interes antropologikozko unitate ohikoenak baitira, harrigarria da Estatu Batuetan homosexualen komunitate antolatuen kontzientzia gabezia. Fordek eta Beachek homosexualitatearen azterketari ekarri zioten erlatibismo kultural kopuru dezentekoa, baina hirietako sexu populazioen konplexutasun sozialaren berri gutxi.

Baina *Human Sexual Behavior* bi hamarkada geroago argitaratu zenean, Marshallek eta Suggsek asko zekiten hirietako homosexualen bizitza sozialaz; ez ziren, ordea, hain trebeak erlatibismo etnografikozko jarrera sendo bati eusten. Ohartarazi zuten bezala, «zenbait homosexual bildu egiten dira, edo tarteka bisitatu bertan bizitzeko edo aisialdirako, portaera desbideratuen aurrean tolerantzia gehiago erakutsi duten auzo zehatzetan», eta «zenbait mendebaldar homosexualek benetako azpikulturak garatu dituzte, ezaugarri bereziko beren portaera erduekin»<sup>7</sup>.

Homosexualen bizitza soziala aintzatetsi arren, Marshallek eta Suggsek homosexualitatea eritasun mental gisa eta akats psikologiko larrien sintomatzat jotzen zuen sailkapena babesten zuten. «*Berkeley Barbeko* iragarki homosexualak voyeurren, sadikoen, masokisten eta fetixistenekin batera agertzen diren era berean», zioten, «zaila da hirigune batzuetako “maritxu dantzaldiak” edo trabestien “edertasun lehiaketak” bezalako portaera alorreko adierazpenak nortasunaren asalduren adierazpen soziopatak bezala ez hartzea, *azpikultura orokor baten bazkidea izatearen konplikazioarekin*»<sup>8</sup>.

Gainera, Marshallen eta Suggsen arabera, «medikuen eta psikiatren datuek, analista batzuen eta logikaren interpretazioekin batera, adierazten dute gaur egungo zenbait mendebaldar sexu-desbideratu sozialki eta pertsonalki egokitugabe moduan aztertu behar direla, batzuetan hain gaixoak, non

gizartea arriskuan jarri baitezakete»<sup>9</sup>. Estatu Batuetako Psikiatren Elkarteak homosexualitatea ofizialki ez patologiko gisa birsailkatu eta asaldura psikosexualen zerrendatik kendu baino bi urte eskas lehenago, lasai adieraz zezaketen: «Homosexualitate aktiboaren onespren soziala azken batean da adieraztea gizarteak ez duela interesik, ez haiek babesteko beharrik ere, sozio-psikologikoki desbideratuarengan, portaera asaldagarritzko eredia bertan hedatu dadin saihesteko, edo gizarteari bere biziraupena ez zaiola ardura»<sup>10</sup>.

Marshallek eta Suggsek, bukatzeko, objektibotasun etnografikozko eta neutraltasun zientifikozko beste maila bat aldarrikatzen zuten sexualitatea aztertzean: «Hamarkadetan barrena, Ellis, Krafft-Ebing, Freud eta beste askoren eskutik sexuaren alderdi askotarikoen ikerketara bideratutako ahalegin guztiak gorabehera, *orain arte ez gara hasi giza portaeraren oinarrizko alderdi horren gaineko perspektiba erlatiboki kulturagabe batera iristen*»<sup>11</sup>. Sexu aniztasuna gogo ireki batez eta bagaje kultural gutxieneko batekin aztertzeke haien saio laudagarriak, alabaina, huts egin zuen homosexualitea berez patologikoa dela jakintzat emanez. Giza sexualitatearen azterketa ez-etnozentriko bat ezarri ez ezik, *Human Sexual Behavior* lanak erakusten du zenbaterainoko zama zuten aurreiritzi arruntek eta psikiatriaren hegemoniak erreflexu etnografikoetan, jada 1971n. Ironikoa da bi testu antropologiko horien arteko bi hamarkadetan sexuaren azterbide sozio-zientifiko bat finkatu, egungo sexu populazioen azterketa etnografikoak idatzi eta psikiatriak giza sexualitatearen ikerketan duen paper pribilegiatua zalantzan jartzearen lana soziologoek egin zutela.

## Chicagoko Unibertsitatea eta sexu munduen aurkikuntza

Homosexualitatea fenomeno psikologiko garbia izatetik fenomeno soziala izatera pasatzea bi bitartekok ekarri zuten: lehena, *homosexualitatea arazo sozial gisa* definituz (anbiguoki samar egotzita homosexualen gizartean egokitu ezinari edo homosexualen aurkako aurreiritziak desagertu izanari); bigarrena, *mundu homosexual baten existentziaren* onarpen publikoa. Homosexualitatea arazo sozial gisa diskurtso multzo anitzetan sortu zen, gerra amaitu ostetik 60ko hamarkada arte.

Jeffrey Escoffier, «Reading the Social»

Sexualitateak izaera soziala zuela eta zientzia sozialetan aztertzea merezi zuela zioen ideia sendo artikulatu zen 50eko eta 60ko hamarkadetan desbideratzearen soziologiaren inguruko testu multzo txiki batean<sup>12</sup>. Lan

korpus horren abiapuntuek, galderek eta inplikazioek zalantzan jartzen zituzten psikiatriarenak, eta interesgunea aldatu asaldura banakoien etiologiatik azpikultura desbideratuen egitura instituzionalak eta sozializazio mekanismoak ulertu nahi izatera. Jeffrey Escoffierrek ohartarazi duen modura, mundu sozial homosexualen aurkikuntza funtsezkoa izan zen homosexualitatea arazo medikal izatetik arazo sozial izatera pasatzeko. Etnografiak azpikultura homosexualei emandako arretak aldatu egin zuen atentzio fokua banakoengandik komunitateetara, eta gaixotasunetik eguneroko ohituretara.

Trantsizio aro hartan funtsezko papera jokatu zuten ikertzaileetako asko soziologia ikasitakoak ziren Chicagoko Unibertsitatean, haien artean John Gagnon, William Simon, Albert Reiss, William Westley, eta, ez hain zuzenean, Howard Becker eta Erving Goffman. Baziren, jakina, beste ikertzaile ezagun askok ere prozesuan lagundu zutenak, batez ere Evelyn Hooker psikologoa eta Alfred Kinsey, zientzia biologikoetan aditua. Baina Chicagoz gain, bazeuden beste erakunde batzuk, hala nola UCLA, Hooker irakasle ibili zena, eta Indianako Unibertsitatea, Kinsey Instituteren egoitza, gune intelektual garrantzitsuak izan zirenak sexualitatea birdefinitzeko eta sexu desbideratzea birkokatze<sup>13</sup>. Hala eta guztiz ere, arreta merezi dute hiri etnografiaren zentraltasunak, desbideratzearen soziologiak eta Chicagon zientzia sozialetan trebatutako pertsona kontzentrazio bereziak.

Chicagoko Unibertsitateko ikerketa soziala ospetsua izan da hiri soziologian egindako lan aitzindariagatik W.I. Thomas eta Florian Znaniekiaren *The Polish Peasant in Europe and America* (1918-20) argitaratu zenetik. Agian Thomas ezagunagoa da alor behaketa zehatzean oinarritutako hiri ikerketa molde bat finkatzen jokatu zuen paperagatik, baina sexologiazko tratatu bat ere argitaratu zuen 1907n. Haren *Sex and Society: Studies in the Social Psychology of Sex* (1907) liburuak aldizkari espezializatuetan argitaratutako artikulu goiztiarrak biltzen zituen. *Sex and Society* ez da jatorrizko ikerketa batean oinarritzen; batez ere oharrak dira, lehenago argitaratutako datuetan -asko etnografikoak- oinarritua. Thomasek XX. mendearen hasieran ezagutzen ziren liburuki antropologikoetako hainbat eta hainbat aipatzen ditu, hala nola Westermarck, Tyler, Spencer, Lubbock eta Morganenak; barne hartzen ditu orobat sexologiazko azterketa goiztiarren bildumak, haien artean Havelock Ellisen lana. *Sex and Society* gogoratzen digu sexu praktiken inguruko datuak oso garrantzitsuak izan zirela XIX. mendearen amaierako antropologian eta teoria sozialean, interes, ikerketa eta aurkikuntza antropologikoen sexologiaren hastapenak

finkatu zuten bezala. Esparru horien arteko teilakatzea izugarria izan zen, eta haien arteko bereizketa hastapenetan zegoen.

W.I. Thomasek ere Chicago Vice Commission delakoan [Chicagoko bizioaren aurkako batzordea] lan egin zuen, XX. mendearen hasieran Estatu Batuetan, bizioaren aurkako gurutzadaren ondorioz, ikerketarako zeharkako erakundeetako bat bera. Neurritasunaren aldeko mugimenduaz gain, mobilizazio sozial handiak ere izan ziren prostituzioaren («gaitz soziala») eta «esklabotza zuriaren» aurka, baita parte aktiboa hartu ere sexu harremanetarako neska gazteen baimen-adina igotzeko eta, hartara, langile klaseetako neska gazteen askatasun soziala kontrolatzeko<sup>14</sup>. Ironikoa da XX. mendean Estatu Batuetako hirietako «bizio» bezala ezagutzen dugunaren parte handi bat hura ezabatzeko erabilitako datuetatik etortzea.

Gainera, bizioaren aurkako erakundeek aurrera eramandako prostituzioaren zaintzak behaketa zuzenetik hartutako homosexualitatearen inguruko datuak eskaini zituen. New Yorkeko Hamabosten Batzordeak (1900en fundatua) New York hiriko prostituzioa dokumentatu zuen, baita haren ondorengo Hamalauen Batzordeak ere, «prostituzioaren aurkako elkarte haren ikertzaileek hiriko gau bizitzaren eta kale bizitzaren parte handi bat zaintzapean eduki zuten 1905etik 1932ra bitartean. (...) Beren prostituta bilaketan, [Hamalauen Batzordeko ikertzaileek] gay gizonak topatu zituzten behin eta berriz. (...) Topaketa haien inguruan idatzi zituzten txostenek datu baliotsuak eskaintzen dituzte gay gizonen topalekuen, gayen kale kulturaren, gay gizonen beste gizonetik harremanetan erabiltzen ziren konbentzio sozialen eta ikertzaileek beraiek haiek topatzean izandako erreakzioen inguruan»<sup>15</sup>. New Yorkeko bere baliokideak bezala, Chicagoko Bizioaren Aurkako Batzordeak ere dokumentatu zuen azpimundu homosexualen existentzia Chicagon, emakumeen prostituzioaren inguruko datuak biltzen ari ziren bitartean<sup>16</sup>.

Chicagoko Bizioaren Aurkako Batzordean egindako lana eta Chicagoko Unibertsitatean zuen posizioa gorabehera, W.I. Thomas mende aldaketa garaiko bizioaren aurkako gurutzada haien biktima izan zen. Kaleratu egin zuten 1918n hotel batean bere emaztea ez zen emakume batekin atxilotu eta Mann Legea urratzeaz akusatua izan eta gero. Aipatu legeak, 1910ean promulgatua eta Esklabo Zuri Trafikoaren Legea bezala ere ezaguna, debekatu egiten zuen emakumeak edo neskak estatu batetik beste batera garraiatzea «helburu inmoralekin». Nahiz eta haren xedea izan emakumeak behartutako prostituziotik babestea, praktikan Mann legeak ekarri zituen emakumeentzako garraio mugak, ezkondu gabeko bikote heterosexualak

xaxatuak izatea eta FBI burokrazia federalaren bulego iraunkor moduan finkatzea<sup>17</sup>.

Thomasen kasua artxibatu egin bazen ere, delitu moral baten akusazioak ekarritako publizitateak amaiera ekarri zion Chicagoko Unibertsitateko haren karrerari. «Haren kaleratzea izan zen (...) kolpe anker eta aurrez pentsatua, zehaztasunez gauzatua. Chicagoko Unibertsitateko argitaletxeak, *The Polish Peasant* liburuaren lehen bi liburukien argitaratzailea, unibertsitateko errektorearen agindu bat hartu zuen kontratua eteteko eta argitaratutako liburuen banaketa bertan behera uzteko. (...) Thomas izena unibertsitatetik ezabatu beharra zegoen»<sup>18</sup>. Thomasek ez zuen inoiz gehiago postu akademikorik izan, eta ikertzaile independente modura lanean eman zuen handik aurrerako bizitza.

Baina Thomasen irteera gorabehera, hiri etnografiak interesa pizten jarraitu zuen Chicagon 20ko eta 30eko hamarkadetan, Robert E. Parken eta Ernest Burgessen zuzendaritzapean. Jolas eta aisialdi jarduerak hiri paisaiaren osagai saihetsezinak ziren. Hain zuzen, hiri ingurunearen gaineko 1915eko saiakera batean<sup>19</sup>, Parkek arreta handia jarri zuen bizitza metropolitarrako dinamikaren eta «bizioa»ren arteko erlazioan, eta ohartarazi zuen «bizioaren komertzializatzea bere-berea dute[la]» hiriek, eta hiri bizitzako baldintza bereziek «oso zaila egiten dute[la] bizioaren kontrola»<sup>20</sup>. Izan ere, hiriek herrietako eta landaguneetako bizitzan egokitzen ez ziren banakoak erakartzen zituzten.

Metropolien erakargarritasuna partzialki zor zaio (...) [gauza bati:] epe luzean, gizabanako guztiek aurkitzen dute hiriko bizitzaren adierazpen askotarikoen artean garatu eta lasai egon daitekeen ingurune mota; hau da, beren izaera bereziak beren berezko joerak askatasunez adierazteko estimuluak lortzen dituen klima morala. Nik uste gisa horretako arrazoiek (...) erakartzen dituztela neska-mutil gazte ugari, gehienak ez badira, haien etxeetako segurtasunetik hiri bizitzaren nahasdura eta emozio zaratatsura. Komunitate txikietan, gizon arruntak, xelebrekeriarik zein jeinurik gabeko gizonak ditu arrakasta izateko aukera gehienak. Komunitate txikietan sarri toleratzen da xelebrekeria. Hiriak, aitzitik, saritu egiten du. (...) Hirian bestelako pertsona horietako askok ingurune bat aurkitzen dute, eta bertan, onerako edo txarrerako, haien joera eta talentuek loratu eta fruitu ematen dute<sup>21</sup>.

Hiriarentamainak eta grabitazio erakarpenak ahalbidetutako espezializazioen kontzentrazioaren ondorioa da Parkek hiri baten «eskualde moralak» esaten ziona, ospetsu egin zen terminoa.

Hiri jendeak bereizteko joera du, ez bakarrik bere interesen arabera, ezpada bere gustu edo aiurrien arabera. Baliteke horren ondorioz sortutako banaketa lan interesek edo baldintza ekonomikoek eragindako banaketa motaren oso bestelakoak izatea. Auzo bakoitzak, hiri populazioak banatu edo bereizteko joera duten eraginaren mende, beregana dezake «eskualde moral» baten izaera. Halakoak dira, esaterako, hiri gehienetan aurkitzen diren bizioaren auzoak. Eskualde moral bat ez da nahitaez bizitzeko leku bat. Izan daiteke leku bat elkartzeko, edo entretenimendurako. (...) Orduan, onartu egin behar ditugu «eskualde moral» horiek eta bertan bizi den jende gutxi-asko bitxi eta berezia, zentzu batean bederen, hiri baten berezko, normala ez izan arren, bizitzaren parte bat diren aldetik. Ez da beharrezkoa «eskualde moral» adierazpenean nahitaez kriminala edo anormala den leku edo gizarte bat ikustea. Asmoa areago da bestelako kode moral bat nagusi den eskualdeei aplikatzea, eskualde horietan bizi den jendeak zaletasun, pasio edo interes komun bat duelako, eta hori ez zaio eskuarki gertatzen jendeari. (...) Arte bat izan daiteke, musika bezala, edo kirol bat, adibidez, zaldi lasterketak. (...) Eskaintzen duen aukera dela-eta, batez ere tipo berezi edo anormalei, hiri handi batek joera du hedatzeko eta begien bistan agertzeko, eskala handian, komunitate txikiagoetan ilundu eta zapaldu egin ohi diren giza ezaugarri eta bitxikeriak<sup>22</sup>.

Irukin horietan Parkek ohartarazten du badi-rela sexualitate ez normatiboen inguruan antolatzen diren populazioak, egiaztatzen du espazioan kokatuta daudela, zilegitasun morala ematen dien irizpide bereziak aitortzen dizkie, eta haiek aztertzekeko arrazoiak azaltzen ditu.

Parken eta Burgessen ikasleak pilaan joan ziren Chicagora, tabernak, alkohola zerbitzatzen zen lokalak, lagun taldeak, auzo txiroak, eskatzaileak eta hiriko jarduera, bizitza eta dibertimendu sorta bat ikertzera<sup>23</sup>. Garai hartan argitaratutako lanetako ezein ez zen zuzenean homosexualitatearen zentratzen, baina Chad Heapek ohartarazten duen moduan, «ikasleek ikertu zuten halaber hiriko presentzia homosexual gero eta handiagoa, bai idatzi ere hiriko kokapen eta populazio espezifikoekin harremana duten sexu bereko harremanez eta sareez<sup>24</sup>. Heapek Nels Andersonen *The Hobo* eta Zorbaughen *The Gold Coast and the Slum* aipatzen ditu, sexu bereko jardueren eta sareen deskribapenak zekartzaten bi lan<sup>25</sup>. Zorionez, homosexualitatearen inguruan argitaratu gabeko ikerketa asko gorde izan dira Chicagoko Unibertsitateko Burgess Artxihoan. Gaur egungo zenbait ikertzailek, hala nola Allen Drexel, Chad Heap, David K. Johnson eta Kevin Mumford, arakutzen aritu dira Burgess artxihoak, eta dokumentazio izugarri aberatsa aurkitu dute Bigarren Mundu Gerra aurreko Chicagoko bizitza homosexualaz<sup>26</sup>.

Hiri etnografiaren tradizioek Chicagon jarraitu zuten Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren. Joseph Gusfieldek lan haren espiritutik pixka bat transmititzen du honako iruzkin honetan: «Esan ohi genuen edatearen inguruko tesi bati Harvardeko ikasle batek “Kultur askapen moldeak mendebaldar sistema sozialetan” izenburua jarriko liokeela; Columbiako ikasle batek deituko lioke “Alkohol erabileraren funtzio latenteak nazio alorreko lagin batean”; eta Chicagoko ikasle batek, “Harreman sozialak Jimmy’s-enean: 55. Kaleko taberna bat”»<sup>27</sup>. Baina Bigarren Mundu Gerra osteko ikertzaile taldeak zenbait hiritako delinkuente kontzentrazio guneen inguruko literaturari informazio berria eman baino gehiago egin zuen. Taldekide batzuek kritika orokor bat egin zien pertsona desbideratu edo desegokituengan zerbait intrintsekoki txarra zegoela uste zutenen atzean zeuden suposamendu nagusiei. Erakutsi zuten halako populazioek prestigio galera izan zutela sistema sozial menderatzaileetan, eta komunitate-egitura alternatiboak eta zentzuz betetako bizitzak eraiki zituztela haien barruan.

## Desbideratze kontzeptua desmuntatzen

Pertsona normalok pertsona estigmatizatu batekiko dugun jarrerak, eta haren inguruan gauzatzen ditugun ekintzak ezagunak dira, erreakzio horiek ongintzako ekintza sozialak, orbanaren eraginak apaldu eta moteltzeko diseinatuak baitira. Garbi dago definizioz pentsatzen dugula pertsona estigmatizatu bat ez dela benetako gizakia. Premisa horren gainean diskriminazio multzo bat gauzatzen dugu, eta hartara, oso modu eraginkorrez, baina asko pentsatu gabe, apaltzen ditugu haren bizitza aukerak. Estigmaren teoria bat eraikitzen dugu, ideologia bat, haren gutxiagotasuna esplikatzen eta guretzat nolako arriskua den kontatzeko, batzuetan arrazionalizatuz beste desberdintasun batzuetan, hala nola klase sozial alorrekoak, oinarritutako ezinikusia. (...) Joera dugu haiei egozteko akats sorta zabal bat, jatorrizko akatsean oinarrituta.

Erving Goffman, *Stigma*

Noiz salatzen dugu geure burua edo beste soziologoak aurreiritziak direla-eta? Uste dut adibide argigarriak arakatuko bagenu, ikusiko genukeela salaketa sortzen dela (...) ikerketak zinez sinesgarritasuna ematen dionean erlazio hierarkiko batean mendeko talde baten ideari. Erlazioko goiko parteak moraltasun ofizial onetsiaren indarrak ordezkatzeko ditu; mendeko parteak moraltasun hori bortxatu omen du. (...) Susmo bat sortzen du horrek: aurreiritziak ditugula mendeko partearen alde (...) historia haien ikuspuntutik kontatzen dugunean. Howard Becker, “Whose Side Are We On?”

«Chicago's Two Worlds of Deviance Research: What Side Are They On?» izeneko saiakera batean, John Galligherrek zehatz-mehatz kontatzen du nolako eragina izan zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren graduondoko ikasketak Chicagon egin zituzten eta desbideratzearen eta delinkuentziaren inguruko ikerketak birformulatzen hasi zen soziologo talde batek. «Desbideratzea» ikerketagai bihurtzearen pertsonaia funtsezkoetako bat Howard Becker izan zen<sup>28</sup>. Beckerren eragina faktore askori zor zaio: ikertzeko aukeratutako gaiak, alorraren birkontzeptualizazio ausarta, *Social Problems* aldizkarian 60ko hamarkadaren hasieran egin zuen editore lana, eta Society for the Study of Social Problems elkarteko lehendakari modura egindako lana. 1966an egin zuen Lehendakariaren Hitzaldia, gero *Social Studiesen* argitaratu zena, «Whose Side are we On?» testu ospetsua izan zen<sup>29</sup>.

Bertan Beckerrek erronka jotzen die ikertzaile sozialei parte guztien ikuspegiak aintzat hartu ditzaten, ez bakarrik onartutako agintarienak. «Erraz ikusten da askoz ikerketa gehiagok aurreiritziak dituztela funtzionario arduradunen interesen alde, kontrakoa baino»<sup>30</sup>. Beckerrek «sinesgarritasunaren hierarkia» izena jarri zion kontzeptua funtsezkoa izan zen. Adierazi zuen: «talde hierarkizatuak dauden edozein sistematan, parte-hartzaileek jakintzat ematen dute talde goreneko kideek eskubidea dutela gauzak nola diren definitzeko. (...) Hartara, sinesgarritasuna eta entzuna izateko eskubidea modu desberdinetan daude banatuta sistemaren hierarkian. Soziologoak garen aldetik, guk probokatzen dugu alderdikoikeria aurpegiera diezaguten (...) sinesgarritasunik zein mesedeko trataerarik ematen ez diogulako ordena finkatu bati, zeinean egiaren jakintza eta entzuna izateko eskubidea ez baitaude berdin banatuta»<sup>31</sup>.

Bere ikerketa eta idazki teorikoetan, Beckerrek, alde edo moldez, ez dio men egin nahi hierarkia moralari, eta horren ordean «berdintze moralala» esan geniezaiokeen proiektu batean murgiltzen da<sup>32</sup>. Honako hau dio, adibidez: «gure lanean ari garela (...) sinpatia sentitzen dugu ikertzen ari garen jendeaz; beraz, gainerako gizarteak egokitugabe jotzen dituen bitartean, herritar bati eskuarki eskaintzen zaion begiramenari dagokionez, guk uste dugu gutxienez beste edozein bezain onak direla»<sup>33</sup>. Ospe txarreko desbideratuen, herritar ohoragarrien eta funtzionarioen iritziak maila berean jartzea izugarri subertsiboa zen.

Nahiz eta «marginalen» inguruko Beckerren hasierako ikerketa marihuana erretzaile eta jazz musikariengan zentratu, homosexualitatea ere aztertu zuen desbideratzearen eta «bizitza desbideratuen» testuinguruan<sup>34</sup>. *Stigma: Notes on the Management of Spoiled Identity* (1963) liburuan, Erving

Goffmanek ere homosexualitatea erabiltzen du estigmaren eragin zabalak ilustratzeko. Interesatzen zitzaion nola deskalifikatzen, nola orbantzen eta aintzat hartzen ez diren banakoak eta taldeak, eta nola eraikitzen dituzten edo parte hartzen ikasten duten balio, kidetza sozial eta «karrera moral» alternatiboetan. Chicagon prestatutako beste bi soziologok, John Gagnon eta William Simon, gauzatu zuten sexu desbideratze espezifikoaren birkontzeptualizazio garrantzitsuena, homosexualitatearen birrebaluazio zabal bat barne hartu zuena. Graduondoko lana egin ondoren, kontratatu egin zituzten ikerketak egiteko Bloomingtoneko (Indiana) Institute for Sex Research delakoan. Gagnon 1959an iritsi zen, eta Simonek 1964n jarraitu zion. Chicagoko ikerketa sozialen herentzia intelektualaren eta Kinsey Institutuan sexualitateak zuen zentraltasunaren arteko hurbiltzea guztiz ezustekoa izan zen. Gagnon eta Simon segituan konturatu ziren beren ikuspegi soziologikoak izan zitzakeen ondorioez sexuaren inguruko ikerketa bat eta sexu teoriaren birformulazio bat egiteko orduan. 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran lan korpus bat egin zuten, ia-ia berrasmatu egin zuena sexu ikerketa zientzia sozial gisa. Errotik zalantzan jarri zuten halaber psikiatriaren hegemonia eta haren interesen desegokitasuna. Urte batzuk pasata, garaia gogoratu, Gagnonek zioen: «(aurrera eraman genuen) ikerketa proiektu bakoitza saio bat izan zen sexualitatearen alorra orientabide soziologiko batera eramateko. Orduan egin genuenaren berritasuna izan zen biologiak edo psikiatriak ustez erabakitako bizitza sozialaren alderdi bat aldarrikatzea. (...) Gay gizonen inguruko ikerketa proiektua (...) teoria etiologikoekiko eta faktore sozialek erabakitako sexu bizitzen ikuspegiekiko mesfidantza batetik hasi zen»<sup>35</sup>.

Sexualitatearen forma guztiak zientzia sozialek azter zitzaketzen fenomeno sozial gisa ikusteko tema hori izan zen beharbada haien lorpen handien eta hunkigarriena. Simonek eta Gagnonek sustatu egin zuten galdera eta teknika soziologiko arruntak homosexualen eta beste hainbat sexu populazio eta gairen ikerketari aplikatzea. Kenneth Plummerrek hauxe zioen: «haien idazlanetako ideia zentraletako bat zen haien nahia giza sexualitatearen ikerketa gauza berebizikoen alorretik atera eta dagokion lekuan jartzeko: mundu arruntean»<sup>36</sup>. Simonek eta Gagnonek birformulatu egin zuten ikerketa proiektua galdetzeko ez zergatik gizabanako zehatz bat zen homosexuala, baizik eta nolatan sozializatu zen bizitza homosexualean eta «karrera desbideratu» horren eduki sozialari dagokionez.

Ikertzaileak kritiko agertzen ziren etiologiarekiko obsesioekin eta heterosexualitatearen normalizazioarekin.

Gaur egungo homosexualitatearen ikerketak, ezohiko eta nahiko arestiko kasu gutxi batzuen salbuespenez, bi akats handi ditu: (1) «homosexual» kategoriaren eduki sozial eta psikologikoen ikuspegi homogeen eta sinplista batek gobernatzen du; (2) aldi berean, ia soilik interesatzen zaio auzi zailenetako eta ikertzaileei emaitza gutxien eman diezaiekeen bat: etiologia. (...) Helduen egoeraren azken kausekiko obsesioaren mugan dagoen kezka horrek paper garrantzitsua jokatu du homosexualarenganako uste eta jarrearen inguruko gure kezka egituratzeko orduan. Teoria etiologiko bat osatzen duten osagai espezifikoak edozein izanda ere, etiologiaren bilaketak bere ondorioak ditu ikerketaren metodologian eta portaeran oinarritutako teoriak eraikitzeke orduan. (...) Jendea nola bihurtzen den homosexuala jakitearen arazoak teoria egoki bat eskatzen du, nola bihurtzen den heterosexuala argituko duena; hau da, ezin daiteke homosexualitatea modu batean esplikatuko eta heterosexualitatea alde batera utzi, «gainerako guztia» etiketa daraman kategoria oso hondarreko bat balitz bezala<sup>37</sup>.

Patologia homosexualaren hipotesiaren izaera arbitrarioa ere nabarmendu zuten.

la kasu guztietan, homosexualitatearen presentzia ikusten da psikopatologia handi baten hasiera bateko froga gisa. Heterosexualak osasun mentalaren gutxieneko irizpideak betetzen dituzte, errugabetu egiten da; homosexualak, berriz, bere bizitzaren alor ez sexualetan oso ongi egokituta egon arren, susmagarria izaten jarraitzen du. (...) Jakina, ingurune homosexual batean integrazioa bilatzeak, desbideratze gehienetan gertatzen den bezala, zailagoa egiten du egokipen soziala populazio konbentzionallean baino. Garrantzitsua da ulertzea sexu praktika horien ondorioak ez direla nahitaez praktiken funtzio zuzenak. Urrundu beharra dago gizabanakoaren sexualitatearekiko kezka obsesibotik, eta saiatu homosexuala inguratzen duen munduan bizitzeko hartu behar dituen konpromiso zabalagoen barnean ikusten. Heterosexualak bezala, homosexualak ere adiskidetu egin behar du gizarteko kidea izateak dakartzan arazoekin: lantoki bat aurkitu behar du, bere familiarekin edo hura gabe bizitzen ikasi, bizitza politikoan interesatu edo ez, lagun talde bat aurkitu haiekin bizi eta hitz egiteko, bere aisialdia modu erabilgarri edo friboloan erabili, arazo ohiko eta ezohikoei aurre egin (...) eta nolabait bere sexu interesak sozializatu<sup>38</sup>.

Laburbilduz, homosexualitatearen azterbide soziologiko batek behar luke «ikertu bizimoduak haien alderdi arruntetan, bai itxuraz exotikoagoak direnetan ere»<sup>39</sup>.

Gagnonek eta Simonek egin zuten halaber ikerketa soziala, azterketa etnografikoak barne, beste sexu populazio batzuen inguruan. Sexuaren

inguruko gai askotaz idatzi zuten, pornografia eta lesbianismoa barne, bi antologia eraginkor egin zituzten, *Sexual Deviance* (1967) eta *The Sexual Scene* (1970), eta sexualitatearen beren ikuspegi teoriko eta sozialaren laburpen bikain bat egin zuten, *Sexual Conduct* (1973)<sup>40</sup>.

*Sexual Deviance* ia galduta zeuden testu klasikoen bilduma berebiziko bat da, eta antologia berriro inprimatu beharko litzateke. Sexu delituen, lesbianen eta prostituten inguruko atalez gain, gaur egungo bizitza homosexualaren etnografiaren inguruko jatorrizko artikuluko funtsezkoak daude *Sexual Deviancen*. Horien artean, Evelyn Hookerren «The Homosexual Community» (lehenik artikulua moduan aurkeztua 1961en); Maurice Leznoffen eta William A. Westleyren izen bereko artikulua (estreina *Social Problemsen* argitaratua 1956n); gizon prostitutu gazteen inguruko Albert J. Reissen azterketa, «The Social Integration of Peers and Queers» (aurrena *Social Problemsen* argitaratua 1961en); eta San Franciscoko gay tabernen inguruko Nancy Achillesen artikulua aipagarria, «The Development of the Homosexual Bar as an Institution» (Chicagoko Unibertsitateko Giza Garapenaren Batzordeari aurkeztutako bere master tesi argitaratu gabean oinarritua).

Hiritako gay populazioaren ikuspegi orokor bat eskaintzen duten hiru saiakerak 50eko hamarkadaren erdialdetik 60ko hamarkadaren hasieraraino egindako behaketetan oinarritzen dira, hiru hiritan zentratuak: Los Angeles, San Francisco eta zehaztu gabeko «Kanadako hiri handi bat» (seguru asko Montreal). Leznoffen eta Westleyren azterketa goiztiarra da, eta zenbait alderdiri dagokienez, garatugabeena. Dokumentatzen du bazeudela «homosexualentzako topagune ezagunak hirian, adibidez, taberna, hotel sarrera, kale kantoi eta komun publiko zehatz batzuk», eta aztertzen du «erreginek» (haien homosexualitatea irekiagoa zen, nolabait nabarmena) nola betetzen zituzten aitzindari sozialen funtzioak»<sup>41</sup>.

Artikuluaren alderdi interesgarrienak estatus sozialaren, egoera ekonomikoaren, komunitatean parte-hartzearen eta homosexualitatea agerian jartzearen arteko harremanen inguruko egileen oharrak dira. Leznoff eta Westley konturatu ziren bi oinarritzko estrategia zeudela estigma homosexualari eta arriskatzen zituzten zigor legezko zein sozialei aurre egiteko orduan. Ikertutako populazioko batzuk heterosexual gisa agertzen ziren, nola lanean hala harreman sozialetan. 50eko hamarkadako Kanadan argi eta garbi homosexualak ziren batzuen joera izaten zen «lan egitea homosexualak toleratzen diren lanetan, harremanik ez izatea talde heterosexual zorrotzekin, eta beren bizitza soziala giro homosexualetara mugatzea»<sup>42</sup>.

Bi talde horiei Leznoffek eta Westleyk «ezkutua» eta «agerikoa» deitzen zieten. Konturatu ziren erlazio inbertsoa zegoela estigmatizatutako identitate homosexuala agerian jartzearen, klase estatusaren eta mugikortasun sozialaren artean. «Ageriko homosexualak maila sozial apaleko lan batean egokitze joera du; homosexual ezkutua, maila sozial nahiko handiko batean»<sup>43</sup>. Gainera, «homosexualak bere orientazioa «ageriko»tik «ezkutu»ra aldatzeko joera du sozialki gorantz egin ahala»<sup>44</sup>. Bitarteko hamarkadetan, ageriko homosexualen aurkako zigorrak ahuldu ahala, erlazio hori nabarmen aldatu zen, baina oraindik suma daiteke molde mutu eta mudatuetan. Praktika ekonomiko eta sozialen esparru zabalagoak orain ahalbidetzen du homosexualak era irekian agertzea, nahiz eta homosexualitate aitortua oraindik arriskutsua izan karrera eta postu sorta zabal bateko banakoentzat, besteak beste, militarrek, politikariak, estamentu judizialeko kideak, ikuskizunaren munduko pertsonak, atleta profesionalak, irakasle eta hezitzaileak, eta erlijio gehienetako apaizak.

Hookerren ikerketak zertxobait geroago deskribatzen duen komunitatea handiagoa da, bereziagoa eta, jakina, ez hain kezkatia. Egileak lurraldetasun askoz garatuago bat topatu zuen. Los Angeleseko 50eko hamarkadaren amaierako eta 60ko hamarkadako komunitate homosexualari falta bazitzaion ere «lurralde-base bat bertan bizi zirenak zerbitzatzeko oinarrizko instituzioekin», homosexualak «hala ere, ez daude ausaz banatuta hirian barrena, ezta behar diren zerbitzuak eskaintzen eta topagune gisa funtzionatzen duten instituzioak ere. (...) Homosexualen kontzentrazio handiek talde handiak eratzea dakar. Auzo horietan, apartamentu-blokeen edo kale berezien jabeak eta maizterrak soilik homosexualak izan daitezke. (...) Gune horien izaera kontzentratua normalean ez da gauza jakina izaten, komunitate homosexualarentzat izan ezik, eta batzuetan Poliziarentzat»<sup>45</sup>.

Hookerrek ohartarazi zuen halaber «gay taberna»ren garrantziaz bizitza sozial homosexualaren instituzio publikoen artean, eta garrantzi horren erlazioaz gayen aurkako estigmarekin: «Homosexual gehienek ahaleginak egiten baitituzte beren homosexualitatea ezkutatzeko, bai lanean, bai heretosexualengandik, komunitatearen jarduerak aisialdi edo entretenimendu jarduerak izaten dira gehienbat. Komunitatearen topagune garrantzitsuena «gay taberna» da (...) baina badaude orobat ia soilik homosexualentzat diren lurrun-bainuetxeak, «gay» kaleak, parkeak, komun publikoak, hondartzak, gimnasioak, kafetegiak eta jatetxeak. Prentsa saltokiak, liburu dendak, disko dendak, arropa dendak, ile apaindegiak, barazki dendak eta garbitegiak toki kutunak izan daitezke erosketak egiteko edo hitzorduetarako, baina haien garrantzia bigarren mailakoa da»<sup>46</sup>. Hookerrek hirurogei gay taberna zenbatu

zituen Los Angelesen 1960 inguruan, eta bide batez ohartarazi zuen nola xaxatzen zituzten taberna haiek Poliziak eta alkohol salmenta kontrolatzen zuten agentziek<sup>47</sup>.

Nancy Achillesen saiakerak sakon aztertzen du gay tabernen zentraltasun instituzionala 60ko hamarkadaren hasieran. Haren arabera, gay tabernen zerbitzu nagusiak izaten ziren

elkarrekintza soziala gerta daitekeen leku bat eskaintzea; elkartzeko halako lekurik ezean, taldeak utzi egingo lioke talde izateari. (...) Gizarte zabaneko zenbait instituzio komertzial eta politikorekin artikulatuak, tabernekin ondasun eta zerbitzu legezko zein legez kontrakoak eskain diezazkieke bere bezeroei. Taberna bakoitzak bere «nortasuna» garatu eta instituzio bilakatu ahala, funtzio espezializatuagoak eta ez sozialak betetzen ditu. Adibidez, taberna zehatz batek balio dezake mailegu bulego gisa, jatetxe gisa, mezuak hartzeko zentro gisa, telefonogune gisa, eta abar. (...) Gazte klubak baliokide homosexualak da taberna<sup>48</sup>.

Gay tabernen garrantzi instituzional horrek ekarri zuen haien gainean Poliziak eta alkohol salmentarako agentziek egindako kontrolak esanahi politikoa izatea. «Komunitate homosexualaren protesta bateratua pizten duen konturen bat badago, Poliziaren jardura hori da. Homosexual askok ez dute ezer egiten harik eta taberna kutun batek edo lagun min batek Poliziaren mehatxuak jasotzen dituen arte. (...) Komunitate homosexualen talde kohesio handiena Poliziaren aurrean erreakzionatzean lortzen da»<sup>49</sup>.

Horretaz gain, Achillesek dioen bezala, jendaurrean biltzeko homosexualen eskubidea finkatzeko legezko borroka garrantzitsuenetako bat edari alkoholdunak saltzeko arauen inguruan gertatu ziren. Horren ondorioz, alkohola saltzeko lizentziak atxiki eta bezero homosexualak zerbitzatu nahian, «sarri tabernekin beraiek aldarrikatzen dituzte homosexualen eskubide zibilak, zeren eta gehienetan tabernak izaten baitira salatuak lege auzitan»<sup>50</sup>.

Taberna espezializazio handia nabarmena zen 60ko hamarkadaren hasieran.

Gay munduan molde sozial askotarikoak daude, eta bakoitzak azpialde bat osatzen du komunitate barruan. Askotan taberna batek azpialde jakin bat zerbitzatu du, eta zerbitzaria haren molde sozialaren ordezkaria izaten da. Esaterako, taberna bat ezaguna izan daiteke «larru zaleen taberna» gisa, eta bezeroak izango dira tipo maskulinoegiak, motozaleen jaka eta botak jantzita

ibiliko dira. Beste bat ospetsua izan daiteke «erregina» emagizonen artean. (...) Barra atzean emakume bat egoteak adierazten du bezeroak batik bat lesbianak direla. Berdin gertatzen da bereizketa sotilagoen kasuan; finantza auzoko taberna diskretuetan, kaoba eta urreztatuz beteak, zerbitzariak gorbata beltzak daramatzate eta Oxfordeko kutsuz mintzatzen dira<sup>51</sup>.

Gay lekuen banaketa geografikoaren parte bat kokatuta zegoen 60ko hamarkadaren hasieran. Achilles ohartarazi zuen zenbait taberna zeudela «kokatuta San Franciscoko Tenderloin auzoan, eta beste batzuk industria gunean eta alboko itsas pasealekuan», hala nola South of Market, gehienbat industrialak zena, eta Embarcadero zaharra; bertako kaietako tabernen jabe gehienak gay ziren<sup>52</sup>. Berak ikerketa egin zuen Castro hiriko geografia homosexuallean, leku garrantzitsu bihurtu baino hamarkada bat lehenago; garai hartan gay lekuak oso kontzentratuta zeuden Tenderloin/ Polk inguruan, kaildean eta South of Market-en.

Azkenik, Achillesek «gay tabernen sistema» terminoa zerabilen, eta ohartarazi zuen «taberna batzuk ireki eta itxi egin daitezke epe laburrean eta erregulariki, baina sistemak eta haren parte-hartzaileek berdinak izaten jarraitzen dute<sup>53</sup>. Achillesen azterketa sistemaren egonkortasun erlatibozko garai batean egin zen, eta agian horrek eraman zuen sistemaren iraunkortasuna ziurtzat jotzera. «Tabernak joan-etorrian dabilta, hiriko mapa baten gaineko argi kliskari batzuk bezala, baina sistemak bere horretan jarraitzen du»<sup>54</sup>. Ohar hori zorrotza da, nahiz funtzionalgia eta orokortzailegia izan beste garai batzuei dagokienez. Achillesen ikerketatik hamarkada batera, metropoli estatubatuar garrantzitsuenetako gay lekuek lurralde-zabaltze handi eta ikusgarri bat, dibertsifikazio ekonomikoa eta ugaritze instituzionala ezagutu zituzten. Egia da, bai, San Franciscoko «gay taberna sistema» ez zela egonkorra. Hazkunde handia gertatu zen, eta gero, 80ko hamarkadaren erdialdean, uzkuritu eta urritu egin zen. Esanguratsua dira halako aldaketak, hiri ingurunearen aldaketen ondorioa dira, eta erate instituzional mota berriak adierazten dituzte, edo halako hitatze bat hirietako gay populazioetan<sup>55</sup>. Hala ere, Achillesen ikerketak joandako garai baten deskribapen baliotsua izaten jarraitzen du. Atzoko soziologia gaurko historia bilakatu da.

50eko eta 60ko hamarkadetako gay komunitateetan egindako lan etnografikoaren benetako arazoetako bat (garai hartako etnografia gehienak jasandako arazoa) da denbora-kontzientziarik eza eta horren ondorioa: gaizki interpretatzea egoera iheskorak, aldi batekoak, unibertsalak balira bezala. Adibidez, Simonek eta Gagnonek zioten: «Lanari edo etniari lotutako azpikulturetan ez bezala, komunitate homosexualak –beste azpikomunitate

batzuek bezala- oso eduki mugatua du»<sup>56</sup>. Iritzi hori, garaian nahiko zabaldua, oso logikoa zirudien, gayen bizitza askoz ezkutuagoa baitzen, eta ez baitzegoen 70eko hamarkadan bezain instituzionalki landuta. Geroagoko ikuspegi batetik idatziz, Harryk eta DeVallek ohartarazten zuten: «Kultur alorreko txirotzearen inguruko Gagnonen eta Simonen tesia aldi bateko hipotesi bat zen, baliagarria izan zitekeena zenbait gay gunetan (...) eta aurreko hamarkadetan. Alabaina, azken hamabost urteetan gertatu den gay instituzioen ugaltzeak, identitate kolektibo baten kontzientzia zabaltzeak, kultura politiko sofistikatu bat sortzeak eta aisialdirako gay estilo ugariren loratzeak oso zabaldu du kultura horren edukia»<sup>57</sup>.

Halako eztabaidek frogatzen dute nolako garrantzia duten luzera egindako behaketek, egitura sozialen dimentsio diakronikoen aurreko sentiberatasunak eta kontingentziak printzipio kategoriara igotzearen arriskuek. Baina eztabaida horiek eta haien ondorengo doitzeak ezin izango ziren gertatu *Sexual Deviancen* zeudengune homosexualen inguruko datuak gabe. *Sexual Deviancen* dago halaber Albert Reissek gizon homosexual helduen eta beren burua «queer» gisa ikusten ez duten «gazte prostituituen» arteko sexu transakzio komertzialen inguruan idatzitako artikulu liluragarrian. «Bezere helduak mutil prostituitu delinkuente bati diru bat ordaintzen dio felazio bat egin diezaion ahalbidetzeko. Transakzioa felaziora mugatzen da, eta halako harreman batean mutilak ez du homosexuala edo sexualki desbideratua izatearen kontzientziarik garatzen, nahiz eta bezere helduak sexualki desbideratuak, «queer» edo «gay mutilak» iruditzen zaizkion»<sup>58</sup>. Portaera eredu horrek Reiss eraman zuen bereiztera «portaera homosexual» eta «rol homosexual» kontzeptuen artean, eta halako transakzioetan agintzen zuten arauetz «ekintza homosexualen» eta «identitate homosexualen» arteko mugak zein mekanismoz mantentzen ziren»<sup>59</sup>.

Diru trukeak, adibidez, bereizten zituen «maritxuak» (ordaintzen zutenak) eta «adinkideak» (ordaintzen zitzaizenez, maskulinitate heterosexuala babestu egiten zutenak). Sexu ekintzak, hasieran, behintzat, aho-sexura mugatzen ziren, zeinean mutila penetratzailea baita, eta homosexuala, penetratua. Sexu ekintzek «afektuen aldetik neutralak» izan behar zuten, eta parte-hartzaile homosexualak bakarrik aitor zezaketen sexu-gratifikazioa lortzea zutela helburu. «Ez da ahaztu behar buru-gratifikazioa onartuta dagoela sexu ekintzan. Transakzioaren sexu-gratifikazioaren motiboa bakarrik da tabua. Baina buru-gratifikazioak gertatu behar du maritxuarenganako afekturik erakutsi gabe, ez maitasun, ez gorroto. Rol harremanaren molde aginduan, mutilak zerbitzu bat egiten du etekinagatik, eta maritxuak onartu egin behar du emoziorik erakutsi gabe»<sup>60</sup>.

Azkenik, indarkeria erabil zitekeen mugak jartzeko arau horietako batzuk urratuz gero. Maritxuak ez bazuen ordaintzen, edo «mutila» afektu gehiegiz tratatu edo penetrazioa saiatzen badu, mutilak baimena du, areago, harengandik espero da, bere maskulinitasuna eta heterosexualitatea defenditzeko, bezeroa kolpatzea.

Bestela esanda, mutil batek ezin aitor dezake transakzioagatik ez zaiola ordaindu felaziogilearen aurka indarkeria erabili ezean, eta ezin aitor dezake sexu-gratifikaziorako bilatu duenik. (...) *Sistemaren enpresa-arauak sendotzeko bide bat da indarkeria.* (...) Beraz, felaziogileak indarkeria arriskatzen du mutilaren buru-kontzientzia mehatxatzen badu mutila homosexuala dela iradokiz, eta halakoa balitz bezala tratatuz. (...) Arauek diote dirua dela helburua, harremanean ez dela sexu-gratifikazioaren helburua bilatu behar, felazio-egilearenganako neutraltasun afektiboari eutsi behar zaiola, eta horrek guztiak bakartu egiten du mutila buru-definizio homosexual batetik. Itxaropen horietara moldatzen den neurrian, *haren «beste esanguratsuek» ez dute homosexual gisa definituko;* eta hori da, beharbada, haren buru-definizioaren faktore funtsezkoena<sup>61</sup>.

Sexu-signifikazio sistema horretan pertsona batek ekintza homosexualak egin ditzake homosexual baten identitatea bere egin gabe. Gainera, «gay» eta «ez-gay» arteko mugak bitarteko konbentzional hutsez gordetzen dira, besteak beste, diruari lotutako ohiko itxaropenez, sexu posizioz, afektu emozionalz eta indarkeria fisiko. Atzera begira, heterosexual eta homosexual kategoriak argi eta garbi apetazkoak ziren, eta guztiz ezegonkortuta zeuden 1961eko ikerketa hartan, «queer teoria» iritsi baino hamarkadak lehenago. Reissen saiakerak ilustratzen du nola garai hartan «sexu desbideratze» esaten zitzaion haren inguruko lanak jada bere egin zituen zenbait berritasun kontzeptual, eta haien ondorioek lagundu egingo zuten aldaketa handiak gerta zitezen sexualitatearen inguruko ikerketetan agintzen zuten paradigma teorikoetan<sup>62</sup>.

Desbideratzearen eta, bereziki, sexu desbideratzearen inguruko teoria nagusiak desmuntatuz, eta hirietako gay bizitzaren gaineko ikerketa etnografikoak sortuz, literatura soziologiko urri hark oihartzun handia izango zuen. Eragin handia izango zen antropologoen Ipar Amerikako hirietako gay komunitateen inguruan egindako lehen ikerketa etnografikoetan. 70eko hamarkadaren erdialdean lagundu egingo zuen halaber sexualitatearen birjabetze sakon, zabal eta oldarkorra ikerketagai bihurtu zuten soziologoen, historialariek eta antropologoen.

## Sexu desbideratetik konstrukzionismo sozialera

Stonewallen belaunaldiko gay eta lesbiana ikertzaileen lorpen intelektual handienetako bat da konstrukzionismo sozialetik abiatuta historia homosexualaren interpretazio bat garatu izana.

Jeffrey Escoffier, «Inside the Ivory Closet»

Michael J. Sweet: «Baina Boswell kritikatzan duten asko benetan dogmatikoak dira beren konstrukzionismo sozialean. (...) Konstrukzionista amorratuaren erreakzioa, antza, da beren eskematan sartzen ez den guztiari jaramonik ez egitea...».

Gayle Rubin: «"Konstrukzionista amorratuak" esaten diezuen horiek irakurtzeko jakin-mina dudanez, agian aipuren bat esan zenezake, adibide gisa?».

Michael J. Sweet: «Tira, "amorratua" hitz polemikoa da, noski. Foucaultek, hark hasi baitzuen dena, eta haren epigonoek –Jeffrey Weeks, David Greenberg, Ken Plummer, David Halperin, anglo-amerikarrak aipatzearen- lan polita egin dute, baina alderdikoikeria teoriko hori dute, antza».

Queer Studies List-era, New Yorkeko Estatu Unibertsitatea, Buffalo, bidalitako mezuak, 1994ko uztailaren 28-29.

Frustragarria da 60ko hamarkadaren hasieratik eta 70eko hamarkadan mahasti hau lantzen aritu garenontzat, sexualitatea oro har, eta homosexualitatea bereziki, ulertzeko egin ditugun ahalegin goiztiarrak proiektatu izana (...) abstrakzio foucaultarren bitartez (...) eta gero aurkeztuak berri-berriak balira bezala. Harritu egiten nau (...) queer teorizatzaileak erakartzen ari diren arretak (...) gorputzaren eta sexualitatearen inguruko arestiko artikuluetan (batez ere literatura ikasketetan) mundu anglo-saxoian, baina (...) ez dira esaten ari gutako batzuk -parte handi batean Mary McIntoshen 1968n argitaratutako "The Homosexual Role"ren irakurketak inspiratuak- azken hogeita bost urteetan esaten saiatu garenarekin desberdintasun handirik duen ezer.

Jeffrey Weeks, «The "Homosexual Role" after Thirty Years»

Dezenteko eztabaidak gorabehera, «sexu teorien konstrukzionismo soziala» ezinbesteko paradigma bihurtu zen sexualitatearen inguruko zientzia sozialetako ikerketetan XX. mendearen azken hamarraldietan<sup>63</sup>. Hori batez ere Michel Foucaulten lanari, bereziki haren *Sexualitatearen Historiaren* lehen liburukiari, egozteko tema harrigarria bezain frustragarria da, kontuan izanik genealogia argiak eta aipuek utzitako aztarnak, konstrukzionismo sozialaren lehen ikerketak historia sozialean, soziologian eta antropologian

egindako aldez aurretiko lanari lotuta daudela. Bi soziologo, Kenneth Plummer eta Mary McIntosh, izan ziren funtsezko bitartekoak, eta haien bidez sexu desbideratzearen soziologia gay historia alorrean sortzen ari zen lanean txertatuta geratu zen.

Plummer garrantzi handiko pertsona da. *Sexual Stigma: An Interactionist Account* 1975en argitaratu zenean, sexuaren soziologiaren birrebaluazio handia ekarri zuen, Gagnonen eta Simonen *Sexual Conduct* lanarekin batera. Plummer aipatu egileen lanaren jakitun zen, eta aipua egin zituen, baina bazirudien inspirazioa zuzenago hartzen zuela Blumerren *Symbolic Interactionism* (1969), Bergerren eta Luckmannen *The Social Construction of Reality* (1967) eta Goffmanen *Stigma* lanetatik. Plummerrek haien ikuspegiak zuzenean sexualitateara aplikatu zituen, bereziki gizon homosexualitateara. Geroago editore ibili zen bi antologia garrantzitsutan –*The Making of the Modern Homosexual* (1981) eta *Modern Homosexualities* (1992)-, eta gaur egun *Sexualities* aldizkari espezializatuaren editorea da. *The Making of the Modern Homosexual*eko sarreran Plummerrek konstrukzionismo sozialaren ideia gakoan historia labur bat eskaintzen du, eta Kinsey, Simon eta Gagnon, eta Mary MacIntoshen lanak seinalatzen ditu, bereziki eraginkorrak izan zirelakoan. Jatorriz 1968n *Social Problems*en argitaratutako McIntoshen saiakeraren berrinprimaketa bat dago halaber liburuan.

Mary McIntoshen «The Homosexual Role» funtsezko saiakera bat da, soziologian egindako lana lotzen duena egiten ari ziren gay ikerketei eta 60ko hamarkadaren hasierako teoria sozialei eta aktibismo soziopolitikoari<sup>64</sup>. Kinseyren lanaren inplikazio teorikoen eta antropologiatik sexu desbideratzearen inguruko literatura soziologikora doazen homosexualitatearen inguruko datu transkulturalen halako sintesi liluragarri bat eskaintzen du McIntoshen. Aipatzen du, esaterako, homosexualitatea ikertzeko zailtasuna, «portaera ereduak ezin baitira komenientzien arabera dikotomizatu heterosexualen eta homosexualen artean»; ikuspegi hori bikain argitu zuen Kinseyk *Sexual Behavior in the Human Male* testuan, batez ere gizonen homosexualitatearen inguruko atal luze subertsiboan<sup>65</sup>. Gainera, homosexualitatea «gaitz» gisa hartzen zenez, «ikerketaren lan nagusia haren etiologia bilatzen zentratzen zen». Formulazio bereziki gogoangarri batean, McIntoshen dio: «“batzordeen presidentzia”ren edo “Zazpigarren Eguneko Adbentismoa”ren etiologia ere araka genezake, “homosexualitatea”renarekin hasiz gero. Soziologia konparatiboak eskaintzen digun ikuspegi pribilegiatutik ohartarazi genezake homosexualitatea gaitz gisa ikustea berez ikerketagai izan daitekeela<sup>66</sup>.

McIntoshen proposatzen du «homosexuala funtzio sozial bat betetzen duen

norbait bezala ikusi beharko litzatekeela, ez gaitz batek jota dagoen norbait bezala»<sup>67</sup>. Gainera, paper soziala bera kulturalki eta historikoki espezifikoa da. McIntoshek homosexualitatearen inguruko datu espezifikoko aztertzen ditu (Human Relations Area Files-etik eta Forden eta Beachen *Patterns of Sexual Behavior* testuan jorratutako kultur-zeharreko beste datu batzuetatik ateratakoak) «paper homosexualaren» espezifikotasun kulturala finkatzeko. «Gizarte horietan guztietan», dio, «portaera homosexual ugari egon daiteke, baina “homosexualak” ez daude»<sup>68</sup>.

McIntoshen ekarpen handiena, ordea, izan zen «rol homosexual» hori historian kokatzea. Hark dio “homosexuala” esan geniezaiokeen pertsona mota baten rol soziala fenomeno nahiko arestikoa dela: «Hala izan zen XVII. mende amaierako Ingalaterran “homosexual” rol berezi, zehatz, espazializatua sortu zela, eta homosexualitatea pertsona batzuk eragiten dituen eta beste batzuk ez dituen gaitz bat dela suposatzea tinko sustraituta dago gure gizartean»<sup>69</sup>. Baieztapen hark ikerketa historikoan arlo berri bat zabaldu zuen sexu praktika, identitate eta zentzu berrien garapenaren baldintza, mekanismo eta espezifikotasunei dagokienez. Funtsezko premisa hark –homosexualitateak bere historia zuela- ondorio oso sakonak izan zituen. Mundu sozial homosexualen «aurkikuntzak» ekarri zuen homosexualitatea arazo sozial moduan ikustea, ez hainbeste medikuntza arazo baten gisara. Antzera, homosexualitatea esaten diogunaren horretan izandako aldaketen tamainaren «aurkikuntzak» lagundu egin zuen esparru teoriko berri bat artikulatzen, egun «sexualitatearen konstrukzionismo soziala» esaten dioguna.

Jeffrey Weeksek bizkor ulertu zituen McIntoshen laburpen historiko eskematikoaren inplikazioak, baita Plummer, Gagnon eta Simonen lanetan garatutako ideiak ere. Gay historialari eta antropologoek belaunaldi batek pentsalari horiek topatu zituen, baita haien lanean txertatutako ikuspegiak ere, Weeksen hasierako artikuluen bidez eta haren lehen liburuaren bidez, *Coming Out: Homosexual Politics in Britain, from the Nineteenth Century to the Present* (1977). *Coming Out*en lehen sarrera bibliografikoak hauxe dio: «nire ikuspegi orokorrak honako hauen eragina izan du: Mary McIntoshen «The Homosexual Role», argitaratua in *Social Problems*, 16. Liburukia, 2 zk., 1968ko udazkena; Kenneth Plummerren *Sexual Stigma*, London, 1975; J.J. Gagnonen eta William Simonen *Sexual Conduct: The Social Sources of Human Sexuality*, London, 1973»<sup>70</sup>.

*Coming Out* homosexualitatearen lehen historia sozial garrantzitsua izan zen, baita sexu paradigmatikoen konstrukzionismo sozialaren premisen lehen

hezurmamitzea ere. Sakon aztertu zuen homosexualitatea ez dela kategoria trahistoriko bat, baizik eta sexu berekoarekiko sexu portaera molde bat dela, pertsona, identitate eta komunitate historikoki espezifiko mota bereziak barne hartzen dituena. Weeksen sarreran zioen bezala:

«Homosexual» hitzak denboratik eta historiatik harago doan esanahi aldaezin bat izan duela pentsatzeko joera dugu egun. Historiaren emaitza bat da, ordea, kontzeptu zehatz bat adierazteko diseinatutako kultur artefakto bat. (...) Hitz bera ez zen asmatua izan 1869 arte (...) eta ez zen ingeles mintzatuan sartu 1890eko hamarkada arte. (...) [*Homosexualitatea* eta «gay» bezalako termino berriak] ez dira soilik errealitate zaharrak islatzeko etiketa berriak: aldatzen ari den errealitate bat erakusten dute<sup>71</sup>.

Aldaketa haietako bat izan zen hirietako azpikultura homosexualen sorrera. *Coming Out* testuak azpimarratu egiten zuen halako gertakarien garrantzi historiko zein teorikoa.

Homosexualitatea nonahi existitu izan da, baina kultura batzuetan bakarrik egituratu da, eta azpikultura bihurtu. (...) Azpikultura bat ez da hutsetik sortzen. Bi gauza behar ditu: arazo bati (talde baten sarbidea sexualitatera, kasu honetan) eman beharreko konponbide kolektibo baten premia sumatua, eta premia hura betetzeko aukera. Eta bi gauza horien posibilitatea eskaintzen du biztanle kopuru handiak eta anonimotasun erlatibo bat biltzen dituzten hirien hazkundeak. (...) [XIX.] mendearen erdialdean azpikultura askoz konplexuagoa eta askotarikoagoa da. Garai hartako epaiketetak akteak erakusten dute azpimundu homosexual baten hedapena hiri handietan (batez ere Londres eta Dublin) eta armada zein itsas armada daukaten hiri txikiagoetan. 1840ko hamarkadan Londreseko burdeletan neska gazteekin batera mutil gazteak eskaintzen ziren. (...) Topagune sare bat garatu zen, sarri komun publikoen inguruan kokatuak mende erditik aurrera; batzuetan bainuetxe publikoak, topagune eta klub pribatuak, bai zuzenean nesketan eta mutiletan aritzeko lekuak ere. Londresen gizonezko (eta emakumezko) prostituzioa aurkitzeko guneak Regent's Street aldean, Haymarket eta Trafalgar Square eta The Strand inguruneak ziren, baina 1880ko hamarkadan Alhambra Theatreko zirkulua sexu bikotea aurkitzeko gune oso ezaguna zen, bai Empire Music Hallen parte bat, The Pavillion, St. James'eko taberna eta Knightsbridgeko patinatze pista ere<sup>72</sup>.

Homosexualitateak historia bat zuela zioen ideia konstrukzionismo sozialaren esparruen barruko estreinako artikulazio teorikoen funtsezko alderdietako bat izan zen. Gay historiaren inguruko aurreko lanak joera zuen bere egiteko homosexualitate aldaezin bat, lege zigor eta kultur irizpide aldakorren mendean zegoena. Gay historia berriak, Weeksen lanak

hain ongi ilustratzen duena, ordea, homosexualitate mudagarri bat aurkitu zuen, eten nahikoak zituenak arazo bihurtzeko baita «lesbiana», «gay» edo «homosexual» bezalako etiketak aplikatzea ere beste garai historikoetako edo beste kultur testuinguru batzuetako pertsonen. «Homosexual» gisa identifikatzeko tentazioa izan genezakeen hori agian portaera sexualaren, are gutxiago «homosexualaren», ideia moderno edo mendebaldar batekiko arrotzak diren osagai instituzionalen eta erlazio sozialen multzo bati lekiok.

Gay historia birformulatu egin zen homosexualen historiatik, edo are homosexualitatearen nozio unitario batetik homosexualitateen edo sexu praktika homoerotikoen historietara, zeinen kultura eta gizarte alorreko erlazio eta balentziak testuinguru partikularretan zehaztu beharko bailirateke, mendebaldar gizarte industrializatu modernoetan lortutako datu basean jakintzat eman baino gehiago. Gainera, homosexualitatea historikoki eta kulturalki proteikoa zela jabetzeak ondorio zabalagoak izan zituen; haietako bat izan zen beste sexualitateek ere beren historiak zituztela<sup>73</sup>. Michel Foucaulten *The History of Sexuality* liburuaren 1 liburukia, *An Introduction* izenburua zeramana, 1976an argitaratu zen Frantzian, eta Estatu Batuetarako ingelesezko itzulpena 1978n. Bertan, Foucaultek eredu hedakor bat proposatu zuen, zeinean sexu «perbertsio» guztiek, bai sexu perbertsio kontzeptuak ere, beren historia baitute. Denboraren joanaz, Jonathan Katzek, lehenago maisulan bat idatzi zuena gayen historiaz, artikulu eta liburu bana argitaratu zituen «heterosexualitatearen asmakuntzaz»<sup>74</sup>.

Weeksek bezala, estimu handitan dut Foucaulten lana. Ez ditut haren orijinaltasuna eta distira gezurtatu nahi, ezta iradoki ere haren lana anglo-estatubatuar soziologiaren genealogian kokatu behar denik. Foucaulten lan intelektuala barne hartzen duen Frantziako mundu politiko eta akademikoaren barruan korrante teoriko kopuru handia zegoen<sup>75</sup>. Ez ditut iradoki nahi ere halako bereizketa zurrun bat Frantziako, Ingalaterrako eta Estatu Batuetako garapen akademikoen artean. Garbi dago ernaltze gurutzatu mordo bat izan zela, eta hurbiltze teoriko bat. Gainera, 60ko eta 70eko hamarkadetako frantziar «teoria» asko antropologia, hizkuntzalaritza eta historia bezalako diziplinetan sustraituta zegoen, haietako hainbat ideia arrakasta handiz sartu baziren ere AEBetako testuinguruetan, filosofia edo literatur kritikaren bidez<sup>76</sup>.

Arreta eskatu nahi nuke, ordea, akats baten aurrean, hots, gehiegitan eta era sinplista batean, ideia asko, sexualitatearen eraikuntza soziala barne,

egozten direla frantziar pentsalari zerrenda labur bati, edo 1978 inguruan gertatu zen bat-bateko errebelazio izpi bati. Konstrukzionismo sozialera, eta gero queer teoriara, eraman duten osagai gehienak hamarkadak zeramatzaten zirkulatzen diziplina sorta zabal batean zehar, baina historia horretatik asko ahaztu egin da, antza, edo soziologo gutxi batzuek bakarrik gogoratzen dute. Ildo horretan, interesgarria da queer teoriaren inguruko arestiko bi liburuen –Annamarie Jagoseren *Queer Theory: An Introduction* (1966) eta William Turnerren *A Genealogy of Queer Theory* (2000)- aipuei eta aurkibideari begiratu bat ematea.

Bi liburuok queer teoriaren jatorriak, iturriak eta garapena kontatzen dituzte, Turnerrena esplizituki historikoagoa izan arren, eta etxekotuagoa gay historiari queer teoriaren aparatu kontzeptualaren eboluzioan izandako paperarekin. Jeffrey Weeks aipatu eta eztabaidatzen da bi liburuetan, baina Foucaultek arreta gehiago bereganatzen du. Turnerren aurkibideko Weeksen aipuek lerro bakarra hartzen dute; Foucaultenek, berriz, ia orri oso bat. Bi liburuen bibliografietan aurkitzen dira Kenneth Plummer eta Mary McIntosh, baina Plummer ez da testuan agertzen, eta McIntoshen aipu labur bakar bat besterik ez dago<sup>77</sup>. John Gagnonen eta William Simonen izenak ez dira agertzen ez bibliografia batean, ez bestean, ezta *Sexual Deviance*ko gainerako egileak ere. Badirudi Weeksek eta Plummerrek McIntoshekin zuten zor aitortuak segurtatu duela hura queer teoriaren genealogietan sartu izana, baina hortik aurrera aztarna galdu egiten da. Haren lana koka daitekeen tradizio soziologiko osoa absente dago<sup>78</sup>.

Turnerrekin hauxe dio: «Foucaultek merezi gabeko ospea bereganatu zuen “sexuaren eraikuntza sozialaren gaineko lana” abiarazi zuelakoan, *The History of Sexuality* lagundu egin zuelako sexuaren azterketa historikoa legitimatzen»<sup>79</sup>. Eta nahiko ados nago iritzirik. Foucaulten eragin zilegiztatzaila ez zetorren bakarrik haren lanaren zalantzarik gabeko kalitatearekin, baizik eta orobat pentsalari handia izatearen ospea zuelako eta 70eko hamarkadaren erdialdean eta amaieran haren homosexualitatea ez zelako oso ezaguna Estatu Batuetan. Gay historiako antzeko gertakariak sexualki estigmatizatuta zeuden, intelektualki baztertuta, eta akademiko konbentzionalek ez zieten inongo jaramonik egiten.

Turnerrekin, zorrotz, ohartarazten du: «Weeksen eta Foucaulten ikuspegiaren arteko antzekotasunak norabide berean egin zituzten mugimendu bateragarrietatik datoz, ez Weeksek Foucaulti jarraitzen ziolako. Weeks, Katz eta Foucaulten idazkien arteko erlazioak aldaketa epistemologiko bat iradokitzen zuen, hau da, leku geografiko batzuetako zenbait

ikertzailerengan antzeko emaitzak eragin zituzten aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoen adierazpen eta iraunkortze intelektuala<sup>80</sup>. Ikertzaile asko, bakoitza bere aldetik, antzeko formulazioetara iristen ari ziren 70eko hamarkadaren erdialdeko epe labur batean, eskura zeuden datuetan oinarrituta eta existitzen ziren eskema teorikoak sexualitateari aplikatuta. Simonek eta Gagnonek hamarkada bat lehenago soziologian egin bezala, «konstrukzionismo sozialaren» urrats teorikoa zen sexualitatea gauza normala bezala tratatzea eta bere egitea modu emankorrez azter zitekeela tresna konbentzionalak erabiliz, batik bat historia sozialarenak eta kultur antropologiarenak. Adibide gehigarri gutxi batzuek ilustratzen dute lehendik egindako lana, «sexualitatearen konstrukzionismo sozialaren» teorien agerpena ez soilik posible, ezpada oso gertagarria egin zuena. Kontua ez da zergatik hainbeste jende hasi zen garai hartan sexualitatea modu hartan aztertzen, baizik eta zergatik ez zuten egin lehenago eta hainbeste eztabaida sortu gabe. Carole Vancek ohartarazi bezala, «sexuaren izaera berezia areagotu egiten da konparazio horrekin, zeren eta kultur eraikuntza, ideia normal eta giza bizitzaren alderdi gehienetan onartua, distortsiorik gabe ulertzen zaila dirudi sexualitateari aplikatzerakoan»<sup>81</sup>.

Konstrukzionismo sozialaren eta esentzialismoaren arteko sexualitatearen inguruko eztabaidak kontzeptualki antza dute antropologia ekonomikoan sustantzialismoaren eta formalismoaren artean gertatutakoekin. Polanyik 50eko hamarraldian zioen bezala, formalismo ekonomikoak auresuposatzen zuen bazegoela aktore ekonomiko mota bat, gizarte guztietan aurki zitekeena, motibo ekonomikoen multzo unibertsal bat portaera ekonomikoa beti moldatzen zuena, eta esparru ekonomiko bat, kasu guztietan kokatuta zegoen gizarteetan jokatzen zuena. «Ekonomia haren alderdi askotarikoetan aztertzean, zientzialari sozialak traba bat topatzen du oraindik ere: ondare intelektual bat, gizakia ikusten duena gauzak garraiatu eta trukatzeko berezko joera duen entitate baten gisara. Egoerak horrela jarraitzen du “gizon ekonomikoa”ren aurkako protesta guztiak eta ekonomiarentzat esparru sozial bat eskaintzeko aldizkako saioak gorabehera»<sup>82</sup>.

Baina Polanyik ohartarazi zuen ekintza ekonomikoaren inguruko halako premisak molde sozial zehatz baten emaitza espezifikoa zirela: «Ekonomiaren gaineko ikuspegi hori (...) XVIII. mendean sortu zen, mendebaldeko giroetan, eta garrantzi handia hartu zuen merkatu sistemako akordio instituzionaletan, egoera errealak apenas betetzen baititu postulatu ekonomizistak ezarritako baldintzak. Baina postulatu horrek ahalbidetzen al digu merkatu sistema baten izaera orokorra egitate

enpirikoen alorrean aplikatzea? Ekonomia formalaren aplikagarritasun historikoki unibertsal baten aldarrikapenak baietz erantzuten dio galderari»<sup>83</sup>.

Polanyik ezetz erantzuten zion. Haren orde, proposatzen zuen motibazio ekonomikoak instituzio sozialen emaitza zirela, eta haien neurri berean aldatzen zirela. Gainera, harentzat ekonomiak dira, gerora ospea hartu zuen termino bat erabiliz, «prozesu ezarriak», hau da, giza ekonomiak daude «txertatuta eta sustraituta instituzio ekonomiko zein ez-ekonomikoetan. (...) Horregatik, ekonomiak gizartean okupatzen duen leku aldakorren azterketa prozesu ekonomikoak garai eta leku desberdinetan eratzen diren moduren azterketa da»<sup>84</sup>. «Gizon ekonomikoaren» dezentralizazioa eta motibazio ekonomikoak estrukturaliki gertatzen direla eta kokatzen diren gizarteen espezifikoak direla behin eta berriro esateak antzekotasun kontzeptuala du sexualitatea sozialki egituratua, instituzionalki moldatua eta oso aldakorra dela pentsatzeko prozesuarekin. Erabaki ekonomikoaren prozesuaren psikologia ez bazen unibertsala, zergatik izan behar zuten unibertsalak desiraren psikologiak? «Ekonomia» prozesu ezarria baldin bada, zergatik ez sexualitatea?

Marxismoaren eragin handia izan zuen britainiar historia sozialak ere eragina izan zuen lehenik generoari eta gero sexualitateari aplikatu zitzaizkion pentsakerak eratzeko orduan. E.P. Thompsonek, *The Making of the English Working Class* testuaren bere hitzaurrean honela dio:

Liburu honen izenburua baldarra da [*Klase langile ingelesaren sorrera*], baina bere helburua betetzen du. *Sorrera*, prozesu aktibo baten azterketa delako, bitartekaritzari bezainbeste baldintzatzeari zor diona. Klase langilea ez zen sortu eguzkia bezala, ordu jakin batean. Presente egon zen bere sorreran. *Klasea*, eta ez klaseak. (...) Klasea diodanean fenomeno historiko batez ari naiz, leku desberdinetako gertakari itxuraz loturarik gabeak, nola esperientzia material hutsean hala haren kontzientziari dagokionez, batzen dituen. Azpimarratu nahi dut *fenomeno* historiko batez ari garela. Ez dut uste klase soziala «egitura» bat denik, ezta «kategoria» bat ere, baizik eta gertatu egiten den gauza bat (...) giza harremanetan<sup>85</sup>.

Thompsonen behin eta berriz esateak klasea formazio historikoki eraiki bat dela, kategoria unibertsal bat baino gehiago, eta giza esperientzia aldagaitzak diruditenen izaera ekoitzia azpimarratzeak aurreratu egiten dute generoa eta sexualitatearen inguruko ondoko ikuspegiak. Horren adibide bikaina da «Time, Work-Discipline and Industrial Capitalism» haren saiakera, 1967n estreina argitaratua. Bertan, Thompsonen

«deseraiki» egiten du denboraren gure esperientzia modernoa, eta erakusten du industrializazioaren eskakizun eta lorpenek zein era sakonean aldatu zuten «denbora» bezalako zera eternal bat<sup>86</sup>.

70eko hamarkadaren hasieran, antropologo eta historialari feministak aktiboki desmuntatzen ari ziren orduan zeuden genero nozioak Thompsonen antzera, eta halako analisiak sexualitateara lekualdatzeko joera zegoen material horren parte handi batean<sup>87</sup>. Horren adibide bat dugu victoriar aroko prostituzioaren historia sexualaren inguruko Judith Walkowitzen lana. Hartan prostituzioa ez da jada bizio aldagaitz unibertsala, «munduko lanbide zaharrena», baizik eta konplexu instituzional aldakor bat. *Prostitution and Victorian Society*ko atal oso baten gaia da «The Making of an Outcast Group: Prostitutes and Working Women in Plymouth and Southampton»<sup>88</sup>. Zentratzen da formazio sozial aldakorretan, eta nola diren ekintza sozialaren emaitza, egoera historiko eta kultur parametro espezifikoetan.

Adibide horiek aise biderkatu litezke. 70eko hamarkadan hainbat lanek paradigma teoriko berri bat sortu zuten, gero eta sendotasun eta eraginkortasun handiagoz sexualitateei aplikatuz antropologia, soziologia eta historia alorreko tresna arruntak. 1979ko udan, *Radical History Review* aldizkariak ale monografiko bat argitaratu zuen «Sexualitatea historian» gaiaren inguruan, eta bertan ageri ziren bi saiakera teoriko, orduan sortzen ari zen «eraikuntza soziala»ren ikuspegia artikulatzen zutenak: Bert Hansenen «The Historical Construction of Homosexuality» eta Robert Padgugen «Sexual Matters: On Conceptualizing Sexuality in History»<sup>89</sup>. Carole Vancek ohartarazi zuen bezala, «Eraikuntza sozialaren teoriak, sexualitate alorrean aplikatua, ideia nahiko eskandalagarri bat proposatzen zuen. Iradokitzen zuen gure pentsamenduan «naturaletik» geratzen zen azkeneko talaietako bat jariakorra eta aldakorra zela, giza ekintzaren eta historiaren emaitza, gorputzaren, biologiaren edo jaiotzeko sexu bulkada baten emaitza aldagaitza bainoago»<sup>90</sup>. Eraikuntza sozialak findu egin ditu sexu portaeraren azterbide sozialen oinarri teorikoak. Historian, antropologian eta soziologian egindako aurrerapenetan oinarritzen bazen ere, eraikuntza sozialak haren aurrekoek baino gehiago azpimarratu zituen azterbide sozialak<sup>91</sup>.

Geroztik, sendotze teoriko berri horrek hainbat eta hainbat lan inspiratu ditu, etengabe ezegonkortu egin dituena sexu kategoria unibertsalak, eta gero eta gehiago kokatu sexualitateak historian, gizartean eta kulturaren<sup>92</sup>. Hala ere, garrantzitsua da gogoratzea halako ikuspegiak literatura zaharragoetan oinarritzen zirela, eta, bestalde, orain queer teoria esaten zaiona barne hartzen duen lan korpus berri bat sendotu duela.

## Soziologiatik antropologiara

Antropologoek ez diote nahiko arreta eskaini sexualitateari mendebaldar gizarteetan, eta –hau okerragoa- ez diote jaramonik egin talde primitiboetan adierazten den moduan. (...) Fordek eta Beachek (1951) soilik eskuarki destilatu zezaketen antropologoek txostenetatik bazeudela gizarte batzuk (1) homosexualitatea present zeukatenak edo ez (etnografoen ikuspegitik), eta (2) zuritu edo kondenatu egiten zutenak. Hori izan da Gizakiaren Zientziek giza portaeraren alderdi ezin nabarmenago honi eman dioten arreta.

David Sonenschein, «Homosexuality as a Subject of Anthropological Inquiry»

John Gagnon eta William Simon Indianako Unibertsitatean izan zirenean 60ko hamarkadan, David Sonenschein hartu zuten, Antropologia Departamentuko graduondoko ikaslea bera, ikerketa bat egin zezan Chicagoko gay gizonen komunitatearen inguruan. Sonenscheinek idatzi zituen antropologia esparrutik herrialde industrializatuetako egungo populazio homosexualen inguruan ikertzeko premia seinatzen zuten lehen artikulak. Haren «Homosexuality as a Subject of Anthropological Inquiry» txostena, 1966n idatzia, dokumentu bereziki iragarlea da. Berraztertu egin zuen ikerkuntza antropologikoaren egoera, programa bat diseinatu zuen gero lantzeko eta laburbildu egin zituen ikerketa esparru horretan lana oztopatu duten gai eta arazo errepikakorrak.

70eko hamarkadaren aurretik sexualitate gaietan menturatu ziren zientzialari sozial ia denak bezala, Sonenscheinek aurre egin behar izan zien eredu hegemonikoei.

Saiakera honek, antropologo bati homosexualitatearen gaia profesionalki aztertzea (edo hori egitean hobeto sentiaraztea) ahalbidetuko liokeen baliotasun edo arrazionaltasuna aldarrikatzeko bainoago, ikerketa eskaera simple bat izan nahi du, eta abiapuntu bat eztabaidarako. (...) Begien bistakoa da homosexualitatea tradizionalki gehienbat psikologiantzat dela ikerketa arazo bat. (...) Psikologoek homosexualitatea aztertzean agertzen dituzten hiru kontsiderazio nagusiak izan dira (1) haren jatorri edo kausa, (2) haren egungo egoera eta (3) haren tratamendu eta, denboraz, sendabidea. Ikerketa guztiek suposatu dute gizabanakoa dela ikerketarako unitate oinarrizko, azken eta bakarra<sup>93</sup>.

Sonenscheinek 60ko hamarkadaren erdialdean argitaratutako literatura soziologiko urri baina garrantzitsuari arreta ematen jarraitu zuen, *Sexual*

*Deviance* antologiak bilduko zituena -Simonen eta Gagnonen bildumen artean lehena-, Sonenscheinek bere artikulua idatzi eta urtebetera argitaratua.

Delinkuentziari arestian eskainitako arretatik eta portaera delinkuentearen soziologia baten garapenetik abiatuta, zenbait idazlek aukera izan dute erabiltzeko, adibidez, erreferentziatzko taldeen inguruko teoriak eta homosexualak gutxiengo talde gisa hartzeko. (...) Kontsiderazio berriago hauek geroagoko testuek ikuspegi zabalago eta sakonago bat hartzea ahalbidetu dute. (...) Rol sozialen eta komunitate homosexualen barruko eta arteko interakzioen dinamikak aukera bikainak eskaintzen dituzte talde txikien metodoak aplikatzeko<sup>94</sup>.

Sonenscheinek seinalatu zuen antropologiak nolabait ahaztuta zeukala gaia ikerketagai gisa. Homosexualitatearen inguruko literatura berrikustean, seinalatu zuen mendebaldarrak ez diren kulturetan bazeudela «homosexual antzeko» portaerak, edo «gure gizartean joera homosexualizat joko liratekeenak», baina ez zen iritsi xamanak edo *berdacheak* homosexual gisan deskribatzera. Bereizketa egiten zuen portaera homosexualaren eta trabestismo praktiken artean, gehiegitan ahazten den bereizketa.

Sonenscheinek ohartarazi zuen: «homosexualitatea agertzen da errealitatean talde-fenomeno gisa eta aldi berean fenomeno indibidual gisa aurkezten den zerbait bezala», eta deialdi bat egiten zuen

ikerketan antropologiko bat egin dadin homosexualitateaz egungo mendebaldar gizarteetan. (...) Ikuspegi antropologikoak suposatzen du talde eta banako homosexualak transmititu, ikasi, partekatu, sortu eta aldatu egiten dutela zenbait molderen (adibidez hizkera, janzkera, portaera, artefaktuak) edukia, «kultura» erlatiboki desberdina esan zekiokkeen bat ezarri eta hari eusteko. (...) Hemen antropologo kultural eta sozialen interesak nagusituko lirateke: antolaketa soziala, ekonomia, komunikazioa, kontrol eta arau sozialak, mundu-ikuskerak eta mitoak, demografia, aldaketa sozial eta kulturala, kultura materiala, kultura hartzea eta sozializatzea<sup>95</sup>.

Sonenscheinek bukatzen zuen ohartarazten homosexualen inguruko aurreko datu gehienak *paziente* populazio batean oinarritzen zirela, haietako asko terapien zeudenak epaile aginduz, eta ikerketa antropologikoak bestelako ikuspegi bat emango zuela homosexualitateaz. Azpikultura homosexuali arreta emateko aholkatu zuen. «Gizakien artean», zioen, «gutxienez mendebaldar hirietako tradizioan, talde eta artefakto kulturalki desberdinen molde berezietan ematen da aditzera portaera homosexuala»<sup>96</sup>.

Homosexualitatearen inguruko saiakera honetako argudio nagusiak gaur egungo dibertsitate erotikozko bestelako molde askori aplikatu dakizkieke. 60ko hamarkadan, Sonenscheinek ikerketa programa bat ezarri zuen homosexualitatea, eta, hedaturaz, mendebaldeko hiri modernoetako egungo beste sexu populazio batzuk, antropologikoki aztertzeko. Salbuespen berebiziko batekin—Esther Newtonen *Mother Camp*—, denbora asko pasatu behar izan zuen Sonenscheinen ideiek antropologiaren esparruan eragina izan zuten arte.

## ***Mother Camp***

Ohartarazi beharko litzateke «emakumeak» diodanean Estatu Batuar Kulturako kategoria sozialki definituaren zeinu eta sinboloen ari naizela, batzuk nabarmenak, beste batzuk sotilagoak. Kultur-zeharreko mailan, begien bistakoa da transformistek «emakume» estatubatuarren itxura dutela, ez «emakume» hopena, ezta «emakume» nekazari txinatarrena ere. Hain garbi ez dagoena da estatubatuar kultura *barruko* biologiaren, biologiako kontzeptuen («natura») eta sexu rolen inguruko sinboloen arteko erlazioa. Begien bistakoa da «gizonak» bezala sailkatutako jendeak artifizialki «emakume» baten irudia sortu beharko lukeela, baina garbi dago «emakumeek» beraiek ere «artifizialki» sortzen dutela beren irudia.

Alde batetik badago «jaun desbideratua». (...) Polo horretan aurkitzen ditugu homosexual «maskulinoak», «errespetagarriak», erakunde homofilo gehienetako liderrak, eta abar. Kontrako poloan daude estigma nabarmenak eta begien bistan hezurramitzen duten pertsonak, «drag queen» direlakoak, «emakumeak bezala» jantzi eta jokatzeko dutenak. Beraz, drag queenak homosexual profesionalak dira; gay munduaren estigma adierazten dute. Ez da harritzekoa, homosexual profesionalak diren aldetik, beren lana desohore iturri gisa ikustea, batez ere mundu heteroarekin alderatuta. Gay munduan oso zabalduta eta prezatuta dauden trebeziak ditu: etorria eta grazia, «camp» zentzua (umore eta gustu homosexuala). (...) Gayentzat bakarrik diren lekuetan, hala nola tabernak eta jaiak, drag queenek arrakasta handia izaten dute.

Esther Newton, *Mother Camp*

70eko hamarkadaren hasieran bi antropologo bakarrik —Sonenschein eta Esther Newton— zeuden gay populazioen inguruan lan etnografikoa egiten ari ziren soziologo urrien artean. Newtonen *Mother Camp* (1972), transformisten inguruko monografia, mendebaldar hiri modernoetako gay populazioaren gaineko lehen etnografia luzea, *Mother Camp* transformista profesionalen azpitalde espezializatuagoan zentratzen da, baina gay

komunitateetako bizitza, egitura soziala eta ekonomiaren inguruko Newtonen testua adimentsua, orijinala eta fundazionala zen.

*Mother Camp* Esther Newtonek 1968n, Chicagoko Unibertsitateko Antropologia Departamentuan ikasle zela, David Schneiderren zuzendaritzapean idatzitako tesian oinarritzen zen. Newtonek Chicagon egoteko eta, bereziki, Schneiderrekin lan egiteko zortea izan zuen. Gogora dakar Schneiderrek konbentzionalak ez ziren ikasketetako graduondoko ikasleei eskainitako babes erabateko eta ezohikoa. Schneider izan zen

bedeinkapen bat ni bezala marginalak eta bestelakoak ziren ikasleentzat, zeren mundu guztiak arrakasta izango zutela uste zuen gizon zuriek ez ezik, Schneider erakartzen zuten armairutik irten gabeko gay ikasleak eta gainerakoan botere tsuen babesaezinerakar zezaketen emakume borrokariek. Ongi gogoratzen dut departamentuan emandako urtearen amaieran Schneiderrek nire aurrerapenen berri eman zidala; haren bidez, beste irakasleek jakinarazi zidaten praktikak jantzteak bokazio antropologikoarekiko konpromiso falta adierazten zuela. (...) Schneiderarren egongelan, ordea, hark esan zidan soinekoa jantzteak ez zuela inoren balioa frogatzen<sup>97</sup>.

Schneiderrek konbentzionalak ez ziren ikerketagaiak ere babesten zituen.

Davidi erakutsi nizkionean alorreko lanaren inguruko nire oharrak eta gogo bizia, hats eman zidan doktoretza tesia transformisten inguruan idatzi nezan. (...) Lana egiteko tresna intelektualak garatzen lagundu zidan, eta, hori bezain garrantzitsua, esan zidan Departamentuan zuen eraginaz lagunduko zidala. (...) Garai hartan zientzia sozialetan gayak soilik ikerketa psikologiko, medikal edo are kriminologikoen subjektuak ziren. [Schneiderrek] irakatsi zidana, gehiago bere bulegoan edo bere etxean ikasgelan baino, izan zen transformistak (eta haietaz zekien gauza bakarra nik esandakoa zen) gizaki talde bat zirela, eta, beraz, aztertzea merezi zuen kultura bat zutela. Haren ideia, gay pertsonak ez zirela bakarrik gaixo bakartuen kategoria bat, baizik eta talde bat, eta horregatik kultura bat zutela, sekulako urratsa izan zen, eta zaila da gaur egun bere garaian zein ausarta izan zen epaitzea<sup>98</sup>.

*Mother Camp*en egiten duen alorreko lanaren analisisan, Newtonek ohartarazi zuen ez zegoela «orain arte komunitate homosexualaren etnografia osorik, are gutxiago drag munduarena; beraz, hasieratik, “itsuan hegan” ari nintzen. Gainera, oso etnografia gutxi (komunitatearen lehen azterketak izan ezik) zeuden Estatu Batuetan zentratuta; beraz, alorreko lanerako nire prozedura eredu hirietakoak ez ziren aurrekarietan oinarritzen zen neurri handi batean»<sup>99</sup>. Newton Schneiderrekin bere lanaz hizketan hasi zenean, baina, hark sexualitatearekiko desbideratzearen soziologia alorreko

literaturara bideratu zuen zuzenean<sup>100</sup>. Ez zegoen literatura antropologiko askorik oinarri hartzeko, baina Newtonek aipatu eta era emankorreen darabil Hookerren eta Sonenscheinen lan etnografikoa, sexuaren inguruko Kinseyren ikerketa, Simonen eta Gagnonen orientazio teoriko orokorra, ekonomia alorreko Leznoffen eta Westleyren oharra eta Beckerrek eta beste batzuek hain era osatuan garatu zuten «desbideratu karrera» nozioa. Antropologian laguntza zuzen gutxi bazegoen ere, material ugari zegoen «desbideratzeaz» soziologiaren alorrean.

*Mother Camp* liburu era engainagarrian zuzena da, haren sofistikazio eta sotiltasuna gero eta nabarmenagoak suertatzen dira irakurraldi bakoitzarekin. 60ko hamarkadako gay bizitzaren antolamendu sozialaren, gay funtzionamenduaren arkitektura sozial eta fisikoaren, gay populazioen barne bereizketa estilistiko eta sexualaren inguruko ohar sotilez, bai transformismo profesionalaren antzerki teknika zehatzez ere beteta dago. Baina *Mother Camp* hiru arlotan da eraginkorren. Genero performancearen nozioa irudikatzen du; 60ko hamarkadako homosexualitatearen ekonomia politikoaren analisi bat eskaintzen du, eta performance motak lotzen ditu mailaketa ekonomikoari, orientazio politikoari eta estatus sozialaren hierarkiei.

Newtonen lana ordaindutako transformista talde txiki batean zentratzen zen, antzerki eta ikuskizunetan lan egiten zutenak eta beren burua artista profesional gisa ikusten zutenak. Hartara, beti zegoen performance alderdi bat haien drag lanean. Newtonek hedatu egin zuen genero performancearen nozioa adieraztean edozein drag motak «formala, informala edo profesionala izan, antzerki egitura eta estiloa du[ela]»<sup>101</sup>. Dragen ezaugarri bereizle hori, zioen, haren «talde izaeran» zegoen. Generoaren performanceak ikusleak behar zituen. Gainera, konturatu zen dragak egiten duen generoaren hankazgoratzeak «zalantzan jartzen du[ela] sexu rolen sistemaren “naturaltasuna”; sexu rolei dagokien portaera sexu “okerrak” lortu badezake, logikaz ondorioztatzen da errealitate hori ere lortu egiten duela, ez oinordetu, sexu “zuzenak»»<sup>102</sup>. Horretaz gain, «dragak dakar sexu rola, eta hedaturaz rola, oro har, gauza azaleko bat dela, manipulatu egin daitekeena»<sup>103</sup>.

Liluragarria da jabetzea Newton antzeppen lanaz baliatzen zela eguneroko bizitzako jardueren inguruko baieztapenak egiteko, gaur egungo genero azterketen formulazio finduagoak aurreratzen zituztenak, batez ere Judith Butlerrenak. Butlerrek performatibotasunaren inguruan darabiltzan nozioak filosofikoki garatuago daude, eta parte batean hizkuntza-ekintzaren teorian oinarritzen dira. Baina aipatu egiten du Newtonen *Mother Camp*, eta draga eta genero inbertsioa ere erabiltzen

ditu generoa era interaktiboan sortzearen inguruko formulazioak egiteko<sup>104</sup>.

Butlerren lanak erraztu badu ere genero, drag eta performancearen arteko erlazioen gaineko Newtonen artikulazio goiztiarrak gaur egun birrebaluatzea, sexualitateen ekonomia politikoari *Mother Campe* egindako ekarpenei ez zaie jaramon handirik egin. Newton Lezznof eta Westleyren ekarpenetan oinarritu zen sexu aukeraren agerpenaren eta posizio ekonomikoaren arteko erlazioak arakatzeko, eta azterketa konplexutasun maila berrietara eraman zuen. Sakon aztertu zuen ezkutuko homosexualen eta irekien arteko aldea, baina terminologia zertxobait aldatuz: «ezkutuak» eta «agerikoak».

Agerikoek bizitza osoa ematen dute [gay] komunitatearen testuinguruaren barruan; ezkutuek lanetik kanpoko bizitza osoa. Alegia, ezkutuek «hetero» direla lanean, baina jarduera sozial gehienak beste homosexual batzuekin eta haien giroetan egiten dituztela. (...) Ageriko-ekutu bereizketek badute nolabaiteko korrelazioa klase sozialekin, baina inola ere ez beti. (...) Ezkutua izateak esan nahi du soilik mundu heteroak eta haren ordezkariak -nagusiak, lankideak, familia, etxeko jabeak, irakasleak eta kaleko gizona- ez dutela publikoki identifikatzen. Bat norberaren identitate homosexuala *jende heterosexualarengandik* ezkutatu, edo ezkututzen saiatzen da. Goffmanen terminologiarekin esateko, bat saiatzen da fronte pertsonalaren kontrolaz eta norberaren bizitza pertsonalari dagozkion murriztapenez egozten zaion izaera gaitzesgarria aldatzen<sup>105</sup>.

Newtonen ikerketaren garaian, 60ko hamarkadaren amaieran, Ipar Amerikako gay komunitateak ez zeuden 70eko hamarkadan egongo ziren bezain ekonomikoki garatuta eta instituzionalki berezita. Hala, ohartarazi zuen: «[gay komunitateak] baditu alderdi ekonomikoak, baina ez ekonomia bat. Zentzu hertsian, gay munduan ez dago klase sistematik. Hala ere, gay bizitzak baditu zenbait geruza sozial, eta haiei balore bereizgarri bat ematen zaie. Jendeak hitz egiten du «klase garaiko», «klase ertaineko» eta «klase apaleko» tabernez, jaez, arropaz eta jendeaz»<sup>106</sup>. Eta «klase apaleko» kategoria ez zegokion soilik egoera ekonomikoari; areago, «estatus apaleko homosexualak, estatus ertainekoek eta garaikoek saihestuak eta moralki gaitzetsiak» sarritan izaten ziren «beren estilo nabarmenez eta muturreko alienazioarekiko egokipen bereziaz» izugarri agerikoak ziren beren burua erakustean<sup>107</sup>. Suposatzen zen bazegoela erlazio sorta bat klasearen, estigmaren eta agerikotasunaren artean, eta, ondorio gisa, mekanismo sorta bat muga sozialak sortzeko eta porrot ekonomiko edo sozialetik hurbiltzearen arriskuak kontrolpean izateko.

Bektore horiek guztiak bat egiten dute drag artista bi motaren arteko estatus desberdintasun handian: alde batetik, transformista profesionalak, eta bestetik kaleko maritxuak. «Kaleko maritxuak gazte homosexual langabetuak dira, jendaurrean estereotipo homosexualaren haragitzea direnak, eta gay munduko azpiklasea osatzen dute. (...) Eszenatokiaren ereduak, bestalde, *bereizi* egiten du estigma kontu pertsonaletatik, eta ahal den neurrian eszenatokiko testuingurura mugatzen du. Lana lanbide gisa ikusten dute, bere helburu eta arauekin»<sup>108</sup>. Izan ere, transformistak «homosexual profesionalak» ziren, identitate estigmatizatuak argi eta garbi adieraztetik bizimodua atera zezaketenak. Alde batetik, homosexualitatearen estigma ordezkatzeko zuten; bestetik, pertsonaia publikoak ziren, beren glamouragatik ospetsuak, eta posizio nahiko garai bat okupatzen zuten draga antzeztu zutenen artean.

Artista profesionalek gutxietsi egiten zituzten kaleko maritxuak, eta haiengandik distantzia soziala mantentzen saiatzen ziren. Kaleko dragak «dottore ustekoak» ziren, hau da, «arruntak, traketsak, kalitate gutxiak. (...) «Dottore ustekoa» termino gutxiesgarria da. Eta horixe zen artista zaharragoek, ikuskizun negozioari lotuagoak izaki, gehien erabilitako hitza estatus apaleko kale-antzeztu itxura deskribatzeko. (...) Beraz, «dottore ustekoa» klase bat deskribatzeko terminoa da, zeharka»<sup>109</sup>.

Homosexualitate estigmatizatu eta izen txarrekoaren adierazpen nabarmenak hala gaitzestea egoeraren araberakoa zen, eta aldakorra.

Hau kontsidera liteke estigmatizazioaren hierarkia bat, edo «begien bistako zerbait». Edozein taldek gauzen muga justu beherago jartzeko joera du. Adibidez, transformistak agerikoegitza jotzen dituzte homosexual gehienek. Estigmatizazioaren *continuumen* behealdean kokatzen dituzte etengabe, eta transformistek ikasi beharreko lehenbiziko gauzetako bat da ez duela inor agurtu behar -kalean zein beste edozein gune publikotan- agurtzen ez duten arte. Baina bere burua hain agerikotzat jotzen ez duten transformistak saiatzen dira jendeak lotu ez ditzan «nabarmenegiak» iruditzen zaizkion transformistekin, eta oso transformista gutxi erlazionatuko dira jendaurrean «kaleko maritxuekin», makillatuta doazen mutilekin, «arrazoirik ez dagoelako zeinu bat eramateko. Nabarmendu gabe bizi naiteke». Behekoek erresumina diete goian daudenei<sup>110</sup>.

Stonewall aurreko gay ekonomiaren egoera marginalak ez zuen errazten estatus garaiko artista karrerari eustea. Antzeztelak ere mailakatuta zeuden. Maila apalenean gay giroko taberna zegoen, beti egoera zaugarrian Poliziaren aurrean. «Gay tabernak behin betikotasunean bizi

dira, ez jabeek ez bezeroek ez dakite zenbat iraungo duen. Horregatik, gay tabernen helburu nagusia dirua bizkor egitea da. Hori muturrekoa izan daiteke Poliziaren presio handia dagoenean, eta apaldu egin daiteke jabeek nolabaiteko egonkortasunaren bermea dutenean. Baina diru bizkorraren politikak dakar jabeek gutxi inbertitzen dutela instalakuntzan, mantenimendu eta funtzionamendu gastuak murrizten dituztela eta etekin azkarra egiten saiatzen direla»<sup>111</sup>. Horren ondorioz, tabernak txikiak eta gaizki egokituak izaten ziren, artistentzako soldatak, apalak, eta «lan segurtasuna hutsaren hurrena», zeren eta «taberna edozein unetan itxiarazi baitzezaketen»<sup>112</sup>.

«Turistentzako kluba» gorago zegoen estatus, instalazio eta soldata eskalan; bertara bezero batik bat heterosexualak joaten ziren entretenimendu «exotikoak» ikustera. Halako klubek bezero gehiago dituzte, eta Poliziak ez ditu hainbeste kontrolatzen; «instituzio egonkorak dira gay taberna gehienen aldean. Egonkortasunari esker, turistentzako tabernak gay taberna arrunten azaleraren hiru halako du, gutxienez. Ez da bakarrik eszenatokia handiagoa dela, ikuskizun ikusgarriagoak eta garestiagoak eskaintzeko parada emanez; taberna bera ere handiagoa da, eta bezero gehiago sartzen dira. (...) Artistaren ikuspegitik, turistentzako klub batean lan egiteak esan nahi du ikuskizun landuago eta handinahiago bat egin dezakeela. (...) Gune pribatuari (kamerinoa), eszenatokiari (argiztapena, gortinak, musika taldea) eta eszenatokian emandako denborari dagokienez, turistentzako klubek erraztu egiten dute artisten lana. Hala eta guztiz, turistentzako klub bateko artistak frikiak edo pailazoak dira, ikusle etsai batzuen aurrean ikusgai jarriak»<sup>113</sup>. Hala, turistentzako tabernek soldata eta lan baldintza hobek eskaintzen dituzte, beren buru-estimua potentzialki kaltetzearen kostuz.

Transformisten marginaltasun sozialak eta lantoki urritasunak estatus garaiko artistak ere egoera kaskarrean, sarri hondamenditik hurbil bizitzea zekarten. «Managerrari izaten diote transformistek beldur handiena», dio Newtonek, «asko kontrolatzen dituelako, azken batean kontratatu edo kaleratu egin baititzake. Transformistek ez dute gogor egiteko modurik. (...) Transformistetako ezeinek ez zuen lan kontraturik; beraz, une batetik bestera kaleratuak izan zitezkeen (eta izaten ziren). Inork ez zekien noiz eroriko zen aizkorakada. Ez zegoen lanpostuari eusteko klausulen betebeharririk, ez formalki ez esplizituki, baina artistek bazekiten managerrari nola edo hala aurre egiteak kaleratzea ekar dezakeela»<sup>114</sup>. Horren ondorioz, transformista agurgarri eta arrakastatsuenen eta kaleko ospe txarreko maritxu pobretuen arteko marra arriskutsuki mehea zen. Profesional asko kaleko maritxuak izan ziren transformista bihurtu aurretik, eta «lana utzi edo kaleratu egiten bazituzten, kalera itzultzea beste irtenbiderik ez zuten. Transformistak lana uzteaz mintzatzen zirenean, «egoera legezatu» nahi zutela esaten zuten.

Baina kaleko artista bati galdetu nionean drag queensek zer egiten zuten lanik gabe geratzen direnean, hauxe esan zidan: “Ipurdia kalera atera, bihotza, eta beren alutxoak saldu emango dieten prezioan”»<sup>115</sup>. Ezegonkortasun ekonomiko erreala eta muga lausoak kontrastean daude kalearen eta eszenatokiaren artean arretaz landutako bereizte sinbolikoarekin.

Newtonen aberastasun deskriptiboa eta dotoretasun analitikoa elkarrekin txirikordatu ziren, eta sakondu egin zuen bere aurretik lan egindakoek ikertutako gaietan. Horien artean daude sexu azpikulturentzat hirien garrantziaren inguruko Parken oharrak, Hookerrek eta Achillesek azpimarratutako gay giroko tabernen garrantzia gay komunitatearentzat eta Poliziaren papera homosexualen instituzio sozialen parametroak ezartzean, baita Leznoffek eta Westleyk artikulatutako armairuaren ekonomia politikoak eta sexu aukera agertzea. Newtonek askoz xehetasun gehiagorekin aztertzen du lehenago beste behatzaile batzuek seinalatutako gay populazioaren barne bereizketa konplexua. Modu emankorrean garatzen du Goffmanek eta Beckerrek ikertutako desbideratzearen hierarkia moralen zatikatzea; Simonek eta Gagnonek bultzatutako sexualitatearen azterketa zientzia sozialen diziplinen barruan egitea; eta Simon, Gagnon eta Reissengan inplizitu dauden konstrukzionismo sozialaren teorien hastapenak. *Mother Campen* aipatzen dira Becker, Goffman, Hooker, Gagnon, Simon, Sonenschein, Leznoff eta Westley. Newtonek trebezia handia erakutsi zuen, egile haiek generoa, klase soziala, estigma, buru-aurkezpena eta Stonewall aurreko garaiko sexualitate marginalen ekonomia politikoak batzen dituen sintesi bikain bat iristeko egindako urratsak eta tresnak aplikatzean.

Newtonen lana tradizio soziologiko luze baten barruan kokatzen da, eta hasiera ematen dio antropologo belaunaldi berri bati. *Mother Campe*k antropologia barruan homosexualitatea ikertzeko uhin berri bat iragarri behar bazuen ere, ez zitzaion ia jaramonik egin, eta isiltasun izugarri batek jarraitu zion tarte mingarriro luze batean. Denbora askoan *Mother Camp*, dokumentu berebiziko hura, bakarrik egon zen, jarraitzailerik edo lagunik gabe, antza. Ia bi hamarkada pasako ziren Estatu Batuetako hirietako gay komunitateen inguruko literatura antropologikoa ugaritzen hasi arte<sup>116</sup>.

1979n argitaratu zen Deborah Goleman Wolfen *The Lesbian Community*. Urte berean argitaratu zen homosexualak komunitate «ia etnikoak» kontsideratzen zituen Stephen Murrayren saiakera garrantzitsua; hori bai, soziologia aldizkari batean. 1980an argitaratu zen Kenneth Readen *Other Voices: The Style of a Male Homosexual Tavern*. 80ko hamarkadan munta handiko lan ugari argitaratu ziren, besteak beste Blackwoodek editaturiko

*The Many Faces of Homosexuality* bilduma (1986), eta hiesaren inguruko gero eta literatura gehiago. Gilbert Herdten *Guardians of the Flutes* (1981) mugarri bat izan zen praktika homosexualaren antropologian, hiri modernoetako populazioetan zentratu ez arren.

Baina 90eko hamarkada arte itxaron behar izan zen, *Mother Camp* argitaratu eta bi hamarralditara, argitalpen kopuru handi bat metatzen hasteko. Aldaketa hori zein bat-batekoa izan zen ilustratzen dute *Annual Review of Anthropology* argitaratutako bi artikuluk. 1987n, «The Cross-Cultural Study of Human Sexuality»ren gaineko iruzkin kritiko batek zioen: «sexu praktikaren inguruko ikerketa profesionalaren omisio deigarriena homosexualitatearen alorrean aurkitzen da, inondik ere. Ahaleginak egin baziren ere sexu berekoen arteko kitzikatze eta erakarpenezko ereduak deskribatzen, gaia berehalakoan pasatu zen klandestinitatera, eta gaur arte ez zaio merezi duen arreta eskaini»<sup>117</sup>.

1993n, antropologia alorrean lesbiana eta gay populazioen inguruko ikerketaren hazkundera hain ikusgarria izan zen, non aldizkari espezializatueta gaiaren gaineko Kath Westonen iruzkin kritikoa barne hartu baitzuten, 1987ko iruzkinak halako materialaren eskasiaz kexatu eta sei urte geroago.

1990etik aurrerako argitalpenen artean daude Westonen *Families We Choose: Lesbians, Gays, Kinship* (1991) eta *Gay Culture in America* (1992) bilduma, Gilbert Herdtek editatua. Azkenean, 1993n, urte asko zain egon ondoren, antropologoek egindako hiru ikerketa argitaratu ziren: Elizabeth Kennedyren eta Madeline Daviesen *Boots of Leather, Slippers of Gold: The History of a Lesbian Community* (Buffalon); Ellen Lewinen *Lesbian Mothers*, eta Esther Newtonen *Cherry Grove, Fire Island*. 1993z geroztik, hazkunde esponentziala gertatu da argitalpen kopuruan, eta horrek ekarri du literatura etnografiko aberats eta garrantzitsua gay, lesbiana, transgenero eta bestelako populazio erotikoki markatuen inguruan.

## **Ondarea eta irakaspenak**

Nire lanak asko zor die Esther Newton, John Gagnon eta William Simon bezalako ikertzaileei. Haiek ahalbidetu zidaten Estatu Batuetako hirietako sexu komunitateen inguruan lan etnografikoa egiteko aukeraz pentsatzea, halako gaiak ikerketa antropologikoaren parametro onartuetatik kanpo geratzen ziren garai batean. Haiek emandako ideien korpusak ezagutzen ez nituen iturriak zituen, eta esparru intelektualak eskaintzen zituen

zientzia sozialen ikuspegitik pentsatzeko populazio erotiko marginatu eta estigmatizatuez. Azkenean Robert Park eta Howard Becker topatu nituenean, adibidez, oso ezagunak egin zitzaizkidan, irakurrita neuzkan testuetan haien hatz markak nonahi aurkitzen baitziren.

Hirietako gay komunitateen inguruko nire ikerketak ahalbidetu dit gehiago prezatzea testu etnografiko zaharrek jokaturako papera, eta oraindik ere zirrara eragiten didate haien sofistikazio kontzeptualak eta aberastasun deskriptiboak. Gay eta lesbianentzako tabernek XX. mendearen erdialdean izandako garrantzia hasiera batean eman lezake ez dela oso interesgarri edo zirrargarria. Gay tabernak hain dira ezagunak, erraz ahazten baita taberna horiek, oraingo zentzuan, ez zirela Estatu Batuetan existitu alkoholaren aurkako debekua altxatu eta tabernak eta kafetegiak lizentzia sistema batez berregituratu ziren arte; alkohol lizentzien inguruko arauak oso moldatu dutela hirietako praktika soziala; eta hirietako etxebizitzaren prezioen igoerak eta internet bidezko harremanen areagotzeak azpijana egin diezaiekeela tabernen, gay instituzio sozialak diren aldetik, bideragarritasunari eta garrantziari. Agian gay tabernak desagertzen edo gutxienez eklipsatuta geratzen ari dira, baina tipikoak izan dira XX. mendearen erdialdeko homosexualitatean, Ginea Berriko goi-ordokietako herri indigenetako sistema politikoetan Gizon Handiak bezain tipikoak, Hego Pazifikoko herri indigenetan eskala handiko merkataritza zirkuituak bezain tipikoak. Gay tabernez hori jakitea eta haien garrantzi aldakorraz pentsatzea ez da lehen begiratuan eman lezakeen bezain hutsala. Antzera, klase, arraza, estatus sozial, errenta, sexu orientazio, genero identitate, lan bazterkeria eta estilo adierazpenen arteko elkarketek ikertzen jarraitzea galdatzen dute.

Aurreko hamarkadetako esapideek zaharkituak eman baitezakete, haien sotiltasun teorikoa eta orijinaltasuna gutxietsi egiten dira sarri. Testuotan artikulatutako ideia askok gaur egungo ikerkuntzan durundatzen jarraitzen dute, hala ere, nahiz eta haien iturriak ostentzen diren. Egile horien lana presente dago konstruksionismo sozialaren paradigmatan, eta haiek elkartzen lagundu zuen. Literatura hori funtsezkoa izan da autoritate intelektuala kentzeko sexualitatearen inguruko azterketei, monopolizatuta baitzeukaten medikuntzak eta psikiatriak, eta sendo ezartzeko zientzia sozialen aldarrikapen intelektualak (bai instituzionalak ere) sexu azterketen esparruan. Azkenik, berrikuntza teorikoetan zein ekarpen etnografikoetan, hemen aipatutako testuak osagai garrantzitsuak izan dira sexu bariazioaren «perbertsio» ereduaren ordez, patologia suposatzen dituztenak, berdintasun morala eta zilegitasun igualitarioa dakartzaten «aniztasun» ereduak ezartzeko orduan.

Hutsegite zabaldua da errebelazio teoriko batekiko gure lehen topaketa haren lehen adierazpenarekin nahastea, eta norberaren biografia intelektuala gertakari publiko segida batekin nahastea. Espero dut saiakera honetan ustekabeen huts hori egin ez izana: alegia, nire aurkikuntza-bidea historia orokorrarekin nahasi ez izana. Ez da nire asmoa inondik inora ere jatorrien inguruko narrazio berri supersinplifikatu bat proposatzea, kritikatu ditudanen orde. Edonola ere, gaur egun sexualitatearen eta homosexualitatearen antropologian jakintzat ematen ditugun hainbat eta hainbat gauzak asko zor diote hiri soziologo, homosexualitatearen historialari eta etnografo aitzindari ausarten halako konglomeratu bitxi bati, haiek ordu arte ia inor joan gabeko alorrak jorratu baitzituzten, bai beren burua arriskuan jarri ere. Asko dago ikasteko atzera begiratuz eta haiek zenbat egin zuten ikusiz. Haien ekarpenak hain erraz ahaztu badira, ez da hainbeste lanagatik berarengatik, ezpada lanean aritu ziren garaiko egoera intelektual eta instituzionalaren mugapen izugarriengatik.

## OHARRAK

Saiakera honen sustraiak nire tesiko (“The Valley of the Kings”) atal literarioan egon arren, zenbait bertsiot eman ditut hitzaldietan. Haien artean, American Anthropological Associationen eta American Sociological Associationen urteroko biltzarretarako (1996an eta 1998n, hurrenez hurren) ponentziak, eta hitzaldiak, Kaliforniako Unibertsitateak, Los Angeles (1997), Kaliforniako Estatu Unibertsitateak, Northridge (1997) Missouriiko Unibertsitateak, St. Louis (1995) gonbidatuta.

Zorretan nago saiakera hau idazten lagundu didaten pertsona askorekin eta babesten duten ideiekin. Jeffrey Escoffier, John Gagnon, William Simon, Barrie Thorne, Howard Becker eta Esther Newtonekin izandako solasaldiek bereziki lagundu didate informazio zehatzago bat izaten Chicagoko Unibertsitateko ikerkuntza sozialaren testuinguruaz eta sexualitatearen gaineko gaur egungo azterketetarako hark izan duen garrantziaz. Barrie Thornek ezagutzera eman zizkidan zenbait artikulua oso lagungarri, eta haien kopiak helarazi zizkidan; eta Howard Beckerren lanean nuen interesaren berri jakin zuenean, hura aurkeztu zidan. Nire editoreek, Ellen Lewin eta William Leap, adore asko eman didate eta behar baino pazientzia gehiago izan dute nirekin. Mitchell Duneier, Jeffrey Escoffier, John Gagnon, Esther Newton, PJ McGann eta Carole Vancek testu honen zirriborroak irakurri dituzte, eta izugarri estimatzen dizkiet egindako iradokipen eta iruzkinak. Jay Marston inspirazio eta babes iturri etengabea izan da. Social Science Research Councilen Sexuality Research Fellowship Programen dirulaguntza batek, Ford Fundazioak emana, lagundu dit saiakera hau idazten.

<sup>1</sup> Reiter, *Toward an Anthropology of Women*; Rosaldo and Lamphere, *Women, Culture, and Society*.

<sup>2</sup> Ford and Beach, *Patterns of Sexual Behavior*; Ortner and Whitehead, *Sexual Meanings*.

<sup>3</sup> Ikuspegi orokor bikain baterako, ikus Weston, «Lesbian/Gay Studies in the House of Anthropology».

<sup>4</sup> Jagosek (*Queer Theory*) eta Turnerrek (*A Genealogy of Queer Theory*) queer teoriaren ikuspegi orokor bikaina eskaintzen dute, ez bata ez besteak aipatzen ez badute ere saiakera honetan eztabaidatutako gai gehienak.

<sup>5</sup> Saiakera hau idatzi zenetik, gai berberak aztertzen dituzten hainbat argitalpen kaleratu dira. Ikus, adibidez, Epstein, “A Queer Encounter”; Stein and Plummer, “I Can’t Even Think Straight”; Gagnon, “Sexual Conduct”; Nardi and Schneider, “Kinsey” eta *Social Perspectives in Lesbian and Gay Studies*; Rubin with Butler, “Interview”; Schneider and Nardi, “John H. Gagnon and William Simon’s *Sexual Conduct*”; Simon, “*Sexual Conduct* in Retrospective Perspective”; Weeks. “The ‘Homosexual Role’ after Thirty Years”; eta Weston, *Long Slow Burn*.

<sup>6</sup> Ginea Berria eta Ozeaniako kasuetarako, ikus, adibidez, Herdt, *Guardians of the Flutes* eta *Ritualized Homosexuality in Melanesia*; Kelly, "Witchcraft and Sexual Relations"; eta Williams, *Papuans of the Trans-Fly*. Ipar Amerikari dagokionez, ikus, adibidez, Brown, *Two Spirit People*; Devereaux, "Institutionalized Homosexuality among Mohave Indians"; Jacobs, Thomas, and Lang, *Two-Spirit People*; McMurtrie, "A Legend of Lesbian Love among North American Indians"; Roscoe, *The Zuni Man-Woman*; Whitehead, "The Bow and the Burden Strap"; Williams, *The Spirit and the Flesh*. Ikus orobat Evans-Pritchard, "Sexual inversion among the Azande"; eta Herskovitz, "A Note on 'Woman Marriage' in Dahomey".

<sup>7</sup> Marshall and Suggs, *Human Sexual Behavior*.

<sup>8</sup> Ibid., 235. o.

<sup>9</sup> Ibid., 231. o.

<sup>10</sup> Ibid., 236. Ikus orobat Estatu Batuetako Psikiatren Elkartearen *Diagnostic and Statistical Manuals of Mental Disorders*, 1st-4th editions (1952, 1968, 1980, 1987, and 1994); eta Bayer, *Homosexuality and American Psychiatry*.

<sup>11</sup> Marshall and Suggs, *Human Sexual Behavior*, 242. o. Letra etzana nirea da.

<sup>12</sup> Homosexualitatearen birkonfigurazioaz fenomeno sozial gisa, ik. halaber Escoffier, *American Homo*, 79-98. o.

<sup>13</sup> Ez dut Kinseyren eta Hookerren ekarpenen handitasuna gutxietsi nahi; biek merezi dute saiakera honetan eman dakiekeen baino tratamendu askoz zabalagoa. Beste egile askok idatzi dute Kinseyren lanaren eraginaz, eta bereziki argia da Paul Robinsonen analisia *The Modernization of Sex* bere lanean. 1998an, *Sexualities* aldizkariaren lehen aleak sekzio berezi bat eskaini zion Kinseyren lehen txostenaren argitalpenaren 50. urteurrena zela-eta (Nardi and Schneider, "Kinsey") antolatuta zen sinposio bati. Hookerren lanaren eraginaren ikuspegi orokorren artean onenetako bat da *Changing Our Minds: The Story of Dr. Evelyn Hooker*, Richard Schmiechenek zuzendua. Hookerren lanaren parte handiena hainbat artikulutan dago, eta lastima da oraindik elkartu eta bilduma batean argitaratu ez izana.

<sup>14</sup> Sexu politikaren zenbait alderdiren inguruko garai hartako ikerketak aurki daitezke in Brandt, *No Magic Bullet*; Connelly, *The Response to Prostitution in the Progressive Era*; D'Emilio and Freedman, *Intimate Matters*; Langum, *Crossing Over the Line*; Odem, *Delinquent Daughters*; eta Peiss, *Cheap Amusements*. «Esklabotza zuriari» dagokionez, ikus bereziki Connelly eta Langum.

<sup>15</sup> Chauncey, *Gay New York*, 367. o. Bere iturrien inguruko Chaunceyren oharrek (366.-370. o.) halako materialaren ikuspegi orokor oso erabilgarri bat eskaintzen dute, batik bat New Yorken kasuan.

<sup>16</sup> Heap, *Homosexuality in the City*, 16. o.; Vice Commisission of Chicago, *The Social Evil in Chicago*.

<sup>17</sup> Langum, *Crossing Over the Line*. «Mann legeak», dio Langumek, «FBIren lehen bulego dezentralizatua ekarri zuen, Baltimoren, eta agente kopuruaren areagotze ikusgarria. ... FBIri Mann legeak eman zion benetako bulkada. FBIa aztertu duen historialari batek idatzi zuen: "Mann legearen aplikazioak hasi zuen Justizia Ministerioko polizia bulegoaren[FBI] eraldatzea, lege federalen zati deslaien aplikaziorako bulego apal bat izatetik estatu eta hiri handi guztietan agenteak zituen

erakunde nazionalki aintzat hartua izatera» (Ibid., 49. o.).

<sup>18</sup> Bulmer, *The Chicago School of Sociology*, 60. o., baina ikus orobat 59.-60. o. Mann legearen salaketen beste helburu ezagun batzuk izan ziren, besteak beste, Jack Johnson, Chuck Berry eta Charlie Chaplin, (Langum, *Crossing Over the Line*).

<sup>19</sup> Park, Burgess, and Mc Kenzie, *The City*, 32.-33. o.

<sup>20</sup> Parken artikulua aldizkari espezializatu batean argitaratu zen 1915en.

<sup>21</sup> Ibid., 41.-42. o.

<sup>22</sup> Ibid., 43., 45.-46. o.

<sup>23</sup> Anderson, *On Hobos and Homelessness*; Creesy, *The Taxi-Dance Hall*; Reckless, *Vice in Chicago*; Zorbaugh, *The Gold Coast and the Slum*.

<sup>24</sup> Heap, *Homosexuality in the City*, 17. o.

<sup>25</sup> Ibid.

<sup>26</sup> Drexel, "Before Paris Burned"; Heap, *Homosexuality in the City*; Johnson, "The Kids of Fairytown"; Mumford, "Homosex Changes" eta *Interzones*.

<sup>27</sup> Aipatua in Galliher, "Chicago's Two Worlds of Deviance Research," 183. o. Barrie Thornek (komunikazio pertsonal batean) tradizio horren zenbait alderdi transmititu dizkit, adieraztean «ez zen erraza haiek ezerk harritzea», eta horrek ahalbidetu zuen ia-ia denetatik ikasi ahal izatea, garrantzirik eman gabe gaiaren ospe txarrari edo populazio sektore jakin bati. Jarrera horri esker, ikasketak errespetagarritasunezko irizpideak aplikatuta ezinezkoa izango zen molde horretako ikerketara zabaldu ziren.

<sup>28</sup> Beckerrek adierazten du zein zaila den egitura intelektualeko aldaketa horiek edozein pertsonari egozte. «Ni ez nintzen desbideratzeaz zerbait esaten interesatuta nengoen bakarria. Kai Eriksonen (1962) gauza bera esan zuen. John Kitsuse (1962) gauza berdinak esaten ari zen. Lemertek urte batzuk lehenago esan zituen. Jende baten ideiak airean zeuden. Seguru asko nik adierazpen oso garbi eta simple bat egin nuen zertaz ari ginen hizketan. Nire ustez, behintzat, adierazpen oso garbi eta simple bat da» (Becker with Debro, "Dialogue with Howard S. Becker [1970], 33. o.). Ongi badakit ere Becker apalegia dela (eta tipikoki eskuzabala), berrikuntza kontzeptual horietako gehienek jatorri konplexu eta askotarikoak dituzte. Saiakera honetan gehiegi sinplifikatzeko arriskua dut, eta ez dut hori nahi, bereziki ez naizelako aditua ez soziologian ez historia intelektualean. Nolanahi ere, Beckerren (eta Goffmanen) idazkiak oso eraginkorrak izan dira ideia multzo hori zabaltzeko orduan. Nire argudio orokorragoa da bazegoela kultura intelektual bat, eta haren joerak bereganatu eta era sortzailean aplikatu zituztela zenbait pentsalarik, azken batean eragina izan zutenak homosexualitatearen birrebaluazioan.

Chapoullek kultura horren garapenetik asko egozten dio Everett Hughesi: «Dozena bat urte baino gehiago 1983n hil zenetik, Everett C. Hughesi eskuarki aitortzen zaio katebegietako bat izatea «Chicagoko eskolako» fundatzaileen -W.I. Thomas eta Robert E. Park, eta horiei gainera geniezaieke Ernest W. Burgess eta Georges Herbert Mead filosofoa- eta 40ko eta 50eko hamarkadetan Chicagoko Unibertsitatean jardundako soziologo taldearen -interakzionista sinbolikoen taldea ere esaten zitzaion- arteko loturan. Instituzio, lana eta lanbideak, artea, desbideratzea eta medikuntza alorretan egindako ikerketengatik ospetsua den talde horretan sartzen

dira Erving Goffman, Howard S. Becker, Anselm Strauss eta Eliot Freidson, haiek ere alorreko lana egindakoak: metodo etnografikoa, ikuspegi emankorretako bat zientzia sozialen ikerkuntzan» (“Everett Hughes and the Chicago Tradition”, 3. o.). Chapuliek orobat ohartarazten du 50eko hamarkadaren amaieran ikuspegi etnografikoak ospea galdu zuela Chicagon, eta horregatik Hughes eta haren ikasle askok alde egin zuten unibertsitate hartatik (Ibid., 19. o.). Ikus halaber Reinharzen, “The Chicago School of Sociology and the Founding of the Graduate Program in Sociology at Brandeis University”.

Chapouliek ohartarazten du ere *Social Problems* eta *Urban Life and Culture* bezalako aldizkarien garrantziaz; aldizkariok ikertzaile talde hari lotuta zeuden, eta lan izugarri garrantzitsuak argitaratu zituzten sexualitatearen soziologiaz 60ko eta 70eko hamarkadetan. Pertsona eta aldizkari horien paperaren inguruko azterketak ni baino kualifikatuago dauden beste batzuei utziko dizkiet, lan soziologikoaren inguruan materiala sor dezaten. Hemen nahi dudana da lagundu haien ekarpenen balorazio bidezko bat egin dezaten antropologoek, queer teorizatzaileek eta beren ikasketek, nireak bezalaxe, material hau eskura jarri ez dieten beste batzuek. Ikus ere Becker, *The Other Side*.

<sup>29</sup> Galliher, “Chicago’s Two Worlds of Deviance research”, 169. o.

<sup>30</sup> Becker, “Whose Side are we On?”, 127. o.

<sup>31</sup> Ibid., 126.-127. o.

<sup>32</sup> «Berdintze morala» (*moral leveling*) esamoldea Paul Robinsoni zor zaio, *sexual leveling* esamoldea erabiltzen baitu Kinseyren inguruko bere analisisian (*The Modernization of Sex*, 58.-59. o.).

<sup>33</sup> Becker, “Whose Side are we On?”, 127. o.; ikus orobat Goffman, *Stigma*, antzeko berdintze eragin baterako.

<sup>34</sup> Becker, *Outsiders*, 30.-38., 167.-168. o.

<sup>35</sup> Gagnon, “An Unlikely Story”, 231. o.

<sup>36</sup> Plummer, *The Making of the Modern Homosexual*, 24. o.

<sup>37</sup> Simon and Gagnon, “Homosexuality”, 14.-16. o.

<sup>38</sup> Ibid., 17.-19., 24. o.

<sup>39</sup> Ibid., 24. o.

<sup>40</sup> Azpimarragarria da *Sexual Conduct* Observations sailean argitaratu zela, Howard Beckerrek Aldine-rentzat editatua.

<sup>41</sup> Leznoff and Westley, “The Homosexual Community”, 171.-172. o.

<sup>42</sup> Ibid., 189. o.

<sup>43</sup> Ibid, 191. o.

<sup>44</sup> Ibid, 192. o.

<sup>45</sup> Hooker, “The Homosexual Community”, 171.-172.o.

<sup>46</sup> Ibid, 173. o.

<sup>47</sup> Ibid. Garrantzizkoa da gay gizon larruzale komunitateez egin dudana ikerketarako (ez saiakera honetarako, baina) Hooker jabetzen zela bazegoela «motozale talde bat, larruzalea», gayen «emagizontze»aren estereotipoari aurre egiten ziona (Ibid., 182. o.).

<sup>48</sup> Achilles, “The Development of the Homosexual Bar as an Institution”, 230.-231. o.

- 49 Ibid., 234.-235. o.
- 50 Ibid., 235. o.
- 51 Ibid., 230. o.
- 52 Ibid., 242. o.
- 53 Ibid., 239. o.
- 54 Ibid., 244. o.
- 55 Garber, "A Historical Directory of Lesbian and Gay Establishments in the San Francisco Bay Area"; Garber and Walker, "Queer Sites in San Francisco" database, Gay, Lesbian, Bisexual, Transgender Historical Society of Northern California", 2000. Rubin, "The Valley of the Kings," "Elegy for the Valley of the Kings", "The Miracle Mile", "Sites, Settlements, and the Urban Sex".
- 56 Simon and Gagnon, "Homosexuality", 21. o.
- 57 Harry and DeVall, *The Social Organization of Gay Males*, 154. o. Steve Murrayk gauza bera dio Haren arabera, «komunitatea» zientzia sozialetako termino bat den neurrian eta Estatu Batuetako hirietan komunitateak dauden neurrian, "gay komunitateak" ere badaude ("The Institutional Elaboration of a Quasi-Ethnic Community", 165. o.).
- 58 Reiss, "The Social Integration of Peers and Queers", 199. o.
- 59 Ibid., 225. o.
- 60 Ibid., 214.-219. o.
- 61 Ibid., 224.-225. o.
- 62 Estrategia teoriko horietako batzuk, berriz, Kinsey, Pomeroy eta Martinen *Sexual Behavior in the Human Male* testuan oinarritzen dira, 1948n argitaratua, zeinean sexu ekintzen eta izena ematen zitzaizen sexu identitateen arteko bereizketa oso erabiltzen baitzen. Kinseyren papera funtsezkoa izan zen, eta ez litzateke gutxietsi behar, haren ekarpenak saiakera partikular honen argudio lerro nagusitik kanpo geratzen diren arren. Hala eta guztiz, garbi dago haren lanak eragin handia izan zuela hemen aipatutako soziologoengan.
- 63 Escoffier, "Inside the Ivory Closet", "Generations and Paradigms", eta *American Homo*; Hansen, "The Historical Construction of Homosexuality"; Katz, *Gay/Lesbian Almanac*; Padgug, "Sexual Matters"; Plummer, *Sexual Stigma, The Making of the Modern Homosexual* eta *Modern Homosexualities*; Rubin, "Thinking Sex" (liburuki honen 5. atala); Vance, "Social Construction Theory" eta "Anthropology Rediscovered Sexuality"; Weeks, *Coming Out. Sex, Politics and Society, Sexuality and Its Discontents, Sexuality* eta *Against Nature*, "The 'Homosexual Role' after Thirty Years" eta *Making Sexual History*.
- 64 McIntosh, "The Homosexual Role", Plummer, *Sexual Stigma*, eta *The Making of the Modern Homosexual*; Weeks, *Coming Out*, "The 'Homosexual Role' after Thirty Years" eta *Making Sexual History*.
- 65 Kinsey, Pomeroy and Martin, *Sexual Behavior of the Human Male*, 610.-666. o. Merezki du Kinseyren iruzkin zorrotzenak gogoratzea: «Sexu portaera ereduak dagokienez, zientzialariek eta jende arruntak egindako gogoetak datoz suposatsetik badaudela "heterossexualak" diren pertsonak eta "homossexualak" diren pertsonak, bi

pertsona mota horiek antitetikoak direla sexuaren munduan, eta bakarrik “bisexual” gutxi batzuk daudela beste bi taldeen erdibiko posizioa okupatzen dutenak. Suposatzen da gizabanako bakoitza, berez, jaiotzez, dela edo heterosexuala edo homosexuala. Suposatzen da orobat pertsona bat jaiotzen denetik gauza bat edo bestea izatera bideratuta dagoela, eta oso aukera gutxi daudela pertsona batek eredu hori alda dezan bizitzan barrena» (*Sexual Behavior in the Human Male*, 636.-637. o. Horretaz gain, «Gizonak ez dira bi populazio diskretutan banatzen, heterosexuala eta homosexuala. Mundua ez dago ardi eta ahuntzatan banatuta. Gauza guztiak ez dira beltzak, ezta zuriak ere. Taxonomiaren oinarri bat da natura ia ez dela kategoria diskretuez arduratzen. Soilik giza gogoak asmatzen ditu kategoriak, eta saiatzten da egitateak indarrez sail desberdinetan sartzen. Bizien mundua *continuum* bat da bere alderdi guzti-guztietan. Gizakien sexu portaerari dagokionez, hori zenbat eta lehenago ikasi, gero eta lehenago iritsiko dugu sexuaren errealtateak behar bezala ulertzea» (Ibid., 639. o.).

<sup>66</sup> McIntosh, “The Homosexual Role”, 183. o.

<sup>67</sup> Ibid., 33. o.

<sup>68</sup> Ibid., 187. o.

<sup>69</sup> Ibid., 188.-189. o.

<sup>70</sup> Weeks, *Coming Out*, 239. o.

<sup>71</sup> Ibid., 3. o.

<sup>72</sup> Ibid., 35.-37. o.

<sup>73</sup> Konstrukzionismo sozialaren garapenaren historia honen bertsio osoago baterako, ikus Vance (“Social Construction Theory”, “Anthropology Rediscovered Sexuality”) eta Escoffier (“Inside the Ivory Closet”, “Generations and Paradigms”).

<sup>74</sup> Katz, *Gay American History*, *Gay/Lesbian American Almanac*, “The Invention of Heterosexuality”, eta *The Invention of Heterosexuality*.

<sup>75</sup> Horren adibide labur bat dugu Althusserren eta Balibarren *Reading Capitalen*, Frantziar 1968n argitaratua, eta ingelesez, 1970en. Balibarrek zehaztasunez esplikatzeko du “*indibidualtasun historikoen molde diferentzialak*” kontzeptua (251. o.). «Esan dezakegu praktika erlatiboki autonomo bakoitzak bere ezaugarriak diren indibidualtasun historikozko moldeak sortzen dituela. ... Praktika bakoitzeko, eta praktika horren eraldatze bakoitzeko, indibidualtasun molde desberdinak daude, beren konbinazio-egituratik abiatuta definitu daitezkeenak» (Ibid. 252. o.). Subjektibotasuna sortzea kezka nagusia izan zen 60ko hamarkadako hainbat eta hainbat frantziar pentsalarientzat, eta subjektibotasunaren sorreratik, oro har, sexu subjektibotasunaren sorrera zehatzera ez dago jauzi handirik. Ikus halaber Eribon, “Michel Foucault’s Histories of Sexuality”, eta, era zabalago batez, Dosse, *History of Structuralism*, 1 eta 2 liburukiak.

<sup>76</sup> *The Order of Things*en bere hitzaurrean, Foucaultek zioen: «Liburu hau Borges-en pasarte batetik sortu zen, algara batetik, hausten zituena, nik irakurri ahala, nire pentsamenduaren -gure pentsamenduaren, gure adinaren eta gure geografiaren zigilua daraman pentsamenduaren- mugarri ezagunak, eta aldi berean existitzen diren gauzenugaritasuna gobernatzera ohituta gauden azalera ordenatu eta plano guztiak hankazgoratzen. ... Pasartean aipatzen da “halako entziklopedia txinatar bat”,

zeinean idatzita baitator honako hau: “animaliak honako kategoria hauetan banatzen dira: (a) Enperadorearenak, (b) baltsamatuak, (c) etxekotuak, (d) txerrikumeak, (e) sirenak, (f) alegiazkoak, (g) txakur herratuak, (h) sailkapen honetan sartzen direnak, (i) harrotuak, (j) zenbatezinak, (k) gamelu-ilezko pintzel finez margotuak, (l) eta abar, (m) ur pitxerra hautsi berri dutenak, (n) urrunetik euliak ematen dutenak”. Taxonomia horren txundiduran hautematen duguna jauzi handi batez, alegiaren bidez beste pentsamendu-sistema baten xarma exotikoa dela frogatzen dena, da gurearen muga» (XV o.). Hau une antropologiko sakona da, fikzioan sortua bada ere, etnosailkapenaren xehetasun harrigarrian baino gehiago.

<sup>77</sup> Turner, *A Genealogy of Queer Theory*, 66. o.

<sup>78</sup> Saiakera honek queer ikerketek zientzia sozialetako beren aurrekariaren inguruan duten amnesia aztertzen badu ere, garrantzitsua da seinalatzea soziologia barruko beste ahanztura identiko bat, sexuaren inguruko ikerketetan egindako ekarpenei dagokiena. Adibidez, Gary Alan Finek Chicagoko Bigarren Mundu Gerra osteko soziologiaren inguruan editatutako bilduman ez dira agertzen ez John Gagnon ez William Simon. Hutsune hori harrigarria da, kontuan izanda giza sexualitatearen inguruko haien lanaren munta. Reiss eta Westley agertzen dira, baina bakarrik kriminologiaren, desbideratzearen eta metodologiaren inguruko lanei lotuta. Ez dira aipatzen homosexualen gaineko ikerketa etnografikoetan egindako sartu-irtenak. Horrek iradokitzen du, estigmaren gaineko beren ikuspegi kritikoak gorabehera, soziologoak ere ez direla libratzen sexuaren ospe galeraren ajetik.

<sup>79</sup> Turner, *A Genealogy of Queer Theory*, 63. o.

<sup>80</sup> Antzeko ikuspegiari eutsi diot nik (Rubin eta Butler, “Interview”). Bat nator ere Turnerrekin: «Konstruksionismo sozialaren posizioen garaipen ia erabatekoak, bere aldetik, lagundu egingo luke neurri handi batean queer teoriaren posibilitaterako baldintzak ezartzen, jakintzat ematen dutenak sexu identitatearen inguruko kategorien aldakortasun historiko errotikoa» (*A Genealogy of Queer Theory*, 69. o.).

<sup>81</sup> Vance, “Social Construction Theory”, 17. o.

<sup>82</sup> Polanyi, Arensberg and Pearson, *Trade and Market in the Early Empires*, 239. o.

<sup>83</sup> *Ibid.*, 240. o.

<sup>84</sup> *Ibid.*, 250. o.; ikus ere Sahlins, *Stone Age Economics*.

<sup>85</sup> Thompson, *The Making of the English Working Class*, 9. o.

<sup>86</sup> Eskerrak eman behar dizkiot Charles Tillyri saiakera zoragarri horren berri eman izanagatik.

<sup>87</sup> Gai hau sakonago aztertzea saiakera honen mugetatik kanpo geratzen da, baina adierazi beharra dago feminismoa eta marxismoaren zenbait joera aldaketa epistemologiko handi horiek garatu ziren gune garrantzitsuak izan zirela. Ikus orobat Stein and Plummer, “I Can’t Even Think Straight”.

<sup>88</sup> Walkowitz, *Prostitution and Victorian Society*, 192.-213. o. Judith eta Daniel Walkovitz jada 1973n ari ziren ikuspegi hori defendatzen.

<sup>89</sup> Ale monografiko hura benetako mugarri bat izan zen aldizkari espezializatuen munduan. Padgugen eta Hansenen artikuluez gain, badaude familiaren inguruko artikulua, E.P. Thompsonena eta Ellen Rossena, Blanche Wiesen Cooken artikulua bat lesbianen historiak, eleberrir erromantikoen gaineko Ann Barr Snitowen artikulua,

Jeffrey Weeks-en saiakera bat gay identitateaz eta esanahi sexualez, soziobiologiari egindako kritika bat, Donna Harawayren zientzia biologikoaren historiaren testuinguruan, eta beste zenbait ekarpen ospetsu.

<sup>90</sup> Vance, "Social Construction Theory", 13. o.

<sup>91</sup> Vancek ("Anthropology Rediscovered Sexuality") alderatzen ditu konstrukzionismo soziala sexualitatearen gaineko aurreko literatura antropologikoarekin, analisi sozialaren aplikazioan hain trinkoa ez zena, eta zenbait premisa biomedikal gordetzen zituena.

